

"Bus azkarra jarri nahi dugu, udalen onespenerekin"



Arantza Tapia
Lurralde Antolaketako diputatua | 8

Otsailean behera egin du langabeziak

Bergarak eta Elgetak bakarrik egin dute gora bailaran | 4

Monzon gogoan izateko ekitaldiak astelehenerik aurrera Bergaran | 4



Aitziber Plazaolaren atxiloketa gaitzesteko mobilizazioak | 5




Aratusteak ospatzeko ekitaldiak bailarako herrietan | BEGIRATU HERRIKA

"Kolpeak eta irainak jolas hutsak ziren harendako"

Tratu txarrak jasan dituen emakume baten hitzak dira | 2

Ganbarako txikienen musikala etzi Oñatin | 32



Musikaleko kartela. | GANBARA

Elikagaiak jaso eta banatzeko boluntarioak behar dituzte

Elikagaien Bankuak biltegia irekiko du hil amaieran Bergaran | 5

Manifestazioa egingo dute Martxoaren 8an Arrasaten | 12

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



DENA GERTU ASTELEHENEAN ATEZ ATEKOA HASTEKO

Astelehenean ekingo diote Antzuolan zaborra batzeko atez ateko sistemari. Hori horrela, astean buru-belarri aritu dira udaletxeko informazio bulegoan, ordurako guztia prest egon dadin: herritarrei zabor organikoa batzeko kubo marroiak banatu dizkiete, baita argibideak eta material informatiboa ere, haiek zuzen nola erabili jakiteko; hala nola gida, asteko egutegia zehazten duen imana, hondakin bakoitzari buruzko hiztegia... Sistema berriari ongiatorria egiteko jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza. | 11

Herritar bat, zabor organikoaren kuboa dagokion zintzilikarioan eskegitzen. | USOA AGIRRE

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ORAINDIK ... **EZ DUZULA?**

goienakluba[™] 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

Econetic TECHNOLOGY

C-MAX berria. Esku libreko aparkatzeko sistemarekin.

C-MAX gama baten besteko konsumoa 4.6-6.9 l/100km. CO₂ igarpenak 109-159 g/km.

Ford

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

Biolentzia sexista: gazteengana ere iritsi den gaitza

- ▶ Adin guztietako jendeak eragiten eta sufritzen du
- ▶ Laguntza zentralizatu beharra ikusten dute adituek

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren alderik mingarriena, biolentzia sexista, gazteek ere eragiten eta sufritzen dute: horrela ondorioztatzen da arlo horretan lan egiten duten profesionalen esanetatik. Oraindik oso zabaldua dauden usteen kontra, biolentzia horren biktimak ez dira soilik adin batetik gorako emakumeak, ez eta ikasketa edo diru-iturri propio bako emakumeak. "Ez dago profil jakin bat", esaten du Bergarako epaitegian Genero Biolentzia epaile Izaskun

Jacak. Bere hitzetan, adin txiki-koen kasuak ere pasa izan dira epaitegitik.

Oñatiko Javier Perez abokatuak bere jardun partikularrean zein guardiako jardunean "20 urtetik 70 baino gehiago arteko emakumeen" kasuak ikusi izan ditu. Bere hitzetan, gehienek lanpostu bat zuten etxetik kanpo, seme-alabak zituzten eta Euskal Herrikoak edo Espainiakoak ziren; hau da, etorkinen kasu gutxiago izan ditu.

Bestalde, gaur egun arazo horren inguruko inoiz baino

informazio gehiago eta kontzientzia-hartze handiagoa dago. Javier Perez abokatuaren esanetan, "igartzen da erakundeen kanpainen eragina, bai salaketa gehiago daudelako, baita biolentzia eragiten dutenek ere gutxiago eragiten dutelako, izan ditzaketen ondorioengatik".

Prozesu luzea irekitzen da

Informazio gehiago dagoenez, emakumeek badakite laguntza lortzeko bideak dituztela.

Jarrai dezaketen bide bat da bere erasogilearen aurkako sala-

keta jartzea, Ertzaintzaren komisariorian edo epaitegian. Baina horrek izan ditzakeen adarkadurak ez dakite ezer, abokatuarekin hitz egiten duten arte.

Perez abokatuak esaten digunez, salaketa lehenengo pausoa besterik ez da. "Hortik aurrera, hamaika aukera irekitzen dira: salaketa jarri ondoren, epaitegi-ara doa kasua. Lehenengo unean, epaileak emakumearen aldeko Babes Integraleko Agindua eman dezake (Urruntze Agindua bezala ezagunagoa dena), neurri kautelar gisa; edo Ertzaintzari instantzia bat jarri diezaioke. Tramite hori oso bizkorra da. Baina gero, emakumea nolabait babesgabe sentitzen da: ez daki nola irten dezakeen etxetik, bikoteki-dearen beldur da...".

Epaitegiaren aldetik, prozesu judizial luzea hasten da, eta emakumeak zenbait aldiz egin behar du kontakizun berbera: Ertzaintzan, abokatuarenean, epaitegi-medikuarenean, epaitegian... Hori eta gero, Urruntze Agindua apurtzen badu gizona, berriz salatu dezake emakumeak... Oro har, oso prozesu luzea da.

Emakumearen esku dago salaketa jartzea edo ez, eta baita, epaiketari zehar, akusazio partikularra -hau da, berak, biktima gisa, bere abokatuaren bitartez egiten duena- bertan behera uztea. Dena dela, kontuan izan behar du Ministerio Fiskalak erabaki dezakeela akusazio publiko gisa aurrera jarraitzea, eta hori gertatzen bada, emakumea deklaratzera deituko dutela.

Emakume honek ez du ibilbide erraza izan; 10 urte luzean bikotekidearen zakarkeria, mespretxua, irainak eta zenbait kolpe ere jasan ostean, harekin ezkontzeko erabakia hartu zuen. Orain, begiak zabaldu ostean, bizitza berri bati hasiera eman dio. Oraindik momentu txar asko gogoratuko ditu, noizean behin atzera ere begiratuko du kalean barrean bakarrik doala ikusita, baina, horren guztiaren gainetik, bereak dituen bizitza eta duintasuna berreskuratzen dihardu.

IMANOL GALLEGO

Nola hasi zen guztia?

Ezingo nizuke lehen egoera bat deskribatu; eguneroko bizitzan eta ia era naturalean, nire senarrak bereganatu egin ninduen. Begirada gogor bat, garrasi bat, bultzada bat... ohartu orduko haren menpe nengoen, eta, horrez gainera, biziki maite nuen pertsona da.

Ez da egoera erraza.

Gutziz kontrakoa, oso egoera zaila da, sentimenduak pentsamenduekin kontrastean konstantean daude, baina ni ez nintzen nire buruaren jabe. Hau gutxi balitz, nik hanka-sartze handia egin nuen. Honako hau: nire bigarren senarra da eta ez duzu bigarren ezkontza apurtzerik nahi. Batzuetan, gertakari oldarkor horien erruduna nintzela pentsatzen nuen. Hau esatea gogorra egiten zait, baina bakarrik zahartzeari ere beldur nion. "Ez da senar perfektua izango, baina nire senarra da"; tankera horretako pentsamenduak izatera iritsi nintzen.

Kolpeek non egiten dute min handien, jasotzen zenituen tokian ala zure barrenean?

Barrenean, duda barik. Ubeldura bat egun

TRATU TXARRAK JASO DITUEN DEBAGOIENDAR BAT

"Tratu txarrak aitortzean familiaren babesik jaso izan ez banu, ziur nago harekin jarraituko nuela"

batzuetan min egin ostean desagertu egiten da, baina nola ezaba dezakezu arrastorik utzi ez dizun kolpe bat? Kolpe bat jasotzea oso gogorra da, baina are gogorragoa da duintasuna galtzea. Denborarekin, haren emazte izate-rik haren neska izatera pasa nintzen. Etxea garbitu, janaria prestatu... sexuan ere horrela gertatzen zen, hark nahi zuenean eta nahi zuen eran egin beharra zegoen. Hura etxeko gizona zen eta hori aspektu guztietan argi uzten zuen, eta nik men egin behar nion.

Baina etxetik kanpo beste bat zen?

Etxetik kanpo, adeitsua zen arren, bere izaera noizean behin erakusten zuen. Batzuetan bere zakarkeria agerian uzten zuen, gehienbat nirekin. Festa batzuetako dantzaldian, han zeuden gizon guztiekin limurtu nahian ibiltzea egotzi zidan oso modu gogorrean; egoera ez ulertu arren, isildu egin nintzen eta egun hobe batekin egiten nuen amets.

Isiltasunak zure bizitzan pisu handia zuen?

Zuen eta dauka. Zorionez, nire etxeko paretak mardulak dira eta ez dut uste inork etxe barruan gertatzen zena sumatu duenik.

Horrenbesteko garrantzia dauka "zer esango dute?" horrek?

Niretzat bai. Salaketa jar dezakezu, etxetik bota, baina inguruak nola erantzungo du? Sinetsiko didate? Txorrotzat hartuko naute? Jendea ez da parekoaren arazoetan sartzen. Nik badakit batek baino gehiagok zerbait susmatzen zuela, baina ez nuen erantzunik jaso, ez lehen, ezta orain ere.

Baina ez zinen salaketaren bat jarritza ausartu?

Ez zen ausardia kontua, edo akaso bai. Batetik, bakartasunari aurre egiteko gai zaren galdetzen diozu zure buruari behin eta berrero; eta bestetik, legeak zulo asko ditu. Epaiketari deklaratu ezean, epaiketari ez du aurrera egiten eta hura

gehiago haserretzeko besterik ez luke balioko. Gainera, herri txiki eta tradizionaletan honelako arazoak ez dira ulertzen.

Dena den, behin lagun baten aurrean guztia aitortu zuen?

Ez zen guztia izan, zerbait puntuala izango balitz bezala azaldu zuen. Hala ere, nik laguntzat neukan horrek ez zuen erreakziorik izan, eta horrek min handia egin zidan. Laguntzat neukan eta ez zen laguntza eskaintzera ere ausartu. Are gehiago esango dizut, momentu hartan ez zion ezer esan hari ere, eta gaur egun lagun handiak dira.

Harrigarria.

Hipokrita, esango nuke, baina hura eta gizarte osoa. Zuk inkesta bat egingo bazenu, gizartearen %100ek genero indarkeria gaitzesten duela ziur nago. Baina haietatik, zenbatek egingo lukete zerbait? Gutxi batzuek. Jendeak ez du arazo gehiagorik nahi, eta, kalean irribarretsu eta alai agertzen den bitartean... etxe barrukoak ez du garrantzirik.

Haren lagunek nola erreakzionatu zuten zuei ubeldura batekin kalera irten zinen hartan?

Lagunek galdetu egin zuten, baina nik gezur bat asmatu eta guztia bertan behera gelditu zen. Guztia honela gertatu zen: tabernara iritsi bezain laster, begiko ubelduragatik galdetu zidaten, eta nik esan nuen ate baten kontra jotako kolpe bat zela. Momentu hartan hura iritsi eta lagun batek esan zion: "Zer, orain emaztea jotzen duzu?". Nik behera begiratu nuen eta hark, barre algararen artean, baietz esan zuen, beste *hobbie* bat izango balitz bezala. Horrek min handia egin zidan, harentzat kolpeak eta irainak jolas hutsak besterik ez zela erakutsi zidan, hark barrenean daukan portaera bat izango balitz bezala. Horrek, asko

"Jendeak ez du arazorik bereganatu nahi"

"Salaketak ez lidake askorik lagunduko"



Telesforo Monzon omenduko dute egunotan, hil zela 30 urte beteta

- ▶ Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak hiru berbaldi eta kontzertua gertatu dituzte, besteak beste
- ▶ Ezker Abertzaleak ere bergararra goratzeko ekitaldia egingo du martxoaren 13an, pilotalekuan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Eguaztenean, hilaren 9an, 30 urte beteko dira Telesforo Monzon hil zela, eta, hori dela-eta, hainbat ekitaldi egingo dira datozen egunotan politikari eta euskaltzale bergararren omenez.

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak haren bizitza buruzko hiru hitzaldi antolatu dituzte martxoaren 7tik 14ra (ondoko taulan dago horien gaineko informazioa). Horretaz gain, eguaztenean, plaka bat jarriko diote plazan. Udal Artxiboaren gaineko plazatxoak, Olaso ondokoak, Telesforo Monzonen izena badu ere, ez du plakarrik izan orain arte. Aurrekoa ere dantzatuko dute ekitaldi berean, eta lore sorta jarri.

Bestalde, Pantxoa eta Peioren kontzertua izango da zapatuan, hilak 12, Udal Pilotalekuan. Astelehenean jarriko dira sarrerak salgai Bergarako kultura etxean,

8 eurotan. Antolatzaileek gogorazi dute kontzertua baino ordu-bete lehenagotik ere eskuratu ahal izango direla pilotalekuko leihatilan.

"Xumea, baina hunkigarria"

Udalak eta Fundazioak antolatutako ekimenaz gain, Ezker Abertzaleak ekitaldi "xume baina hunkigarria" gertatu du, Monzonen memoria goratzeko eta haren mezuaren gaurkotasuna aldarrikatzeko. Martxoaren 13an izango da, 18:30ean, pilotalekuan.

Martitzenean egindako agerraldian, Martin Garitanok eta Maite Aristegik esan zuten edonori zabalik dagoen ekitaldia dela. Horren bidez, Monzon bera nolakoa zen gogoraraziko dute, haren hitzak berreskuratuz eta ezagutu zutenen adierazpenak jasoz. Ekitaldiak jai kutsua ere izango du: Osintxuko dantza taldeak eta bertso eskolak emanaldia egingo dute, eta pilotalekuan



Martitzenean Ezker Abertzaleak egindako agerraldia. | MIRIAN BITERI

HITZALDIAK

KOLDO IZAGIRRE, idazlea
Martxoaren 7an
Monzon kultur gilea

LUDBER MESS, historiagilea
Martxoaren 11n
Monzon sailburu izan zenekoa

IÑAKI EGAÑA, historiagilea
Martxoaren 14an
Iparaldeko errefuxiatuekin harremanak

HITZALDI GUZTIAK, 19:00ETAN,
OLASO DORREAN

batzen direnek Monzonen kantuak abestuko dituzte. Azkenik, hitzaldi politikoa izango da; Agurne Barrusok eta Tasio Erkiziak hartuko dute parte.

Garitanok azpimarratu zuen Monzonen mezuak "inoiz baino zentzu handiagoa" duela. Haren esanetan, "eskura daukagu gure herria, gure aberria, Estatu libre bat izateko prozesu demokratikoa. Inoiz baino baldintza hobekitu ditugu abian den prozesu hori askatasuna, autodeterminazio eta bakerantz bideratzeko".

Debagoiengan 47 langabe gehiagorekin amaitu zen otsaila

Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin eta Leintz Gatzagan behera egin du langabeziak

M.B. | BERGARA

Behera egin zuten otsailean langabezia datuek. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak eskaintako datuen arabera, 3.046 langabe (populazio aktiboaren %9,83) zeuden erregistratuta Debagoiengan otsail bukaeran; hain justu, urtarrilean baino 47 gutxiago.

Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin eta Leintz Gatzagan jaitsi egin zen denbora tarte horretan langabeen kopurua. Arrasatek, esaterako, 39 langile gehiagorekin amaitu zuen otsaila; urteko lehen hilabetean 1.328 langabe zituen, eta otsail bukaeran 1.289. Oñatin eta Eskoriatzan ere nabarmen jaitsi dira; lehenak 26 langile gehiago ditu orain eta bigarrenak, 14.

Bergaran eta Elgetan gora

Bergaran eta Elgetan, aldiz, gora egin du esandako kopuruak. Ber-

garak 36 langabe gehiago zituen otsailean eta Elgetak, oster, 6. Azkenik, Antzuola berdin mantendu da, 86 langaberekin. Portzentajei dagokienez, Leintz Gatzaga da kopuru txikien duen udalerrria: hain justu, %3,76. Handien duena, berriz, Arrasate da: %11,14.

Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazi du otsailean gora egin duela langabeziak; aurreko hilean baino 3.054 langabe gehiago daude; 191.322 lagun daude lan barik.

Enkantera atara dituzte Oñatiko Kurtzekua eta Zubillaga arteko bidegorriko lanak

M.B. | OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren ekimenaz, enkantera atara ditu Oñatiko herri-gunea (Kurtzekua) eta Zubillaga auzoa bitarteko bidegorria egiteko lanak. Horren aurrekontua 2.499.370 euro da eta 10 hilabete izango ditu enpresa esleipendunak esandako lanak egiteko.

Diputazioaren aurreikuspenen arabera, irailean hastekoak dira, eta, hortaz, 2012ko uztaileko abuzturako zabalik egon

beharko luke 3,9 kilometro luze izango den ibilbideak.

Langileendako egokia

Bidegorriak trazatu leuna edukiko du; 3,5 metro zabal izango da eta oinezkoen zatia eta bizikletena berezita joango dira: 2 metro bizikletendako eta 1,5 metro oinezkoendako. Argiak izango ditu bide osoan, eta, Diputazioaren arabera, bidegorri berria oso azpiegitura egokia izango da lantegi askotara modu iraunkorrean joan ahal izateko.


Gasaren fakturarekin haserre daude debagoiendar asko

Aramaio, Elgeta eta Leintz Gatzagako herritarrak daude gas kontsumoaren faktura asko igo dela salatu duten EAEko herri askotako bizilagunen artean. Zenbait kasutan %45eko hazkundera izan dutela diote, kontsumoa beste hilabeteetakoarekin antzekoa izanda. Enpresa hornitzailea den Repsolek dio, ordea, fakturen igoera erregaien prezioaren igoeratik eta kontsumoaren hazkunderatik dela. Horren harira, Aralarrek hainbat galdera igorri die Kontsumo sailburu Rafael Bengoari eta Industria sailburu Bernabe Undari.

HERRIZ HERRI

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|----------------|--------------|--------------|
| Antzuola | 86 | %9,45 |
| Aretxabaleta | 287 | %8,89 |
| Arrasate | 1.289 | %11,14 |
| Bergara | 759 | %10,58 |
| Elgeta | 47 | %9,55 |
| Eskoriatza | 191 | %9,19 |
| Leintz Gatzaga | 5 | %3,76 |
| Oñati | 382 | %7,07 |
| GUZTIRA | 3.046 | %9,83 |

*Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa



MENDEKOTASUNAREN LEGEAK GIPUZKOAN IZANGO DUEN ERAGINA. INFORMAZIOA

Tarteko mendekotasuna duten pertsonak ere izango dute laguntza 2011n; I. gradu 2. mailako mendekotasuna dutenek, hain juxtu.

Pertsona horiek zein diren? Egunean behin behintzat laguntzaren bat behar dutenak, eguneroko bizimoduko jardura oinarritzko batzuk egiteko; eta baita aldi behin nolabaiteko laguntzaren bat behar dutenak ere, beren kasa moldatzeko.

Gradu horretako mendekotasuna dutenentzat telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak daude, eta baita prestazio ekonomiko batzuk ere pertsona bere ingurunetik atara gabe zaintzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

Txanpon bat eta domina bat aurkitu dituzte Deskargako hobi baten

- ▶ Gerra garaiko hobian bi pertsonaren arrastoak egon zitezkeela uste zen
- ▶ Tokia aztertzea beharrezkoa zen, errepide berriak dena aldatuko du-eta

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA

Martitzenean hasi ziren Aranzadi elkartekoak Espainiako gerra-ko hobi baten bila Deskargako maldan. Lan hori Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideekin elkar-lanean egindako ikerketen emaitza izan da.

Lehen egunean eremua mugatu ostean, gaineko lurra kentzen ibili ziren hondeatzeko makinarekin. Hasiera batean, garaiko lekuko baten semeak esandako eremuan ekin zieten indusketei, baina, errepidearen gertutasuna ikusita, bilaketa eremua handitu egin zuten. Lursaila garbitu ostean, eguaztenean ekin zioten bilaketa zehatzari, metala detektatzeko gailuarekin eta galbahearekin. Tresna horiei esker topatu zituzten ama birjinaren domina eta txanpona; gainera, egiaztatu dute txanpona gerra garaikoa dela.



Intxorta KEko eta Aranzadiko kideak, hobia ikertzen. | IMANOL GALLEGO

Bi fusilaturen bila

Eguazten osoa ustez bertan lurperatuak izan ziren bi fusilaturen arrastoak bila ibili ziren, baina ez zuten haien arrastorik aurkitu. Horietako bat Angiozarko Gregorio Larrañaga izan zitekeela uste

zuten, eta haren familia prest azaldu zen DNA probak egiteko. Bila ari ziren bigarren fusilatua-ren identitatea jakiterik lortu ez duten arren, datu ugari dituzte. Bigarren hura Bergaran fusilatu zuten lehen pertsona izan daiteke.

Datuen arabera, Arrasatetik zihon errepublikano bat zen. Nazionalak Bergara hartu ondoren atxilotu zuten errepublikarra eta Labegara-rietan lehen aldiz tirokatu zuten. Hilik zegoelakoan, gorpua bertan utzi zuten, baina auzokide batek

ESANAK

"Lekukoek ematen diguten informazioak laguntza handia ematen digu"

JOSUREN MURGIZU |
INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

"Inguruak aldaketa asko jasan ditu eta ez da lan erraza izan"

ASIER IZAGIRRE |
ARANZADI ELKARTEKO TEKNIKARIA

bertatik jaso eta zauriak osatu zizkion. Egun batzuk geroago, nazionalak berriro atxilotu, eta, Deskargako maldetan tirokatu ostean, bertan lurperatu zutela uste dute.

Eremua arakatu ostean, teknikariak amaitutzat eman dituzte indusketa lanak pinudian, baina, azkenean, ez dute bi fusilatu horien gorpurik aurkitu. Indusketa lanetan ibilitako ikerlariak esandakoaren arabera, aurkitu ez dituzten bi fusilatuen gorpuak maldan bereko beste toki baten lurperatuak izan zirela erakusten du horrek.

Elikagaiak jaso eta banatzeko boluntarioak behar dira

I.G. | BERGARA

Hil honen amaieran Gipuzkoako Elikagaien Bankuak beste biltegi bat izango du, Bergaran. Horrela, Debagoiengan, Debarrean eta Urolako eskualdeetan soberan dauden elikagaiak Oiarzunen elkartek duen biltegi-rama eraman beharrez, Bergaran pilatuko dituzte, eta, ondoren, inguruko hainbat erakunderen artean banatu.

Lan horretarako, baina, boluntario bila dabilta. Furgonetako gidari bat lortzeaz gainera, Bergarara iristen den janaria sailkatzeko laguntza beharko dute. Proiektu berri horrek Bergaran egoitza eduki arren, eskualde osoko jendearen bila dabilta.

Biltegi berriaren egingo diren lanak eta Gipuzkoako Elikagai Bankua bera hobeto ezagutzeko, batzarra antolatu dute. Bada, informazio gehiago nahi dutenentzako eta boluntario gisa lan egin nahi dutenentzako hitzordua Bergarako Miguel Altuna institutuan izango da martxoaren 10ean, 19:30ean.

Aitziber Plazaola bergararra Seysses-en espetxeratu dute

Astlehenean Segiren kontrako operazioan atxilotu zuten Izipurako itxialdia amaitu eta gero

I.G. | BERGARA

Aitziber Plazaola bergararra Seysses-eko espetxean giltzaperratu dute, Segiko kide izateagatik. Izipurako itxialdia amaitu ostean, Plazaola, Beñat Lizega zumaia-rrarekin batera, Donibane Garazin atxilotu zuten eta Pauko epaileak Seysses-en espetxeratzeko agindua eman zuten.

Aurretik, Auzitegi Nazional espainolak haiek kontra egindako euroagindu-eskaeren berri eman zien fiskalak. Jakinarazpenean jasotzen denez, Segi erakundean ardurak izatea leporatzen dio Plazaolari Madrilgo epaitegiak; zehazki, ardura nazionala izatea.

Hain oinarritzko informazioarekin eta defentsa prestatzeko denbora nahikoa izan ez denez, eskaerak datorren martitzenean aztertzea erabaki zuen epaileak.

Udalaren babesa

Egoera salatzeko, euroagindua-aren aurka egiteko eta Plazaolari eta

gainerako atxilotuei elkartasuna adierazteko, herritar talde batek *Utzi euskal gazteria bakean! Euroagindurik ez!* lelopean aurkeztutako mozioa onartu zuen Bergarako Udalbatzak astelehe- nean. Mozioak aurrera egin zuen Udala Gobernuaren, EAJren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoekin.

Horrez gain, astean zehar hainbat mobilizazio ere egin dira Plazaolaren herrian. Astlehenean zenbait herritarrek Miguel Altuna institutu pareko bidegurutzea moztu zuten protesta gisa eta atzo, eguena, iluntzerako ere manifestazioa deituta zegoen. Horrekin batera, erdiguneko den- da eta tabernek 19:30etik 20:00e- tara ixteko eskaera jaso zuten, elkartasun adierazpen gisa. Bestetik bihar, zapatua, Baionan egingo den giza katerako auto- busak ere antolatu dituzte Ber- garatik. Inetresatuek Arranon eman dezakete izena.

ASTELEHENEAN, ATXILOTU AURRETIK, EGINDAKO ELKARRIZKETA

AITZIBER PLAZAOLA | SEGIKO KIDEA

"Gure ideiak ez dira mehatxu edo errepresioa erabiliz aldatzen"

Atxilotua izan aurretik GOIENAK Aitziber Plazaolari elkarrizketa egi- teko aukera izan zuen. Azken lau hilabeteotan bizi izan duen egoera kontuan izanda, adoretu agertu zen gaztea.

Zergatik itxialdia?

Gure gain daukagun euroaginduari kontra egiteko modu bat izan da. Urriaren 22a ezker, gure herritik ihes egin behar izan genuen, atxilo- tu, torturatu eta espetxeratzeko arriskua guelako. Hona iritsi ostean, euroagindua-aren aurka kolektibo- a sortu eta babes dinamika bat jarri genuen martxan.

Itxialdi honekin zer salatu nahi izan duzue?

Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen urraketa gertatzen dela. Ni militante politikoa naiz, Segikoa, eta nire aurka duten gauza bakarra bilkura batzuetan parte hartu du- da. Honek agerian uzten du Espai- niako eta Frantziako estatuek terro- rismoaren aitzakiapean gazteak atxilotu eta torturatzen dituztela.

Euroagindua- hainbat eskubide urratzen dituela diozu. Zeintzuk? Ze helbururekin?

Euroagindua- euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu. Nire aurka bilkura batzuetan

parte hartu dudala soilik izan arren, Frantziak arrazoi hau ni entregatze- ko nahikoa dela erabakitzen badu, espetxeratu izango naiz. Lan poli- tikoa egiteagatik Espainiaratua.

Urriaren 22ko operazioan atxilo- tutako gazteek torturak salatu dituzte. Horren beldur zara?

Nik etxetik ihes egitearen arrazoi nagusia torturak ekiditea izan da. Nire operazio berean atxilotutako gazteen tortura testigantzak iraku- rri besterik ez dago izua gorputz osoan sartzeko.

Sei eguneko itxialdia egin duzue.

Bai. Itxialdian aste- lehenetik zapatua egon gara, eta bertan ekimen ugari eraman ditugu aurrera: harre- man eragileekin, hitzaldiak, elkarre- taratzak... izugarria izan da jaso dugun babesa.

Egoera honek guztiak kikildu beha- rrean gogorrago egin zaituztela diozu.

Gure bila gure lan politikoagatik eto- rri dira, ideia zehatz batzuk defen- datzeagatik, baina ideia horiek ez dira egun batetik bestera, ezta meha- txu eta errepresioarekin aldatzen. Guk gure borrokan sinesten dugu,



GOIENA

eta aurrerantzean ere, norabide horre- tan jarraitzeko determinazioa dugu.

Egoerak ez norberarengan baka- rrik, familia eta lagunengan ere eragin handia du.

Oso gogorra da errepresioa modu pertsonal baten sufritzea; gure kasuan, gainera, lau hilabete berri- rik gabe egon gara, eta ezjakintasunak sufri- mendua areagotzen du. Euskal Herrian eta baita Bergaran ere, errealitate hau oso ondo ezagutzen dugu,

gure senide eta lagunak torturatu eta espetxeratuak izan dira urte askoan.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Itxaropen eta ilusioz begiratzen diot etorkizunari. Euskal Herrian zabaltzen ari den testuinguru berriak askata- sunera eraman gaitzan lan egin behar dugu. Guk gure ekarpena egiten jarraituko dugu, independentzia eta sozialismoaren eraikuntza, indarrez ekingo diogu.

ZABALIK

ANDONI URZELAI

'http://goiena.net/iritzia/'



Deshazkundera

Gero eta gehiago dira azkenaldian –marginatutako pentsamendu minorizatuan oraindik orain– deshazkunderaren alde mintzo diren ahotsak (ikus Serge Latoucheren *Teoría del decrecimiento*). Kontua sinplea da: munduak ez du etorkizunik gaur egun bizi dugun hazkunde zoro hau geldotzen (eteten) ez badugu.

Automobil enpresak negarrez hasten zaizkigu aurten iaz baino %10 edo 15 auto gehiago saltzen ez dituztenean. Berdin gertatzen da energia, elektragailu, jaki, arma edo beste edozein kontsumo gairekin ere. Ekonomia kapitalistak ez du beste aurreikuspenik: hazi, hazi eta hazi; kontsumitu, kontsumitu eta kontsumitu.

Hor, gure gizartearen ustezko ongizatearen giltza.

Hor, baita, gure galbidearen atea. Izan ere, inork uste al du benetan erritmo honi eutsi diezaiokegunik?

Jada zaharkituak gelditu zaizkigu "ekonomia sostenibile", "hazkunde orekatu" edo "hazkunde ekologiko" bezalako kontzeptu faltsuak. Edo norabidez aldatzen dugu edo gureak egin du. Kontua da gai hauen inguruko eztabaida serioak behar ditugula sustatu gizartean, eta noski, hori, gaur-gaurkoz, agintean dauzkagun politikari txepelkin ia ezinezkoa da. Haien hitz ustel eta sinpleak titularraren bila baino ez dabilta uneoro, AHT eta antzerako zorakeriak sutuki sustatuz, baina desarrollismoaren inguruko eztabaida ukatuz, eta horrela, noski, gaitza suertatzen da ezer planteatzea.

Gero, beste aldean, gu geu gaude. Mundu sano, hobe, justu eta, batez ere, iraun ahal izango duen baten alde sakrifikatuzko prest geundeke? Lana murriztuz diru gutxiago irabazteko prest, esaterako? Edo gutxiagorekin bizitzeko prest?

Autoen abiadura murrizteko planaren aurrean entzundakoak entzunda, duda asko dauzkate. Hemen, nahiz eta frenoari eman beharra daukagula jakin, inortxok ez du bere bizitzaren abiadura moteldu nahi.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | 'goarana@goiena.com'


Auto-asegurua, berdin

Gizon eta emakumeen arteko bereizketarik ez da egingo aurrerantzean auto-aseguruetan; 2013tik aurrera, sexu batekoek zein besteokoei berdinduko dute, nahiz eta estatistikek erakusten duten emakumezkoek istripu gutxiago izaten dituztela. Europako Batasuneko Auzitegiak hartu du erabakia, generoaren arabera bereizketak egitea berdintasunaren kontra doala argudiatuta. Nik ere ez dut uste gizon eta emakumeentzako prezio ezberdinak egon beharko luketenik, sexu batekoa edo besteokoa izate hutsagatik; baina espero dut bonifikazioak izaten jarraitzea: aseguru etxeak *garesti* irtetzen zaizkionak *zigortzen* dituen moduan, gidari *txintxoak* saritzea.

"Lana murriztuz diru gutxiago irabazteko prest geundeke?"

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Sukaldeko lana eta tomate gorria

Mikel Asurmendi

http://argia.com/erredakzio-mahaia/mikel-asurmendi/

Azukre xehea gatz larria oroitzen liburuak irakurri berri dut. Irakurri ahala "irentsi" dudala esango nuke. Arrazoa: Mikel Hernandez Abaituak atondutako platera etxeko "bazka" izatea. Hau da, azken 50 urteetako sukaldeko usainak –eta sukaldeko aparailuenak– hurbil-hurbilekoak egin zazit. Generoak genero, gizarte, kultura, literatura eta politika gaiek, besteak beste, osatzen dute platera.

"Sukaldeko lana". Horra hor euskal politika-saltsaren analistek –euskarazko kazetaritzan eskusiboki– sarri darabilten espresioa. *Azukre xehea gatz larria* irakurrita, gure politikako nahiz literaturako salta ez dela arrosa berretsi dut. Gurea ez dela –zorionez edo zoritxarrez– espainiarren salta, gure sukaldean apailatzen dena salta lodi-lodia dela, salta gorria. Azukre xehez eta gatz larriz atontzen den tomate gorria bezalakoa.

Horiek horrela, saltsaren errezetak are hobeto ezagutzeko –eta ARGItA emateko– *Azukre xehea gatz larria*-ren egilearengana bide egitea otu zait. Ofizioak eta gogoak bultzaturik hurbilduko naiz Hernandez Abaituarengana.

Anartean, ARGItA eman gabeko ale batzuk apailatu ditut euskal txoko –blog– honetan, eta *Beranduegi* gure telebistaren maneran eman ere. Honatx, *3 Mariak* liburuaren egilearekin izan ostean *sukaldea*-n maneiatu gabe geratu zen gai baten zipritinak:

Arantxa Urretabizkaia: "Nik Ramon Saizarbitoriaren lanak izugarri preziatzen ditut. Nire gusturako, gureen artean Ramon da hoberena. *Koaderno Gorria* idazten ari nintzen garaia zen. New York-en nengoan, Cervantes Institutuak gonbidatua. Handik bueltan bukatu nuen orduko bere azken liburua, hegazkinean. Impresionatua geratu nintzen: "Ez dakit zergatik idazten dudan?", pentsatu nuen.

Denborak aurrera egin zuen eta halako batean esan nion nire buruari: "Demagun Ramon dela Juan Mari Arzak. Eta ni etxeko sukaldari bat, etxekoandre sukaldari on bat. Agian, norbaitek Arzak-eko ez den beste zerbait jan nahi du.

Pentsamendu horien bueltan lortu nuen aurrera egitea *Koaderno Gorria*-rekin. Alegia, pentsatu nuen sukalde ezberdinetako bazkariak dastatu eta jan behar direla. Horiek ere badutela beren xarma. [...]"

P. S.: Demagun, idazki hau politika eta literatura lotzen dituen sarrerako plater bat dela, aperitifia.

Google Latitude

Joxe Aranzabal

http://goiena.net/blogak/farao/

Atzo ikasle ohi batek gonbidatu ninduen telefono bidez bere laguna izatera Google Latitude geolokalizazio zerbitzuan, eta nik onartu. Izena ematerakoan, konturatu nintzen aurretik banuela beste gonbita bat, koinatu batena, eta hura ere ontzat eman nuen. Ondoren, saltseatzen hasi nintzen, eta hiru bat gonbita bidali nituen, nire sarea zabaltzearen.

Horrelakoetan, ez dut oso garbi izaten zerbitzua komeni zaidan edo ez, baina aurrera egiten dut, ikastearen batez ere, jakin bai baitakit edozein momentutan atzera egin dezakedala. Ikusiko dugu zer gertatzen den honekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibua Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiurano, Zorrotza Martin, Itxaso Bereizbar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 157-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Arantza Tapia | Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua

"Bus azkarra jarri nahiko genuke Debagoiengan, 12 minutuan behin autobus zerbitzua eskaintzeko"

- ▶ Alkateek erabakiko dute aurrera egin edo ez
- ▶ Autobusari bide bat uztea eskatzen du

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Arantza Tapia (Zestoa, 1963) Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuorde izan zen Debagoieneko tranbiaren garaian. Orain, Mugikortasuneko foru diputatua da. Bus azkarra proposatzen du gure eskualdean garraio publikoa hobetzeko.

Ze erantzun izan du garraio publikoetarako txartel bakarrak?

Oso ona. Pozik gaude. Gaur egun, 200.000 erabiltzaile baino gehiago ditugu. 700.000 biztanleko lurralde baten, oso datu ona da. Hasieratik egin dugu apustu garraio publikoaren alde eta txartel bakarra ekimen inportantea izan da. Urteotan hainbat hobekuntza egin ditugu eta beste batzuk ere etorriko dira.

Non erabil daiteke?

Lurraldebus izeneko autobusetan; Donostiatik Bilbora edo Gasteizera egiten diren bidaietan eta baita herri batzuetan, Arrasateko bus urbanoetan esaterako; Donostian eta Hernanin; laster Irunen, Oiartzunen, Errenterian... Nahiko genuke izatea lurralde osoan eta garraio guztietan erabiltzeko txartela.

Trenetan, Renfekoetan eta Euskotrenen noizko?

Urte honen bukaerarako. Tarifa bakarra sistema bakar baten barruan. Berdin izango da bidaiaren trenez edo autobusez egin. Prezio bera izango da. Bidaiaren guztiak kontatuko dira deskontuak izateko. Izugarritzko aurrerapena izango da eta Gipuzkoa izango da eredu Euskal Herri osoan, eta Estatuan ere lehenetarikoa izango da.

Non eskura eta karga daiteke txartel bakarra?

Egunkari, aldizkari eta horrelakoak saltzen diren ohiko tokietan, baita hainbat udaletan, unibertsitatetan...; postetxeetan... Poliki-poliki, hedatuz doa, eta eskerrak eman nahi dizkiet banaketa puntuetakoei, haiei esker hedatu da-eta txartela. Eta apiriletik aurrera, Kutxako kutxazainetan eta Lurraldebusen webgunean ere kargatu ahal izango da. Beste urrats bat, zerbitzua errazteko eta erabiliagoa izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru herrialdeetarako txartel bakarra posible da?

Aurreikusita dago, baina errazagoa da lehendabizi lurralde bakoitzean hedatzea eta gero guztiek bat egitea. Aldi baten egitea zailagoa da. Gipuzkoan kostatu bazaigu, denak batera egitea are eta zailagoa izango litzateke.

Bizkaia beti izan da eredu garraio publikoari dagokionez.

Nahiko konparagarriak dira bi lurraldeetako bus zerbitzuak. Bizkaia dituz zerbitzu asko eta oso maiz eskaintzen direnak, batez ere, oso gertuko trazaruetan, hiriburutik gertukoetan; baina, zenbat eta urrunago, maiztasuna txikiagoa da. Gipuzkoan antzekoa da egoera. Unibertsitate eta ospitaleetako zerbitzuak hobegarriak ziren eta hobetu egin ditugu dagoeneko.

Debagoienak, bereziki, Arrasatek, Bizkaiarekin konexio gutxi dauka bus publikoari dagokionez. Bilbora joan-etorria egiteko ez dago eskaintza ganorazkorik. Horretaz kexatu izan dira hainbat herritar.

Arazoa konpontzeko bidean da. Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioak adostasunera heldu gara zerbitzu gehiago eskaintzeko eta, orain, batzar nagusiek berretsi edo onartu behar dituzte neurriok. Proposatzen da Bizkaibusko autobusak Elorrioraino ailegatu behar diren, Arrasteraino heltzea eta Arrasatetik abiatzea; hau da, Lurraldebusko zerbitzua osatzea Bizkaibuskoarekin. Orduetgiak eta zehaztu nahian gabiltza eta

"200.000 erabiltzaile baino gehiago dituz txartel bakarrak"

"Tarifa bakarra ezarriko dugu garraio publiko guztietarako"

apirilean abian jarri nahiko genuke.

Hiriburu inguruan Ekialdebus abiatu duzue joan den astean. Zer da hori?

Lurraldebusen integratzen den konpainia baten izena, Donostialdean eta Oarso-Bidasoan zerbitzu ematen duena. Lehen, lau konpainia ziren eta orain, bakarrean batu dira denak. Maiztasunak hobetu egin dira, baina, nagusiki, lau dira herrikuntzak: Txingudiko eta Donostialdeko ospitaleetara zerbitzu zuzena eskaintzen du; unibertsitatera ere bai; areagotu egin ditugu gaueko zerbitzuak, eta baita asteburuetakoak ere.

Oñatin 30 autobus gehiago jarri zenituzten irailean. Ze erantzun izan du ekimenak?

Urtarrileko datuak dauzkagu eta urtebetean %10eko hazkunde izan da. Pozik gaude, datu esanguratsuek direlako. Pentsatu nahi dut zerbitzuaren erabiltzaileek nabaritutako zutela aldaketa.

Debagoienarako Bus Rapid Transit edo bus azkarra delakoa lantzen diharduzue. Zein puntutan dago proiektua?

Bi zati dituz proiektuak: batetik, herrien arteko zatia eta, bestea, herri barrukoa. Alternatiba ezberdinak aztertu ditugu; izan ere, zeharo bikoiztea errepidea, herri eta erreka ondoan doala, konplikatua zen guretako. Eta ingurumen aldetik ere ematen zituen arazoak askoz ere gehiago ziren onurak baino. Foru Aldundiak zehaztuta dauka herrien arteko proiektua. Kasu batzuetan, errailen erdian busarendako erraila egitea planteatzen da. Bidegurutzeetan eta biribilguneetan lehentasuna ematen zaio, beti, autobusari. Eta, litekeena da, biribilgune erdi-erdietatik joatea autobusa.

Eta herrietan?

Kaleak gehiegi zabaldu gabe eta bestelako obra handirik egiteke, saiatu gara proiektua egingarri bihurtzen. Baina herri bakoitzak erabaki behar du. Izan ere, esate baterako, egunez aparkalekuak kentzea ekartzen du. Joan den astean elkartu ginen Debagoieneko udalekin eta martxoaren



Arantza Tapia, martitzenean, Goiena telebistan. | ENEKO AZKARATE

amaieran berriro elkartuko gara: iritziak jaso eta erabakiko dugu aurrera egin edo ez proiektuarekin. Zer egin, zelan egin eta ze epeetan.

Ze trazaratu izango du?

Ardatz nagusia izango da Bergararik Eskoriatzara eta Oñatiko adarra ere kontuan izango da. Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagarako beste irtenbide batzuk planteatuko ditugu. Taxi-busaren antzeko zerbait.

Noizko abian?

Udalen onspena izango bagenu, agintaldia bukatu aurretik epeak eta aurrekontua zehaztu ditza-kegu. Eta, azkarrenez, gutxienez,

"Bailaratik Bizkaira joateko bus zerbitzuak bikoiztu egingo ditugu"

"Bus gehiago jarri ditugunetik %10 igo da erabilpena Oñatin"

beste urtebete beharko genuke proiektua egia bihurtzeko.

Ze maiztasun edukiko luke zerbitzuak?

Ordu puntetan, 10 edo 12 minutuan behin. Eta erabiltzaile gutxiago dagoenean, goiz edo arratsalde erdian, 15 edo 20 minutuan behin.

Ze harrera izan du ibarreko alkateen artean proiektu honek?

Ona, baikorra. Uste dut martxoaren amaieran adostasunera helduko garela eta proiektuak aurrera egingo duela.

Bailara honetan eszeptiko samar gaude garraio publikoarekin: tranbia bertan behera geratu zen, orain beste hau...

Hori sumatu genuen alkateekin egindako batzarrean. Esperientzia ez da oso ona izan, baina, bestalde, uste dugu proiektua eroangarria dela. Aldez aurretik, behinik behin, nahiko samurra da abian jartzeko. Ez du obra handirik eskatzen.

Herritik herrira errepidea zabaltzea proposatzen da, ezta?

Bai, tramu batzuetan bakarrik, baina ez askorik. Osterantzean, herrietan, autobusarendako tokia marraztuta egongo da lurrian eta, horrenbestez, ez du beste oztopo edo berezigarri izango.



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarrak
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

DUELA 10 URTE

2001-03-01

Oinarrizko mailetan, kirola euskaraz

Debagoieneko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek bultzatutako *Kirola euskaraz* ekimenaren barruan, kirol materialaren azken bi atalak aurkeztu zituzten; hau da, oinarrizko mailetan erabiltzeko azken bi fitxa didaktikoak argitaratu zituzten. Hiru arlo nagusi jorratu zituen ekimenak: sentsibilizazioa, entrenatzaile eta begiraleak euskaraz trebatzeko ikastaroen antolakuntza; eta kirol materialen sorkuntza.



Kirola euskaraz ekimenaren aukezpena. | ARTXIBOA

2001-03-02

Iñaki Nafarrate alkatea, Saharara

Garai hartan Aramaio alkate zen Iñaki Nafarratek Saharara egin zuen irteera martxoan. Saharako Fronte Polisarioaren 25. urteurrena aitzakia hartuta, Euskal Herriko zenbait alkate eta zinegotzi Saharara joan ziren ikuskatzaile moduan. Haien artean, Aramaio alkatea.

Kanpalekuak bisitatzea eta senidetzea izan zen irteeraren helburua. Hala, Aramaio Ticia kanpalekuarekin senidetu zen.

DUELA 5 URTE

2006-03-04

MCCko sortzaileei esker ona

MCC kooperatiba taldearen fundatzaileei esker ona adierazteko ekitaldia egin zuten Musakolako kiroldegian, taldearen 50. urteurrenean. 67 kooperatibatako fundatzaile eta langileak elkartu ziren bazkaltzeko, eta, bazkariaz gain, aurrekua, bertsoak eta Goikobalu abesbatzaren saioa ere izan ziren, besteak beste.

ARAMAIO

HERRITARRAK

Naia Bailez Gazte Asanbladan zazpi urte daramatza Naia Bailezek. Egun, herriko artxiborako argakiak biltzen dabil auzoz auzo, etxez etxe. Bihar ospatuko diren Aratusteen kartela ere harena da. | JOKIN BEREZIARTUA

"Gazte Asanblada bizirik egon arren, errelebua eta odol berria behar dugu"

Aspertzeko astirik duen ere pentsatzeko astirik ez du Naia Bailez aramaioarrak (Gasteiz, 1985); ez daki geldirik egoten. Gasteizko Arte Eskolan ilustrazioko goi mailako zikloa ikasi zuen eta egun, diseinu grafikoko goi mailako ikasketak aurrera eramaten dihardu. Horregatik ez da harrizkoa, besteak beste, bihar ospatuko diren Aratusteen kartela Bailezek egin izana.

Aramaio Gazte Asanbladako kide zara. Noiztik? Nola sartu zinen?

Noiztik? Betidanik, esango nuke [Barre]. Dena orain dela zazpi urte -nola pasatzen den denbora!- hasi zen. Lehenago bazegoen beste asanblada bat, baina poliki-poliki desagertzen joan zen.

Diru kopuru bat gordeta zuten eta diru horrekin ezer antolatzen ez zuten, nire belaunaldiko lagunak urte batzuk nagusiagoak ziren aramaioarrekin elkartu ginen eta asanblada berri bat egiteko proposamena egin ziguten. Guk baiezkoa eman genien eta handik gutxira gu bakarrik geunden asanbladan.

Gogoratzen dut gure lehen lana 2004. urteko herriko jaiak antolatzea izan zela.

Zeintzuk izan dira zuen lorpen handienak herriari begira?

Herria mobilizatu egin dugu. Herri txikia da Aramaio, baina sekulako aukerak eskaintzen ditu eta aukera horiek ustiatzeko lan egin dugu. Lan horretan Udalarekin izan dugun harreman ona ezinbestekoa izan da, elkarlanean aritu gara.

Zazpi urte pasa dira dagoeneko. Egun, nola dago asanblada?

Oraindik bizirik dago eta ekin-tza askotxo antolatzen dira, eta, oro har, herriko ekimenetan parte hartzen dugu. Baina egia esan behar badut, ez dago oso ondo, belaunaldi aldaketaren



Naia Bailez, Gazte Asanbladaren egoitzan, asteon. | NAIA BAILEZ

"Aukera handiak ditu gure herriak; aukerok ustiatzeko egin dugu lan"

"Lotsagarria da 300 metroko obra gauzatzeko 13 hilabete behar izatea"

beharra du asanbladak. Odol berriaren beharra daukagu, hain zuzen.

Aratusteen ospatuko dituzue bihar. Asanblada ez da oharkabea pasako, ezta?

Goizeko poteoa eta herri bazkaria antolatu ditugu. Lan handia da, baina argi dago gura dugulako egiten dugula. Eskertzekoa da halako egunetan herrian mugimendua eta giroa izatea, herria bizirik egotea. Hala ere, errelebu falta dago eta betiko laurok aritzen gara lanean.

Udalaren argazki artxiboa osatzen ere bazabiltza. Nola doa?

Aurrera doa, eta ez da gutxi. Uste baino argazki gehiago daude baserrietako kartoizko kaxetan gordeta. Horietako asko ikaragarriak dira, sekulako altxorrak. Oso gustura nabil, lan handia izan arren: eskanerra eta ordenagailua eskuan dudala gora eta

behera ibili, auzoz auzo, baserri baserri eta elkarte elkarte. Eta gero, material hori guztia etxean txukun gorde eta artxibatu egin behar da...

Hala ere, badu ordainsaria. Hamaika istorio-politik eta tristetententzuteko aukera daukat eta benetan polita da ikustea emakume nagusiei, esaterako, nola aldatzen zaien aurpegia gaztetako argazkiak ikusten dituztenean eta lagun artean gaztetako istorioak gogoratzen dituztenean. Bestalde, Udalarendako garrantzitsua da herriko historia gordetzea. Harri bitxi horiek betirako gorde behar dira, nondik gatozen ez dezagun sekula ahaztu.

Arrasaterekin lotura handia duzu, besteak beste, bertako taberna baten egiten duzu-eta lan. Nola eragin ditu bidearen mozketak? Bidearen mozketak ezin da Abiadura Handiko Tren barik uler-

NIRE HERRIAN

HERRI TXIKIAREN GERTUTASUNA

"Hiri batek sekula eskainiko ez dizun gertutasuna eta konfiantza ematen dit Aramaio. Herri txikia da eta guztiok ezagutzen dugu elkar; eta gertutasun hori sentitzea oso positiboa da, nire ustez. Gainera, naturarekin etengabeko harremanean bizi gara. Lasaitasun hori ere ezin duzu hiri baten aurkitu".

EDOZERTARAKO MUGITU BEHAR

"Herri txikia gara eta ia edozertarako hirira joan behar dugu. Edozer gauza erosi edota edozein zerbitzu jasotzeko, Arrasatera edo beste nonbaitera joan behar dugu. Aramaion apenas dugu baliabiderik gure beharrak asetzeko. Hori ezin hobeto ikusi dugu bidea moztu digutenean".

tu. Makro -proiektu horretan egin duten suntsiketa lotsagarria da.

Lurizia izan ostean interes jakin batzuk zeuden bide hori ez zabaltzeko, eta aramaioarrok jasan ditugu ondorioak. Izan ere, lotsagarria da 300 metroko obra bat gauzatzeko 13 hilabete egotea eta segurtasuna erabiltzea aitzakia moduan. Lotsagarria da segurtasuna aitzakia hartuta, herri oso bat sekulako buelta ematera behartzea bide alternatibo hori egon den moduan egonda.

Amaitzeko, zerbait gaineratu gura duzu?

Herriko gazte guztiei Gazte Asanbladan parte hartzeko dei egiten diet. Etor daitezela bileretara. Helburua, finean, bizi-bizi dagoen Aramaio bat lortzea da. Hori egin da, ezingo du inork esan herri txikia denez ez dagoela zer eginik. Animatu eta parte hartu!

HERRIAK

ANTZUOLA

Hondakin selektiboari ongietorria egiteko jaialdia

- ▶ Astelehenean dena gertu egon dadin buru-belarri dabilta lanean
- ▶ Zubietako bizilagunak izan dira atez atekoagatik eskerrak emateko

MIRIAN BITERI | ANTZUOLA

Astelehenean ezarriko da atez ateko sistema Antzuolan, eta, ongietorria egiteko, jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, herrian. 17:00etan, Txan magoak ume eta heldu utziko ditu harrituta, Torresoan. 18:30ean, haurrendako birziklapen eskulanak izango dira Zurrategin, eta, Ander Lizarralde eta Jokin Labaien bertsolariak lagunduta, tabernaz taberna ibiliko dira antzuolarrak. Debagoieneko Mankomunitateak eta Antzuolako Udalak antolatuta dute jaia.

Astea jai kutsuarekin amaituko bada ere, lanean buru-belarri ibili dira, astelehenerako dena gertu egon dadin. Udaletxeko informazio bulegoan kubo marroiak banatzen dabilta astelehena ezker. Eta zuzen nola erabili jakiteko argibideak eta material informatiboa eman dute: gida, asteko egutegia zehazten duen imana, hondakin bakoitzari buruzko hiztegia eta sukaldeko kartela.

Bulegoan lanean diharduen Markel Azkargortak azaldu digu eguaztenerako bi herenek zutela etxean kubo. Orokorrean, harre-ra "positiboa" izan duela dio: "Batzuk gustura etorri dira, horrenbeste entzun ostean, hasteko gogoz. Beste hainbat, ostera, galduta etorri dira; eta bakar batzuk, haserre". Informazio bulegoan jasotakoaz gain, Azkargortak adierazi du egunotan hainbat pegatina jasoko dituztela herritarrek korreo bidez, kubo eta zintzilarioen erreferentziarekin. Materiala oraindik jasotzeko astia izan ez dutenek jakin dezatela bulegoa zabalik egongo dela 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

San Josepeko gunea

Baina, bulego lanaz gain, kalean ere badabilta, zintzilarioak



Eguaztenean, Zubietako erraustegiak kaltetuko dituen hainbat lagun bizi izan zuen Antzuolako udalbatzak. | MIRIAN BITERI

jartzen eta apartazio-gunea eraikitzen. Azken horren harira, Azkargortak gogorarazi du kaleko edukiontziez gain, baserri auzoetan egon diren zaborren edukiontzia ere astelehenetik aurrera desagertu egingo direla, eta baserri auzoetan bizi direnek apartazio-guneak erabili beharko dituztela hondakinak uzteko. Horretarako, azpiegitura bereziak eraikitzen ari dira. Astelehene-

rako San Josepekoa amaituta izatea eta, hortaz, hondakinak han uzteko moduan egotea espero dute. Irimo aldeko baserriendako gunea oraindik zehazteke dagoela eta baserri guztiek San Josepekoa erabili beharko dutela ere esan du Azkargortak. Azpiegitura horietan hiru edukiontzi mota daude: horia plastikokoendako, urdina paper eta kartoiarendako eta grisa errefusa-

rendako. Beira iglu berdera eroaten jarraitu beharko da. Gune horiek itxita egongo direnez, sartzeko beharrezkoa izango da bulegoan giltza berezi bat jasotzea.

Zubietarren esker ona

Bestalde, eguaztenean, Zubietako erraustegiak eragindako kaltetuen bisita izan zuten udaletxean, oso bilkura hasi aurretik. Haien izenean, Luken Goiak eskerrak eman zizkion Udalari, "aldaketaren biderei ausardiaz" ekin diotelako: "Gure eskerra azaldu nahi dizuegu erakutsi duzuen ausardiagatik. Kalkulu elektoretik askoz urrutiago joan zarete, herritarren pentsatu duzue, eta erabakiak ohorea ematen dizue". Horri erantzunez, Pedro Iturbe alkateak bisita eskertu zuen eta honakoa esan zuen: "Ziur gaude Antzuolan oso emaitza onak izango direla. Zuek erakutsi duzuen biderei ilusioz ekingo diogu. Ahalik eta ondoen egingo dugu".

Esan bezala, astelehenetik ez dira orain arteko edukiontzia



Kubo marroiak banatzen ari dira egunotan informazio bulegoan. | M.B.

ESANAK

"Gure eskerra azaldu nahi dizuegu erakutsi duzuen ausardiagatik"

LUKEN GOIA
ZUBIETAKO KALTETUA

"Biderei ilusioz ekingo diogu; ahalik eta ondoen egingo dugu"

PEDRO ITURBE
ANTZUOLAKO ALKATEA

ZER ETA NOIZ

ONTZI ARINAK

Astelehena eta eguena

PAPERA ETA KARTOIA

Martitzena

ORGANIKOA

Eguaztena, egubakoitza eta domeka

ERREFUSA

Zapatua

PIXOIAL ETA KOMPRESAK

Egunero

Hondakinak 21:00etatik 06:00etara bitartean atera beharko dira.

erabili beharko. Egun horretan ontzi arinak atera beharko dituzte antzuolarrek, 21:00etatik 06:00etara. Hain justu, plastikozko botilak, poteak, latak eta horrelako gaiak aterako dituzte plastikozko poltsa baten.



OGIZUN

koop. elk.

okindegia



Argoak Kiin

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Katu kopurua herenera jaitsi da Arrasaten

Katuak Ondo Bizi elkartearen lanari esker (Kaonbi), katuak kontrolpean daude herriko gune gehienetan

UBANE MADERA | ARRASATE

Maiatzean bi urte beteko dira Kaonbi sortu eta lanari ekin ziola Arrasaten. Eta lortu dituzten emaitzak ageri-agerikoak dira. "Uribe auzoan 26 katu zeuden eta orain zazpi bakarrik geratzen dira; Erguinen 20 baino gehiago zeuden eta orain zortzi baino gutxiago daude... Esan daiteke, bai, lan egin dugun guneetan katuen kopurua herenera jaitsia lortu dugula", kontatu du Luis Baldezatek, katuen lagunen elkarteko kidea.

Kexuak gutxitu

Katu kopurua jaitsaraztea, baina, ez da Kaonbi elkartekoekin egiten duten gauza bakarra.



Luis Baldezate, Kaonbi taldeko kidea, katu bat eskuetan duela. | U.M.

Zaintzapean dituzten katu-kolonietan jantokiak eta etxolatxoak ipintzen dizkiete, katuen gaixotasunak zaintzen dituzte, gaixo daudenak albatariengana eraman, katakumeak kontrolatu eta etxetara bideratzen dituzte eta, horrez gain, katu helduak antzutu edo zikiratu egiten dituzte. "Lehen urtean 66 katu antzutu genituen eta bigarrenean, 51; guztira, beraz, 166 antzutu ditugu".

Lan horri esker daude kontrolpean Arrasateko katuak. "Eta katuekiko herritarrek zituzten kexuak gutxitu egin dira, kataguneak garbiago daude, eta, katu kopurua asko gutxitu da herrian".

Arratoiak gutxitu

Are gehiago, katuak modu horretan zaindu eta kontrolatzea egokia dela uste du Baldezatek: "Ona da; Europako Batasuneko herri askotan debekatuta dago arratoiaren kontra pozoia erabiltzea, katuei jantokiak ipini dizkiete, eta, horri esker, katuak arduratzen dira arratoiak harrapatzeaz. Izan ere, katuek ez dituzte arratoiak harrapatzen goseak daudelako, jolasteko edo instintuz baizik. Katuari jaten eman ezean, egingo duen lehenengo gauza izango da jana bilatzea, eta ez da arratoi bila ibiliko. Aldiz, jaten emanez gero, ase geratzen denean, arratoiak harrapatzeari ekingo dio".

Uribe auzoan, berriro agertu

Jokabide horren froga ere badute: "Uribe auzoko garajeetan kendu egin zituzten katuak, autoak markatzen zituztela-eta auzokideak kexatu egiten zirelako. Ba, hori egin, eta arratoiak azaldu ziren", kontatu du Baldezatek.

Aurten kiroldegira

Une honetan 16 katu-kolonia ditu Kaonbi kontrolpean: San Andresen, Erguinen, Bizkaia etorbidean, Makatzena gunean, San Esteban del Puerton, Zigorrolan... batzuk aipatzearren.

Elkarteko kideen asmoa da aurten San Andresko Maiatzaren 1a plazako lanak bukatzea, kiroldegigunean lanean hastea, eta orain arte egindako guneak erreparatzea: "Tarteka katu berriak azaltzen dira kolonietan; autoetan etortzen dira (motorretan sartuta), edo jendeak utzi egiten ditu, aspertu egiten delako".

38 katakume

Eta, jakina, katakumeak familietara bideratzen segituko dute. "Aurten 38 katakume eman ditugu, eta ez bakarrik Arrasatera. Donostia, Irun, Gasteiz, Eibar eta Guadalarara ere eman ditugu. Internetek asko laguntzen du horretan (kaonbi.blogspot.com)". Norbaitek katurik gura badu, honako telefonozenbakira dei egin dezake: 696 28 70 59. Une honetan bi katu ditu Kaonbi elkarteak emateko.

8 boluntario eta etxe gutxi

Zortzi lagunek dihardu Kaonbin lanean, guztiak boluntarioak, eta gehiago beharko lituzkete. Elkartearen arazorik larriena, baina, katuak hartzeko etxe falta da.

Bestalde, bazkideak ere ondo hartzen dituzte, eta eskuzabal askoak ere badituzte: "Batek 300 euro eman zizkigun, beste batek 500, Zarauzko batek 200...".

Orain, gainera, Debako Udaletik galdetu diete euren lanaren gainean, han ere antzeko zerbait egin nahi dute-eta.

DATUA

200



KATU

Kaonbiren kalkuluen arabera, Arrasaten 200 bat katu dago gaur egun.

distira

ESTETIKA ZENTROA

Ate irekiak egun osoan
Martxoaren 9an



Aurpegi eta gorputz tratamenduak

Proba
itzazu!

Etorri behar baduzu,
aurretik deitu konpromiso
barik edo pasa zaitez bertatik.

Arrasate Pasealekua 4 . ARRASATE . Tel.: 943 79 00 35

Mugimendu feminista kalean, Martxoaren 8aren bueltan

I.G./U.M. | ARRASATE

Gora feminismoa lelopean, martxoaren 6an hasi eta apirilaren 6a bitarteko egitarau zabala prestatu du Emakume Txokoak aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.

Takarraren eta Bebe

Antzerki-emanaldia (*Baginaren bakarrizketa*, domekan, 19:30ean, Amaian), Takarraren herri lasterketa (martxoaren 12an, Seber Altuben), Bebe abeslariaren kontzertua (martxoaren 12an, 20:00etan, Amaia Udal Antzokian) eta Mugimendu Feminista Euskal Herrian aztertuko duen mahai-ingurua (Emakume Txokoa,

18:00etan) izango dira ekitaldie-tako batzuk.

Manifestazioa

Hala ere, aldarrikapenak ere bat egingo du festarekin, batez ere Martxoaren 8an bertan. Manifestazioa antolatu dute egun horretarako. Seber Altube plazatik aterako da, 19:00etan.

Egun horretan, baina, lehenago kale antzerkia ere izango da: *Ellas Bailan Solas*, Seber Altuben, 18:00etan.

Ekitaldi guztietan parte hartzeko dei egin diete, batez ere, emakumeei, baina baita gizonezkoiei ere. Mugimendu feminista kalean ikusi nahi dute.

600 bat lagunek estreinatuko dituzte Aratusteak bihar, herri bazkarian

Martitzenean, berriz, 30 lagunetik gorako segizioak lagunduko dio sardinari Herriko Plazara arte; han gauerdian erre egingo dute, Inauteriak agurtzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Herriko koadrilek prestatutako egitarauarekin hasiko dira Aratusteak bihar, zapatua. 12:30ean joko dute pregoia, eta, horren ostean, kalejira egingo dute, herri bazkariaren aurretik. Jendetsua espero dute kalejira hori, herri bazkaria 600 lagunendako presatu dute-eta. Eta atzo, eguena, 70 txartel besterik ez zen geratzen; beraz, jai-giroa segurua izango da bihar eguerditik aurrera Arrasaten.

Biharko eguna Haitzama taldearen dantzaldiarekin amaituko dute, 19:30ean.

Ikastetxeak, martitzenean

Eta domeka eta astelehena atsegenerako gorde ostean, martitzenean atzera ere izango da mozo-rotzeko aukera.

Hala egingo dute, esaterako, bai Arizmendi ikastolako eta baita Arrasate herri eskolako ikasleek ere. Arratsalde partean, beraz, nekeza izango da asmatzea neska-mutikoen benetako nortasuna, pirata, sorgin eta bestelako mozo-rotzean.

Gehienek, gainera, bat egingo dute 16:30ean Txatxilipurdi elkar-

teak antolatutako mozo-rotze desfilean, Herriko Plazan.

Eta martitzeneko beste ekitaldien artean, nabarmentzekoa da Pikor Teatroak kale antzerki

komikoa egingo duela 18:00etan Seber Altuben. Eta, zelan ez, Egan talde mitikoaren bisita izango da, 20:00etan eta 22:30ean.

Sardina ikusgarria, erretzeko Aratusteak bukatu, baina, betiko moduan, sardinaren hiletarekin bukatuko dira.

SUDC elkartearen eskutik, 23:30ean aterako da sardina eramango duen segizioa Hotel Mondragondik (Nafarroa etorbidea); Otolara kalea zeharkatu eta Portaloian zehar iritsiko dira Herriko Plazaraino. Eta han, gauerdian erre egingo dute.

"Ikusgarria, oso polita da sardina, zazpi bat metrokoa buztanetik muturrera, eta gris kolorekoa. Hiru erretiratu laguntzaile egin dute, bi hilabetean. Jose Luis Albese eta Mikel Sanzberrok diseinatu dute eta eta Andoni Alzelai izan da obra zuzendaria", kontatu du Juan Luis Arkauzek, SUDC elkartearen presidentea.

Sardina 12 laguneren artean eramango dute, eta haiei jarri-ka 19 emakume joango dira, kandlekin, antzinako segizioen antzera. Hori guztiori, Samasiku txarangaren laguntzarekin.

EGITARAUA

ZAPATUA

12:30 Pregoa, Biterin.

14:30 Bazkaria, Uarkapen.

19:30 Dantzaldia, plazan.

MARTITZENA

16:30 Desfilea, plazan.

17:00 Pailazoak, Uarkapen.

17:30 Samasiku txaranga.

18:00 Pikor teatroa, Seberren.

19:00 Balleta eta bandaren kalejira.

20:00 Egan, plazan.

23:30 Sardinaren hileta, plazan.

22:30 Egan, plazan.



Ikasle etorkinak, Udal Euskaltegian, maisu eta maistrarekin | U.M.

60 ume etorkin baino gehiago dabilta euskara ikasten

U.M. | ARRASATE

62 ume eta gaztetxok euskara eskolak hartzen dihardute Arrasateko Udal Euskaltegian. 5-16 urte bitarteko ikasleak dira, sei taldetan banatuta, "oinarriko elkarrizketak izaten, eguneroko komunikazio lantzen" ikasten dihardute. Amaia Arana, Udal Euskaltegiaren zuzendariaren esanetan. "Horrek lagunduko die eskolan ere komunikatzen, bai irakaslearekin eta baita ikaskideekin ere", gaineratu du.

Kopuru esanguratsua da hori, urtetik urtera goraka doana, gainera (2003-2004an hasi ziren etorkinekin lanean). "Iaz baino zazpi ikasle gehiago" dago

aurten. Gehienak Kolonbiakoak dira, baina Brasil, Bolivia, Peru, Turkia, Maroko, Honduras, Bosnia, Txina, Portugal eta Espainiako ikasleak ere badituzte, besteak beste.

Material berezitua

Umeok ikastetxeek bideratuta joaten dira Udal Euskaltegira. Euskaltegian, baina, material berezia dute eurekin lantzeko: "5-8 urte arteko ume hasiberriendako Lorentxo euskara ikasteko eta jolas egiteko materiala; eta Joxe euskararen munduan izenekoa, 9-12 urte arteko umeendako"; azken hori, gainera, editatze prozesuan dute euskaltegiok.



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

Beñat Arnaitzek urteko lehena irabazi du Barakaldon

Urteko lehenengo garaipena izan da Arnaitzendako (Laguna Saltoki), eta harekin batera podiumera igo ziren Alex Agirretxe (Antxintxika Triatloi taldea) eta Jon Unanue (SVC Seguridad). Arnaitzek 55 minutu eta 31 segundo behar izan zituen proba egiteko, eta 11 segundora helmugaratu zen Agirretxe. Asteburuan Basaurin dute hitzordua.



Beñat Arnaitz. | A. AGIRRETXE

Urrezko hiru domina Maria Jose Gilek, asteburu bakarrean

Asteburu ederra izan da Maria Jose Gilentzat, Arrasateko atleta beterranoak urrezko hiru domina jantzi ditu-eta: zapatuan Gasteizen egin zuten iraupeneko Euskadiko txapelketan bi domina, 1.500 eta 3.000 metroko lasterketetan (70 urteko kategorian). Eta domekan, Haron, Espainiako kros txapelketan, azkarrena izan zen, bere mailan.

Oraingo asteburuan ez da Zaldibarren partidurik egongo

Kirol jardueran bete-betean igarriko dira asteburuan ospatuko dituzten Aratusteak, eta Zaldibarko antolatzaileek ere jai hartzea erabaki dute, partidua halamoduz jokatu beharrean hobe delako jardunaldia astebete atzeratzea. Hala, kopako irabazlea izendatu berri (Lasagabaster), datorren astean hasiko dute ligako bigarren fasea.

Otsaileko makalaldia gainditu, eta kategoriako kantxa gogorrenera

Ford Mugarri Arrasatek Portugaleten jokatu du bihar, 19:00etan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Suabe esatearren, kategoriako talde gogorenaren kantxa jokatu du Ford Mugarri Arrasatek bihar. Eta suabe diogu, *makarra* berba ere erabil daitekeelako Portugaleten gainean berba egiterako orduan: "Epaile bati baino gehiagori entzun diot esaten ez dutela ulertzen talde hori zela dagoen kategoria honetan", adierazi digu Edu Orgaz entrenatzaileak, barrez. "Iturripen jokatu zutenean, bosgarren minuturako hegaleko jokalaria gure atezainari mehatxuka zebilen".

Hori horrela, biharko partiduan epailearen jarrerak dezentz baldintza dezake norgehiagoka: "Kanpoan jokatzeko dutenean seguru ez dutela horrenbeste puntu batuko, baina etxean jokatzeko badute, eta epailea erraz kikiltzen den horietakoa bada, norgehiagoka zaila izango da. Hala ere, gu gurera, euren jokoan erori gabe".

Aste barruan irabazi egin dute

Orgazen mutilek martitzenean jokatu zuten atzeratutako partidua, Urolaren kantxa. Eta, azken bi jardunaldietan galdu egin ostean -Urdulizen eta Askartzaren kontra- martitzenean bi puntuekin etorri ziren (25-35): "Dena



Romoren kontrako lehia, Masip, falta jaso berri, jaurtiketa egiteko unean. | GOIENA

delat, aste barruan jokatzeko diren partidua hauetan ezin da ondorio handiegirik atera. Lantegian lan egin ostean jokatzeko diren partidua dira, nahiko arraroak, egia esan. Garrantzitsuena garaipena izan zen, baina ez genuen

pozik egoteko moduko partidua onik egin".

Datozen astei begira, aurrean jarraitzeko ondoko kontrario zuzenek zer egingo duten jarraitu barik, Orgazek taldeak berak egin beharreko lanean oinarritu

nahi du: "Jokalaria egiten dabilzan lanarekin oso harro nago. Lider dagoen Corazonistas oraindik Iturripera etorri behar da. Horrek esan nahi du liga irabaztea gure eskuetan dagoela oraindik".

Fase berrirako larritasunik ez, baina loak hartu barik

X.U. | ARRASATE

Joan den asteko atsedena aldian ostean lehen nazional mailan, lanera bueltatuko dira Josu Larreategiren mutilak, fase berria estreinatuz, gainera.

Arrasatekoak jaitsiera postuak ekiditeko borrokan ibiliko dira datozen asteotan, baina fase berriari begira, MUkoak egoera ezin hobean pasatu dira, sailkapenean bigarren sailkatuta -Viajes Marfil da lider- eta gainontzeko taldeekin garaipen *averagea* alde izanda. Hala, horrek ematen


duen lasaitasunarekin ekingo diote zuri-moreek fase berriari, baina loak hartzeko aukera handi barik, bost taldek galduko dute-eta kategoria.

Etxekoak, garrantzitsuak

Hala, fase berrian inongo ezustekorik ez izateko oso garrantzitsuak izango dira etxean lortutako garaipenak, ezinbestekoak, neurri handian. Eta, hain zuzen, etxean jokatu du MUk oraingo asteburuan (zapatua, 18:00, Iturripe).

Arrasatekoek San Inazio UPNA taldea izango dute aurrean, fase berrira egoera makalenean sailkatu den taldea. Iruñeko mutilek kategoriari eusteko mirariren

bat behar dute, alegia, etxeko eta kanpoko guztia irabazi. Hala, Arrasatetik, behintzat, ez daitezela joan hori lortzea posible den ustearekin.



MUren eta Legarziaren kontrako partiduen une bat. | GOIENA

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

943 71 17 68

Gurpildun aulkian ere bete daitezke ametsak

Pikor Teatro taldeak 'Ellas bailan solas' antzezlanaren eskainiko du martitzenean Seber Altube plazan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gurpildun aulki automatikoetan dauden bi amandren istorioa ekarriko dute martitzenean Pikor Teatro antzerki taldeko kideek.

Emanaldia martxoaren 8an izango da, 18:00etan, Seber Altube plazan. Eguraldi txarra bada, berriz, Kultureteko areto nagusian izango da antzerki emanaldia.

Egoitzatik ihes egin dute

Bi emakumeak kalean gora eta behera dabilta, galduta bezala. Baina, berez, ez daude galduta. Zaharren egoitzatik ihes egin dute, ametsak betetzeko asmoarekin.

Egoitzako arduradunak euren bila dabilta; baina bi emakumeek ez dute egoitzan jarraitu nahi. Oraindik bete ez dituzten ametsak dituzte betetzeko eta amets horien bila irten dira egoitzatik. Gainera, ametsak bat itsasoa ikustea izango da; eta, hain zuzen ere, itsasoa ikustea izango da euren helburua.



Regina eta Anton dira antzezlaneko protagonistak. | PIKOR TEATRO

Ikusleen laguntasuna

Askatasunak ematen dien euforiak eraginda, hainbat balentria egingo dituzte bi emakumeek. Regina eta Anton dira bi emakumeak; autonomoak izan gura dute, baina konturatuko dira ezin direla guztiz autonomoak izan. Euren balentriak egin ahal izateko ikusleen laguntasuna beharko dute bi protagonistek.

Azken finean, pertsona nagusiei omenaldia da *Ellas bailan solas* antzezlanaren; pozik bizi izan gura duten pertsona nagusiei omenaldia. Bizitza konkistatu eta bizitzan gozatu gura duten pertsonen zuzendutako lana da.

Angeles Argudo eta Belen Nevado dira antzezlaneko protagonistak. 1989an sortutako taldea da Pikor Teatro.

Norman taldeak joko du datorren eguenean

A.E. | ARRASATE

Eibarko Norman taldeak giroko ditu datorren asteko Kooltur Ostegunak. Gaztetxean izango da emanaldia, 22:00etan, 5 euroren truke.

Punk-rocketik abiatuta, bizitasun, freskotasun eta kolore berria eman diote Euskal Herriaren egiten den rock indartsuari Norman taldeko kideek. 2007an hasi zuten ibilbidea Kepa (The Gominols, Skandalu Publiku), Alex eta Koby (Electric Dolls) taldeko kideek Legarreko 4. lokalean. Gero hasi zen Beñat taldearekin jotzen. Hasiera baten, bertsioak egiten zituzten, eta ondoren hasi ziren euren abestiekin. Oraingoan, disko bakarra atera dute, *Norman* izena duena.

Danbakako hirugarren edizioan finalera iritsi ziren eibartarrak, eta Bilbo hiria lehiaketarako ere sailkatu ziren 2009an.

Oso kontzertu gutxi eman dituzte eibartarrek; bada, datorren eguenean Arrasateko gaztetxean Normanen musika entzuteko aukera paregabea izango da.



Potxin eta Patxin. | GOIENA

Potxin eta Patxin pailazoak martitzenean

A.E. | ARRASATE

Datorren martitzenean, hilak 8, Potxin eta Patxin pailazoek *Zirkoa ezagutzuz* ikuskizuna eskainiko dute Uarkapeko frontoian. 17:00etan izango da emanaldia.

Haurrei zuzendutako antzerkia da. Zirkuko bizimoduak erakustea izango da Potxin eta Patxin artisten helburua. Zirkua zer den, nolako artista motak dauden, zelan lan egiten duten... azalduko dute. Azken finean, jolasen bitartez umeei artista izaten erakutsiko diete bi pailazoek. Ordu eta laurden inguru iraungo du zirku ikuskizunak.



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Biharko kalejirako mozorrorik onenak saria jasoko du aurten ere

Bakarka zein taldeka aurkeztutako mozorro onenak 200 euro jasoko ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aratuste asteburua dator eta askotariko ekitaldiak egongo dira datozen egunotan.

Aratusteetako ekitaldi nagusienetako batek irekiko du egitaraua: gaur, egubakoitza, Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratuste-kontzertua egingo dute, 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

Aukeratu duten gaia duela 100 urteko Inauteriak dira eta horren bueltan antolatu dute saioa eta, batik bat, emanaldiaren bigarren zatia. Sarrerak 7 euro balio du eta aurrez erosi ez dutenek leihatilan izango dute aukera 21:30etik aurrera. Kontzertuan batuko den dirua Magali Murua-mendiaratz neskatoa Galizian jasotzen ari den tratamendua ordaintzen laguntzeko izango da aurten.



lako desfilearen une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Mozorroen kalejira

Bihar, zapatua, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Ongi etorri... Pupu eta Lore* ikuskizuna egingo dute, 16:00etan eta 18:30ean, Udal Pilotalekuan. Bietarako ala bietarako sarrerak daude oraindik (200 bat emanaldi bakoitzarako) eta leihatilan erosi ahal izango dira bihar, 15:00etatik aurrera. Prezioa 5 euro da.

Horrekin batera, zapatuan bonba japoniarrak egongo dira, 18:15ean, San Martin plazan; 18:30ean, erraldoi, kiliki eta burhandien kalejira; eta 19:30ean, berriz, mozorroen kalejira erdiguneko kaleetan barrena. Udaltik mozorrota eta desfilean parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak. Kontuan hartzekoa da, bestalde, Bedelkarrek 200 euroko saria emango diola kalejiran parte hartzen duen mozorro

Martitzenean ekitaldi gehiago

Aratuste-martitzenean ekitaldi gehiago izango dira. 16:15etik 19:15era karaokea eta DJ festa egongo dira San Martin plazan. 16:30ean Musika Eskolako gazteen bandak kalejira egingo du erdigunean barrena eta 19:30ean antzerkia egongo da. Hain justu ere, En la Lona antzerki taldeak *Exodo* antzezlanaren egingo du San Martin plazan.

Horrez gain, aipatzekoa da Aroztegi aretoan Aratusteen gaineko erakusketa ikusgai dagoela martxoaren 13ra bitartean.

onenari (bakarka zein taldeka). 21:30ean mozorro afaria egongo da azokan, iaz bezala, eta 23:00etan, erromeria Drindots taldearekin. Etzi, *Aurrez aurre* dantza emanaldia ikusteko aukera egongo da, 19:00etan, Udal Pilotalekuan, Maritzuli konpainiaren eta Eraiki dantza taldearen eskutik.

Udalak Ibargarai kalean dituen garajeak eskainiko dizkio Ogasun Ministerioari

Seminarioko jolasleku azpian eraikitzekoa zen aparkalekuen ordez emango dizkio

I.G. | BERGARA

Udalak Errege Seminarioa erosi zuenean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Gipuzkoako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzarekin akordioa egin zuen: eraikin horretako patioan eraikitzeak ziren lur azpiko aparkalekuen 24 plaza Ministerioari emango zizkion, baina, bertan aparkalekua bideragarria ez dela kontuan izanda, Udalak beste proposamen bat egingo dio Ogasunari.

Seminarioko jolaslekuan lur azpiko garajeak eraikitzea baztertu ostean, Ibargarai kaleko 17-19 zenbakiko lehen sotoan Udalak dituen 26 garaje eskainiko dizkio trukean.

Eskaintza berria aho betez onartu zen azken osoko bilkuran, eta, eskaintza horren bitartez, Madrilgo Ogasun eta Ekonomia Ministerioarekin 2005a ezkerro daukan zorra kitatzeko asmoa du Udalak.

Seminarioko obrak

Gipuzkoako Foru Aldundia eraikinaren %63,61en jabea denez hura eraberritzeko egiten ari diren obrak ordaintzen dihardu. Martitzenean 545.260 euroko dirulaguntza onartu zuen eta bigarren kopuru horren bitartez, Foru Aldundiak UNED fundazioan daukan partaidetzaren zatiko 1.157.260 euro ordainduko ditu aurten.

Mekolaldeko zubia eta GI-627 errepidea lotuko dituen bidegurutzeta, gertuago

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Agintaldi honen hasieran bukatu zen Mekolalde auzoan eraikitako zubi berria. Zubiak GI-627 errepidea eta ibaiaren beste aldean eraiki duten industrialdea era egokian lotzen dituen arren, ez da behar bezala martxan jarri, errepidea eta zubia lotuko dituen bidegurutzeta falta da-eta.

Urtetan proiektua bertan behera egon ostean, orain, Udalak, Aldundiarekin egindako akordio baten bitartez, inguruko lurak desjabetu egingo ditu. Aldundiak lurjabeekin akordio batera iritsi beharko du, eta, horren ostean, lurak administrazioaren esku daudenean, obrak egin ahal izango dira.

Udala, bitartekari

Agurne Barruso alkateak argi utzi du Udalak ez duela aurre-




Mekolaldeko zubia eta GI-627 elkartzaren diren puntua. | MONIKA BELASTEGI

kontuko partidarik bideratuko obra horretara. Kasu horretan, Udalak bitartekari lanak egingo ditu eta ibaiaren beste aldean dauden S-5, A-43 eta A-54 guneen jabeek ordaindu beharko dute

bidegurutzeta egitea. Udalak prozesua bide onetik doala jakinarazi digun arren, ez du obrei hasiera emateko data zehatzik eman, horretarako goiz dela argudiatuta.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Adingabekoak dituzten familientzako laguntzak berriro arautu dituzte

Erregelamenduaren aldaketa horiekin, Udalak erantzun eraginkorragoa eman nahi du

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Udalak berriro egin du adingabekoak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen araudia. Horretarako, erregelamendu berria onartu zuen aho batez aurreko osoko bilkurak. Onura horiek diru-laguntza edo zerbitzu gisa eskainiko dira eta adingabekoen gizartearekiko marjinazioari aurre hartu eta haiek birgizartratzea dute helburu.

Laguntzak eskatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da familia egoera sozioekonomiko larrian

egotea eta 18 urtetik beheragoko kide bat izatea. Horrez gainera, eskatzaileek Bergaran bizi eta gutxienez sei hilabetez erroldatuta egon beharko dute. Gainera, Gizarte Zerbitzuek adingabekoen babesgabetasun egoerak ekiditeko garatzen duten esku-hartzearen barruan egon beharko du familia eskatzaileak.

Udalak zehaztaper batzuk jarri ditu laguntza horiek jaso ahal izateko. Familiaren baliabide ekonomikoak neurtzeko, Gizarte Larrialdietarako laguntzak (GLL) emateko zehaztuta dauden

irizpideak erabiliko dira. Izan ere, GLL jasotzeko eskubidea duten familiek aurrez frogatu dute egoera ekonomiko larrian daudela.

Laguntza motak

Onura ekonomikoak ekarriko dituen arren, laguntzek ez dute zertan dirutan izan, kasu bakoitzak bere azterketa propioa izango du eta familia bakoitzaren egoerari moldatuko zaio Udalaren erantzuna. Behar izanez gero, haurtzaindegi edo ikastetxeetara joateko laguntza jaso dezakete, baita eskola jangelarako edo udalekuetarako laguntzak ere.

Aparteko arreta behar duten kasuetarako, udal zerbitzuek laguntza bereziak aurreikusten dituzte erregelamenduan, betiere premia bereziak dituen familia bat dela frogatzen bada. Hortaz, orain 30 egunez jendaurrean eskegi ostean inork ez badu alegaziorik jartzen, araudi berriak zaharra ordezkatuko du.

Txorimalo lehiaketa deitu du Jardunek Erramu-zapaturako

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak XVII. Txorimalo lehiaketa deitu du Erramu-zapaturari begira. Lehiaketarako izenematea dagoeneko zabalik dago eta adinaren arabera bi multzotan parte hartu ahal izango da: 12 urtetik beherako taldean, batetik, eta 12 urtetik gorakoetan, bes-

etik. Txorimaloarekin batera, euskara bultzatzen lagunduko duen esaldi bat ere aurkeztu beharko da.

Izenematea zabalik dago

Lehiaketa Erramu-zapatuan, apirilaren 16an, izango da eta aurkeztutako txorimaloak Ibargarai kalean ikusgai egongo dira 11:30etik aurrera. Sariematea, berriz, 13:00etan egingo dute.

Lehiaketan parte hartzeko izena eman behar da eta azkeneko eguna apirilaren 8a izango da.

Horretarako, Jardun euskara elkartearen bulegora (Errotalde jauregia, kultura etxea) jo daiteke edo telefono hauetako batera deitu: 943 76 36 61 eta 943 76 08 19.



lazgo txorimaloetako bat. | J.C.

NIRE USTEZ

JON SUINAGA



Bandoak XXI. mendean

Euskal Herrian itxaropenarako leiho bat zabaldu da azken gertaerekin. Ametsak egoera berri hau geldiezinezkoa da. Marko berri honetan, maiatzeko hauteskunde demokratikoak izateko, ezker abertzalearen alderdi

berriak bertan egon behar du. Justizia bada, hala izango da, nahiz eta asko diren Madrildik prozesu berria sabotatu nahi dutenak.

Azken udal hauteskundeetan, herri askotan talde ugari debekatuak izan ziren alderdien legerari esker. Zoritxarrez, historian zehar, udaleko karguak hautatzerakoan inposaketak izan diren eredu asko daude. Adibidez, gure herrian, Erdi Aroan, Ozaita eta Gabiriako familiak borrokatu egiten ziren herriko gobernuaren euren menpean mantentzeko eta inposatzeko. Bergararok familion arabera bi zatitan bana-

tuta zeuden eta kargu guztiak bikoiztuta zeuden biztanleen malur eta etsipenerako. Presio moral eta ekonomikoa eginda menperatzen zituzten Jauntxoek bizilagunak.

Bi familia hauek elkarren aurka borrokatzen ziren oinaztarren bandoan Gaztelako erregearen interesak defendatzeko, baina herrian beti gogor bata bestearen kontra herriko boterea mantentzeko. 1490ean erregeak ordenantza bat atera zuen zentzugabekeria horrekin bukatzeko. Ea oraingoan espainolistek maiztzeo hauteskundeak ez dituzten zapuzten.

OHARRAK

ARANZADI IKASTOLAREN OHARRA

40. urteurrenako ekintzen artean argazki erakusketa antolatu du martxoaren 18tik apirilaren 3ra, Aroztegin. Bada, norbaitek ez badu nahi bere argazkirik agertzerik erakusketan, dei dezala lehenbailehen 943 76 90 71 telefonora. Izan ere, Aranzadi ezin da harremanetan jarri inplikatu guztiekin.

HILAREN 13AN IZANGO DA REALZALEEN IRTEERA

Realak Malagaren kontra jokatuko duen (17:00) egunerako bazkaria antolatu dute Realza-

leek. Astigarragako Rezola sagardotegian izango da (30 euro, partidurako sarrera aparte). Izenematea Matxiategi elektrizitate-dendan da hilaren 10a baino lehen.

DBH-KO 4. MAILAKOAK PINTXOAK BANATZEN

Ipintza institutuko DBHko 4. mailako ikasleek ikas-bidaia-rako dirua lortzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte bihar, zapatua, goizean barrena, San Martin plazan: saskiak zozkatuko dituzte, pintxoak saldu eta baita umeendako jolasak egin ere, besteak beste.

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GOIERRI
Autogidarien Eskola

Gidabaimena euskaraz zein gaztelaraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55
BERGARA

Bergarak kategoriaz igo nahi duen Hernani izango du kontrario

Ohorezko erregional mailan Hernanik eta Bergarak baino ez dute jokatu oraingo asteburuan, atzeratutako partidua da-eta. Oskar Maiztegiren mutilek kontrario gogorra izango dute aurrean, Hernani hirugarren postuan dagoelako, kategoriaz igotzeko lehian.

Euskadiko gazte mailan, Bergarak Ipintzan jokatu du, zapatuan 18:00etan. Bergarako mutilek Santutxu izango dute aurrean, laugarren postuan dagoen taldea.

Domekan hasiko dute zikloturistek denboraldia

Bergarako Txirringulari Elkarteke lagunak domekan, hilak 6, hasiko dute aurtengo zikloturismo denboraldia (09:00etan San Martin plazan). Talde moduan egingo duten lehenengo irteera Arlaban gainera izango da, Dorletako Amabirginari urteroko lore eskaintza egitera eta taldeko erretratuak ateratzera.

Gatzaga aldetik bueltan, Bergarara iritsi aurretik hamarretakoa egingo dute Tartufon. Hala, hemendik aurrera domekero egingo dute hitzordua.



Soraluce BKE taldeko mutilak, Ford Mugarriren kantxan, Iturripen, jokatuako partiduan. | XABIER URTZELAI

"Goikoen kontra hazi egiten gara, behekoen kontra ito"

Soraluce BKEk azken sailkatuaren bisita izango du, 18:15ean.

XABIER URTZELAI | BERGARA

Kategoriari larritasun barik eusteko aurrean zituen bost *final* horietako batean, joan den astean, kale egin zuen Soraluze BKEk. Pronostikoen barruan, Basauri moduko talde baten kontra etxean galtzea ez zuen inork aurreikus-ten, aurrerago etorriko direlako

kontrario gogorrak, kale egiteko benetako motiboak. Hala, mahoneroek, porrotei dagokionez kartutxo guztiak erre dituzte: "Gure asmoa zen kartutxo hori aurrerago erretzea, baina orain badakigu zer daukagun, irabazi ala irabazi", adierazi digu aste barruan Josetxo Muniategik.

Azkena, Labegaraletan

Biharko kontrario Urolaren kontra partidua ongi beharko dute Bergarakoek: "Gure jokora itzultzearekin nahikoa izango da, eurak baino hobeak garelako. Kontua da, baina, goian dabilzan taldeen kontra hazi egiten garelako, baina atzeko postuetan dau-

denak etortzen direnean ito egiten garelako". Hori da, hain zuzen, joan den astean gertatu zitzaiena: "Urduri, antsietate handiaz ibili ginen jokatzeko, infantil mailakoek egiten dituzten hutsak eginaz. Pentsa, azken minutuetan partidua berdintzeko bi eraso jokaldi izan genituen, eta bietako batean ere ez ginen Basauriko areara iritsi, bidean galdu genuen baloia".

Ez dira kontrario zuzenak

Albiste ona da, seguruenik, ez Basauri eta ezta Urola ere ez direla Bergarakoen kontrario zuzenak izango, sailkapenean behar dauden taldeak direlako, hainbat puntuko aldeaz. Gogorra izango da Portugaleteren edo Usurbilen kontrario lehia; asteburuan Ford Mugarri jokatu du Portugaleteren kontra. Hor, Orgazen mutilek faborea egin diezaioke Bergarakoei.

Kontuak kontu, besteei begira egon barik Soraluze BKEk berea zaindu behar du, eta has- teko, ligan zazpi puntu baino batu ez dituen Urola izango dute bihar aurrean (Labegaraletan, 18:15): "Lehenengo itzulian lesio mordo izan zuten, alde horretatik zorteak bizkarra eman zien. Hala, jokalariek garrantzitsuena errekuperatu dute, eta orain arriskutsuagoak dira. Berririo diot, baina, guk gure jokoa errekuperatu behar dugu, eta partidua irabazi". Hala, oraingo astean Bergarako entrenatzaileak ia talde osoa izango du eskura.

Mariaren Lagundia Ikastolan Cambridge azterketak egiteko aukera!

Herrian bertan eta merkeago
egiteko aukera



Mariaren Lagundia
ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net



PET
FIRST
ADVANCED
PROFICIENCY

Matrikula:
martxoaren 15era arte.



UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Authorised Centre

'Urtain' eta 'Madurako txekorra', aurrez aurre

A.E. | BERGARA

Bergarako gaztetxea boxeo ring bilakatuko da bihar, zapatua. Aratuste-zapatua dela kontuan hartuta, gau berezia antolatu dute gaztetxeako lagunek. Kartzela zaharra boxeo ring bilakatuko dute, eta oholza gainera pisu handiko bi disko-jartzaile igoko dira.

Disko-jartzaile bergararrak

Izaro Aperribaik DJ lanak egiten ditu Elvis Caino izenpean. Disko-jartzaile bergararrak *Urtain*-en papera beteko du gaztetxean.

Aperribaik Iker Ugalde izango du aurrez aurre. Ugaldek DJ Hipster lanak egiten ditu; eta bihar, herriko boxeolari baten papera beteko du boxeolari lehian: *Madurako txekorra* izango da, hain zuzen.

Gauerdian hasiko da saioa

Boxeo gaua deitu diote bihar, DJ saioari. Gauerdian hasiko dute musika jaialdia, eta, musika jartzeaz gain, beste hainbat sorpresa ere egongo direla aurreratu dute gaztetxeako kideek.

Amaierarik gabeko rock-and-roll gau antologiko eta magikoa izango dela esan dute. Rock-and-soul estiloa lantzen du, gehienbat, Elvis Cainok; baina funka, doo-woopa, rockabillya, popa eta hard rocka ere sartzen ditu DJak musika emanaldietan.



Emanaldiko kartela. | GAZTETXEA

'El octavo día' eta 'Mujeres del Cairo' filmak zineklubean

Gaztetxeako zineklubean *El octavo día* filma eskainiko dute domekan, 18:00etan. *Elbarritasuna* zinemari gaia landuko dute martxoan gaztetxeako zineklub egitarauan.

Bestalde, eguaztenean, Zabalotegin, *Mujeres del Cairo* filma eskainiko dute, 20:30ean.

Musikak lagunduta 100 urte atzera egingo dute

Gaur eskainiko dute Aratusteetako kontzertua Udal Pilotalekuan, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Orain dela 100 urteko aratustetara bidaiatuko dute gaur Udal Pilotalekura joango direnek. Erakutsi nahi dutena da aratusteak ez direla gaur egun asmatutako jaiak, orain dela 100 urte ere Bergaran ospatzen zirela aratusteak. Horretarako, Mahasterreka kalea irudikatuko dute, eta orain

dela 100 urteko itxura emango diote pilotalekuari. Beti bezala, kontzertua izango da 22:30ean pilotalekuan.

Chirlaque, aitonaren paperean

Alfredo Gonzalez Chirlaque Udal Musika Bandako zuzendariak azaldu du musikariak garaiko erara jantziko direla, eta prota-

gonistak "baserritarrak eta kaltetarrak" izango direla. Gonzalez Chirlaquek, adibidez, bere aitonen papera beteko du gaurko kontzertuan. Jakin dute orain dela 100 urte Mahasterrekan, orain Pertxa elkarte dagoen tokian, sagardotegi bat zegoela. Hala, gaurko jaialdirako egin duten dekorazioa izango da sagar-

dotegetan oinarritua. Bergarako Pilpira taldekoek egin dute dekorazioa.

Sorpresaz betetako gaua

Kontzertuak bi zati izango ditu. Lehenengo zatian Udal Musika Bandak hiru pieza joko ditu: *Euskal festara*, *Procession of the Sorcerers* eta *Pinocchio*. Ondoren, Bergarako orkestra sinfonikoak *La italiana en Argel* eta *La vida es bella* lanak eskainiko ditu. Bigarren zatia sorpresa izango dela azaldu du Gonzalez Chirlaque zuzendariak.

Kontzertuan jasotako dirua Magali Muruamendiaraz 5 urteko neskatilari laguntzeko izango da. Magali Galizian dago, tratamendua jasotzen.

Andoaindik 15 dominarekin itzuli dira piano ikasleak

Musika Eskolako piano ikasleek urrezko bost domina eta zilarrezko hamar lortu dituzte Andoaindik VI. piano jaialdian. Otsailaren 19an eta 20an izan zen jaialdia. Eider Etxaniz, Maialen Lete, Miriam Moñux, Naroa Muxika, June Berraondo, Saioa Galarraga, Maddi Iñarra, Miren Gutierrez, Izaro Garmendia, Mariñe Diaz, Ariana Sasieta, Maddi Muxika, Nerea Urresti, Cristina Souto eta Ainara Gonzalez izan dira jaiadarian parte hartu duten gaztetxoak, Amaia Urdangarin eta Eli Mendiartz ikasleen zuzendaritzapean. Lau hilabete ibili dira ikasleak Andoaindik jaialdia prestatzen.



MUSIKA ESKOLA

2. Fasea

1. Fasea BUKATUTA

2. FASEA SALMENTAN

San Lorenzo auzoa
BERGARA

“ 1 eta 2 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuak. 3 logelako duplexak ”

Erakitzalea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES

Sustatzailea

Ormak

Argibidea eta Salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

132.000€-tik aurrera

Lourdes Idoiaga | Alkatea

"Programan agindutako guztia bete dugu, Urrutxuko kirolgunea egitea izan ezik"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bost urte bete berri ditu Lourdes Idoiagak alkatetzan, azken laurak agintaldi berean. Hauteskunde egunera arte "lan handia" duela esan digu, baina gurekin balorazioa egiteko tartea izan du.

Agintaldia bukatzeaz dago. Zer-nolako balorazioa egiten duzue?

Balorazioa guk egitea baino nahia-go nuke herritarrek egitea. Dena den, oso azkar pasa direla eta guretako lanerako agintaldia izan dela esango nuke. Oso gustura egin dugu lan elkarrekin EAJko eta Hamaikabateko zinegotziek. Guk borondate onena jarri dugu. Ordu asko sartu ditugu, eta herritarrek egindako eskaerak aintzat hartu ditugu. Kargua hartu genuenean agindutakoa bete dugu, Urrutxuko kirolgunea izan ezik.

Egin duzuen lan horien guztien artetik zein nabarmenduko zenuke?

Oso inportantea izan da Mondragon Unibertsitatea gurean gertatzea. Herrian campusa egotea ezinbestekoa zen. Arantzazuko parketxea ere aipatuko nuke; eta baita bidegorri sarea ere. Azken horren gainean, azpimarratuko nuke herritarrek emandako laguntza. Bidegorri sarea osatzeko hainbat eragileren laguntza izan dugu.

Arantzarik baduzu?

Bai, beti daude. 2009a oso gogorra izan zen, eraikuntza arlotik eta Foru Fondotik laguntzak asko murriztu ziren-eta. Hori horrela, proiektu batzuk berrantolatu egin behar izan genituen. Dena den, krisiak beste irakurketa bat ere utzi digu: dirua falta izan zaigunean, genuena hobeto kudeatzen ikasi dugu.



Lourdes Idoiaga, udaletxe bulegoan. | MIREIA BIKUÑA

"Krisiarengatik proiektu batzuk bertan behera utzi behar izan ditugu"

Agintaldi honek utzitako beste arantza bat langabezia tasa izan da. Udalean hasi ginenean 128 langabe zeuden herrian eta 2009ko otsailean, 227.

Hortaz, krisiak eragina izan du.

Bai. Sarrerak jaitsi zirenean, udal departamentu guztietako teknikariek eta zinegotzietan lanean hasi ginen, dirua non aurreztu genezakeen zehazteko. Mantendu egin genituen Gizarte Zerbitzuetako eta herriko tal-

deendako dirulaguntzak. Berritot, krisiak erakutsi digu hobekuntzarako beste bide batzuk topatzen.

Lau urtean babes ofizialeko etxebizitza asko zozkatu dituzue.

Orain dela bost urte salmenta libreko etxeengatik 400.000 euro eskatzen zituzten. Babes ofizialeko 400 etxeak garajearekin saldu dira 121.000 eurotan. Hori horrela, bien arteko aldea ikaragarria da. Herriko gazteei eta familiei irtenbidea eman diegu. Bestalde, salmenta libreko etxeen prezioa asko jaitsi da. Egun, asko saldu barik daude, 350.000 euro eskatzen dituztelako. Beste asko bukatu barik daude, ez dituztelako saldu.

Lanbusekin iraunkortasunaren aldeko apustua egin zenuten.

"Erraza da Alkateen Ituna sinatzea; konpromisoak betetzea, zailagoa"

Datuen arabera, auto bakoitzean 1,18 pertsona joaten zen lanera, eta hilean 2.800 bidaia egiten zituzten herritarrek. Hori horrela, Lanbus abiarazi genuen. Bidegorri sarea ere martxan dugu. Laster egingo dugu Euskadi etorbideko zatia, eta maiatzean hasiko dute Kurtzequatik Zubillagara doan zatia.

Hasi zarete Alkateen Itunak eskatzen dituen konpromisoak betetzen?

Ituna sinatu genuen eta oraintxe esleitu dugu Oñatiko eraginkortasun iraunkorraren nondik norakoak zehaztuko dizkigun proiektua. Urtebeteko epean datuak izango ditugu eskuetan. Alkateen itunaren helburua da 2020. urterako energia %20 aurrezte eta CO2ren isurketa %20 murriztea.

Oñati eta Zumarraga lotzeko autobus zerbitzua indartu duzue. Aurkezpenean esan zenuen agintaldiko "egunik pozgarriena" zela.

Beharrezkoa zen. Herritarrek behin eta berriz aipatzen ziguten Zumarragako tren hartzeko zuzeneko autobusaren beharra. Zerbitzua indartu dugunetik ordu erdian behin daukagu autobusa, baina ez bakarrik tren hartzeko edo Donostiara joateko. Herritar asko dago Goierri lan egiten duena, eta alderantziz: asko dira Udanan bestalde guregana datozenak, lanera edo ikastera.

Udaltzainen zerbitzua aste bukatetara luzatu duzue. Gaueko zerbitzua noizko?

Oraingoz, ezingo dugu zerbitzua luzatu. Egun, 07:30etik 21:00etara egoten dira lanean udaltzainak. Talde egonkorra dugu gaur egun. Orain dela bi urte udaltzain taldea handitzeko hartutako erabakia hartu izan ez bagenu, egun ezinezkoa izango zatekeen.

Nolako hartu-eman izan duzue gainerako alderdiekin?

Ondo konpondu gara. Hamaikabateko zinegotzietan oso ondo egin dugu lan elkarrekin. OEko Joxe Ruiz langilea da eta Manoli Barrenetxea PSEko zinegotzia, emakume atsegina. PPko zinegotziarekin ez dugu arazorik izan, ez duelako batzordeetan parte hartzen.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

Oñati Ezkerretik koalizioa

"EAJk agintaldian bultzatu duen parte-hartzea fikziozkoa da, benetakoa baino"

"Agintaldiaren hasieratik –Oñatin ANVren legez kanporatzearekin eta krisi ekonomikoarekin kolpatua egon zen–, gure lankidetzak eskaini izan diogu EAJri, eta horrela erakutsi genuen lehenengo bi urteetan aurrekontuei gure baietza eman genien.

Dena den, EAJk, parte-hartzea bultzatzen duela harro esateaz gainera, jokoz kanpo utzi gaitu agintaldi honetako proiektu garrantzitsuak zehazterakoan; Azkoagain konpondu, San Lorenzo, Errekalde, Roke Azkune edota Atze Kaleko birmoldatu, edo Ibarren egin

duen Enpresagintza fakultate berria egin, adibidez. Gure txaloen zain geratu dira. Beraz, ulertzekoa da askotan prentsa bidez etorkizuneko proiektuen berri izan dugula esatea, edo, urtebetez gogaikarri jarri ostean, Bozeramaileen Batzarra martxan jarri izana.

Esan behar dugu, baita ere, EAJri kosta egiten zaiola agindutakoa betetzea. Orain dela bi urte alkatearekin adostu genuen anbulatorioko irisgarritasun plana. Eta lotsagarria da oraindik zintzilik egotea adostutakoa. Proiektua idatzi barik dago".

Ezker Abertzalea

"Normaltasunera itzultzeko garaia da, gobernu talde batekin eta benetako oposizioarekin"

"Zilegitasunik gabeko bigarren agintaldiaren bukaeran balorazio ezkorra egiten dugu. Zergatik? Ezin duelako inork balorazio positiborik egin, bigarren indar politikari hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea lapurtu, eta herritarren egunerokotasunean eragin zuzena duen instituzioan parte hartzeko eskubidea urratu diotenean. Egoerari buelta ematea oso erraza zen, eta, saiatu arren, hitz politikak bakarrik topatu ditugu; eta politikan, bizitzan bezala, balio duena jarduera praktikoa da. Kontzienteki, gero eta gutxiago hartu dugu parte udal

jardueran, itxaropenez ikusten dugu egoera berria. *Herri mugimenduak bizi behar dute* aldarrikapenaren inguruan eraman den beste filosofia da guk aldarrikatu izan duguna urte hauetan, ikuspegi herritar, ezkertiar eta aurrerakoian oinarrituta.

Laburtuz, zortzi urte antidemokratikoren ondoren, garaia da normaltasunera itzultzeko herritarren instituzioa berreraikiz, gobernu talde batekin eta benetako oposizioarekin; azken urteotan faltan igarri izan ditugunak, hain zuzen ere. "

Gaur eta martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak ikastetxeetan

Ikastolako, Elkar Heziko eta herri eskolako umeak mozorroto egingo dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Mozorroak, kolorea eta festa izango dira nagusi herriko ikastetxeetan. Aratusteak gertu dituzte, eta, euren egutegiak kontuan hartuta, gaur eta martitzenean ospatuko dituzte.

Goiztiarrenak Txantxiku ikastolako neska-mutikoak izango dira. Mozorroak, apaingarriak, abestiak eta dantzak irakasleen eta ikasleen artean egin dituzte eskola orduetan. Haur Hezkuntzako umeek eguraldiari eta urtaroei egingo diete omenaldia. Txikiak adinka banatu dira, eta eguraldia, udaberria, negua, uda eta udazkena izango dira. 15:30ean kalejira egingo dute kalean. Aldiz, Lehen Hezkuntzako ikasleek rocka aterako dute kalera. Gitarra doinuekin kalerik

kale ibiliko dira 14:30etik 16:00etara. Azken dantzak plazan egingo dituzte.

Aratuste festa bukatzeko, jaialdia egingo dute ikastolako jolaslekuan. 16:30etik 18:00etara musika, txokolate-jana eta dantzak izango dira nagusi.

Besteek martitzenean

Elkar Heziko eta Errekalde herri eskolako ikasleek martitzenean, hilaren 8an, ospatuko dituzte Aratusteak eskolan.

Elkar Heziko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehenengo mailako ikasleak kale-rik kale ibiliko dira goizean. Urteroko ohiturari jarraituz, Euskal Herriko mitologiarekin lotutako ohitura zahar bati eutsiko diote: eguzki-lorea.

Gogoraraziko dute eguzki-lorea etxe eta baserrietako hainbat atetan dagoela, gaitz guztietatik defendatzeko: aztiak, lamiak, gaixotasunak, ekaitzak... Elkar Heziko ikasleek eskola orduetan egin dituzte mozorroak, eta dantzak eta koreografiak entseatu dituzte.

Bestalde, euririk egiten ez badu, hilaren 8an 11:00etan elkartuko dira Errekalde herri eskolako ikasleak ikastetxeko jolaslekuan. Euskal mitologiako pertsonaiak oinarri hartuta, taldeka mozorro ezberdinak egin dituzte. Euria egiten badu, kiroldegiko kantxan egingo dute ikuskizuna.

Azkenik, arratsaldean, herriko neska-mutiko guztiak Zirika Zirkus taldearen emanaldia ikusteko elkartuko dira kiroldegian.

Eguna ondo hasteko, gosari osasuntsuak

Elkar Hezi ikastetxeko bosgarren mailako neska-mutikoek gosari osasuntsuak probatu zituzten eguaztenean. Esnea, kakaoa, fruta, ogia, ezti, indioilarra eta olioia jan zituzten. Ekimenaren helburua da ikasleei azaltzea ze garrantzitsua den gosari osasuntsuak hartzea eguna indartsu hasteko.



ELKAR HEZI IKASTETXEA

Herri mailako ehiza txapelketa hilaren 19an Zanbranan

M.B. | OÑATI

Pago Uso elkarteak antolatuta herri mailako ehiza txapelketa egingo dute hilaren 19an Zanbranan (Araba). Parte-hartzaileek ehiza baimena eguneratuta eta federatu txartela eduki beharko dituzte. Gainera, ezinbestekoa izango dute txapelketan txaleko islatzaileak erabiltzea. Baldintza horiek betetzen dituzten ehiztariak

izena eman ahal izango dute hilaren 8an, 9an, 10ean, 11n eta 12an Pago Uso elkartearen edo Alzu dandan, 19:00etatik 20:30era arte. Pago Uso elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 40 euro.

Eperrak eta faisaiak

Txapelketa 09:00etan hasiko dute, eta 13:30era arte ehizan egiteko

aukera izango dute parte-hartzaileek. Pieza gehien harrapatzen dituen izango da irabazlea.

Iaz, Jose Ignacio Leibarrek jantzi zuen txapelketa hamargarren aldiz. Bi eper eta hiru faisai ehizatu zituen. Haren atzetik sailkatu ziren Josu Lizarralde eta Mikel Otxoa-Angiozar lau eperrekin bakoitza eta Aitor Zugasti hiru eperrekin.

Feminismoak Euskal Herrian izan duen eboluzioa, erakusketa baten bilduta

M.B. | OÑATI

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko erakusketa jarri du ikusgai Oñati Ezkerretik koalizioak. *Feminismoaren 30 urte Euskal Herrian* delako erakusketa kultura etxean egongo da hilaren 10era arte, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara. Erakusketan ikusgai daude Euskal Herriko Feministen Mugi-

menuak urtez urte kaleratu dituen kartelak. Horieta, abortatzeko askatasuna eta sexu librea aldarrikatu, eta tratatu txarren eta laneko diskriminazioaren kontra egin izan dute.

Euskal Herriko Feministen Mugimenduak erakutsi gura duena da feminismoak zer-nolako bilakaera izan duen azken urteotan gurean.

Gezalaga Margoak

Pintura eta osagarrien salmenta

Era guztietako margolanak.

Kale barria 31
Tel. eta faxa: 943 76 64 07
Poltsikokoa: 616 277 999
OÑATI



Ariznoa
Azpeitxi
Bule
Depor
Etxagi
Euxebio II
Iraho
Irish Pub Galways
Kai
Kaixo
Kayak
Sirimiri
Toki Ona
Usoa
Zunbeltz

Bergarako tabernetan girorik onena!

Ondo pasau Aratustietan!

Mozorroak bukatu nahian Aratuste-domekarako

'Karnabal Jaia' gaur, koadrilak domekan eta umeen kalejira martitzenean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Leizarra musika eskolakoek gaur egingo duten *Karnabal jaia*-k Aratuste ospakizuna hasiko du gurean; egun handia, baina, domeka da.

Hain zuzen, domekari begira mozorroei azken ukituak ematen dabilta koadrilak eta herritarrak. Asko Larrinbe inguruan dagoen industria-pabiloian elkartu dira azken hilabeteen, gurdi, automobil eta antzekoak gertatzeko. Betiko mozorroek –piratak, mexika-

rrak, indiarrak...– eta burutazio originalek –auto lasterketa, safariak...– bat egingo dute domeka eguerdian gure kaleetan.

Plazan sariak jasotzeko

Mozorrotutako koadrilen eguna da Aratuste-domeka eta eguerdiko kalejirak girotuko ditu bazterrak. Copreci lantegi ingurutik atera eta Araba ibilbidean behe- ra, Mitarte eta Durana kaleak pasatu, eta Errekabarrendik

Andramari auzuneari buelta emango diote, eta Herriko Plazan bukatu. Kalejiran dabiltzanek mozorro lehiaketan hartuko dute parte eta bi taldetan sailkatuta banatuko dituzte sariak –bost bakoitzean–: 16 urtetik beherakoendakoak eta gorakoendakoak. Sariak banatzerakoan plazan bertan egon beharko dutela koadrilek iragarri dute Kultura Saileko kideek, bestela ez dute-eta saririk jasoko.

Txikiak indiar jantziko dira

Martitzenean ikastetxeetako umeak agertuko dira plazan mozorrotuta. Txikiak, Pausokakoek tartean, indiaren gaineko lantxoak egin dituzte egunotan eta halaxe jantziko dira. Dantzan egingo dute horiek (10:30) Kurtzebarri eta Basabeazpikoekin batera. 5 urtekoek, oster, txino-dantza egingo dute, urtero legez.



Indiaren gaineko argibideak ematen Pausoka haur eskolan. | PAUSOKA

ARATUSTEETAKO EGITARAUA

MARTXOAREN 4A

17:30 'Karnabal jaia', kalean, Musika Eskolakoekin.

MARTXOAREN 6A

10:30 Diana txistulariekin.

11:45 Txino-dantza, kalean.

12:00 Koadrilen kalejira.

17:00 Erromeria, plazan.

17:30 Kalejira Akelarre txarangarekin.

18:30 Mozorro lehiaketaren sari banaketa, plazan.

19:00 Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.

MARTXOAREN 8A

10:30 Ikastetxeetako umeen dantza saioa, plazan.

11:00 Kalejira La Najerana txarangarekin.

11:30 Umeendako mokadutxo eta dantza.

16:00 Dantzaldia txarangarekin, plazan.

17:30 Buruhandiak.

18:00 Disko festa, plazan.

20:00 Txin-en hileta, plazan, kintoek gidatuta.

Basotxokoek alderdietako ordezkariekin egon gura dute

M.A. | ARETXABALETA

Udal hauteskundeak datozela eta, Basotxoko kideek alderdi politikoek dituzten asmoak ezagutu gura dituzte, batez ere nagusiendakoak –zer den pertsona nagusia, nola aprobetxatu nagusien eskarmentua, zer den Basotxo...–. Bada, galdetuta banatu diete alderdietako ordezkari, eta gero, galdera horiei erantzutera joango dira Basotxora –alderdi bakoitza egun baten–. Erantzunak entzun ostean elkarrizketa mahaiak osatuko dituzte; hau da, erretiratuek osatutako taldeetako entzundakoak eztabaidatzeko.

Gonbita alderdi guztiei bidaltzen saiatu direla esan dute Basotxoko kideek, baina herrian egoitza ez dutenei ezin izan diete helarazi. Hala ere, haiek ere atek zabalik dituztela esan dute.

Eguenean batzar orokorra

Batzar orokorra egingo du Basotxok datorren egunean, hilak 10, egoitzan (17:00). Urteko kontuak azalduko dituzte, eta batzorde aldaketa egin.



GUUREA

Gora Inauteriak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

Herriko errepide eta bideen inbentarioa ikusgai dago ekarpenak egiteko

Hil osoan egongo da Arkupeko bigarren solairuan eta herritarren ekarpenekin osatu gura dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabalekako landa guneko errepideen eta herri erabilera zein bidez zorra duten bideen inbentarioa deritzon dokumentua idatzi du Udalak. Horretarako, lanean jardun du Zigor Barkero aretxabalekarrak azken hilabeteotan eta dagoeneko ikusgai jarri dute egindako zirriborroa. Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan egongo dira bide ezberdinen planoak martxo osoan.

Landa auzoetako zinegotzi Joxe Anjel Antxiak esan du "egindako lana aurrerapen bat dela, zirriborro bat", eta "herritarrek ekarpenak egin ditzakete eta edozein argibide, zalantza nahiz antzeman daitezkeen zehaztasun gabeziak aurkeztu". Horren berri zuzenean agertzeko udal hirigintza teknikariek hitzordua eskatu behar da; eta idatziz ere aurkez daitezke ekarpenok udaletxeko harreran aurkeztuta.



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Euskaltegikoak sagardotegian

Leintz Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak Astigarragako Rezola sagardotegian izan ziren joan den egubakoitzean, hilak 25. Giro ezin hobean afaldu eta txotx egin zuten, eta, gainera, *Mihiluze* saioko aurkezle eta langileak izan zituzten alboan afaltzen. Sagardotegian hasitakoa herrian bukatu zuten batzuek, parranda eginda.

OHARRAK

FILM EMANALDIA ETA DANTZA EKITALDIA

Jaikik antolatuta, *Memoria de una hija de Oshun* filma eman-go dute gaur Arkupen (19:00); gero, dantza ekitaldia egongo da Magdalena Milano dantza irakaslearekin.

HAUSTERRE EGUNA


Garizuma hasteko errautsaren ezarpena egingo dute eguaztean agustindarren monasterioan (09:00), zaharren egoitzan (10:30) eta parrokan (19:00).

ARRIKRUTZERA IRTEERA

Gazteria Sailak 8-12 urte arteko gazteendako irteera antolatu du Arrikruzeko kobetara, apirilaren 2rako. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a da, ludotekan.

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA



Merezi daue

Azarotik hona, berdin aste-gun, berdin lanegun, lanordu eta ikastorduetatik aparte hitzorduz hitzordu ibili ostien; Karnabalei eta Txapel Txin egunei azken urtietan sekulako gorakadia eragin ostien; bi egun horrein arduria eurengain hartu ostien; aurretik eta egunotan eukittako burujan eta einddako lantzarran

ostien; merezi dauielakuen nau: Txapel Txin eta Karnabal-domekian antolatzailea: Karnabalen Lagunak.

Ez da iritzi berekua, ostera, Udaleko Kultura Saila. Etxietan jaso doguen Karnabal jaixetako egitarauetan Udaleko Kultura Sailan inoizko logotiporik haundixen albueta antolatzaileen aipamenik ez, Udalakin harre-

manetan azarotik dabitzen arren.


Karnabalen Lagunek azken urtietan eragindako arrakasta eta Karnabalen Lagunek eindako eta eitten dabitzen lana bere ein dau Udaleko Kultura Sailak. "Diru dana Udalak jarri dau" (tabernek be jarri daue; orduen, dana ez), eta horra arrazoia bere eitteko. Udalak dirua

jarri dauelako Karnabalen Lagunek antolatzaile izetia ixten dutze ala? Ze elkarlan eredu da hori ba? Eta ze Udal eredu da hau?

Sekulako lana ein dozue 23F+3 hartatik beste urte batez, eta merezi dozue. Zapatukua ikustia besteik ez dau, eta domekan disfrutauko doguenak konfirmauko duzku.

ondo pasau!!

ara
tus
teak



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabalekako Industrialdea F-0-4,
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Pedro Lasagabaster | Eskoriatzako alkatea

"Gorabehera askorekin, baina orokorrean ondo joan da agintaldia"

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Amaitzera doa 2007-2011 agintaldia, eta, alkate kargua utzi aurretik, Pedro Lasagabasterekin egon nahi izan dugu, azken lau urteotan bizi izandakoaren balorazioa jasozeko. "Gorabehera" askoko agintaldia izan dela nabarmendu du; dena dela, orokorrean azken lau urteotan egindako lanarekin "pozik" daudela jakinarazi digu, eta datozen agintaldian jarraitzeko gogoia dutela ere iragarri digu.

Zelan joan da amaitzear dagoen agintaldia?

Gorabehera askorekin, baina orokorrean ondo joan dela esan genezake. Orain dela lau urte hasiberriak ginen, eta askoz esperientzia gehiago daukagu orain.

Agintaldia bukatu arte zein izango duzue zeregin nagusi?

Lan egitea. Aurtengo aurrekontuak onartuta ditugu, hainbat proiektu dagoeneko martxan jarrita ditugu eta beste asko abian jartzeke daude. Egunerokotasunean jardungo dugu, bide beretik jarraituko dugu gauzak ondo uzteko.

Agintaldiko onena eta txarrena?

Onena, zalantza barik, herritarren babesa; denbora osoan sumatu dugun laguntza hori. Txarrena, aldiz, mozio etikoa, duda barik. Lotsagarria izan zen.

Egoera ekonomikoa zaila izan da, eta, hortaz, inbertsio askorik ezin



Udal Gobernuako kideak; Lasagabaster, bigarrena ezkerretik. | ESKORIATZAKO UDALA

izan da egin. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Egoera ekonomikoa oso larria izan bada ere, hainbat inbertsio egin ditugu; horren harira, pozik gaude. Egia da handik eta hemendik ibili gazela dirua ekartzen eta lortu egin dugula.

Horren adibide dira Olaeta pilotalekuan jarritako estalkia eta Olaeta plazan egindako lanak. Horretaz gain, San Pedro auzoko urbanizazioa ere azpimarratuko nuke, eta baita Aranburuzabala kaleko lur-jausiaren ondorioz egin zen lana ere. Kasu horretan, salatzea da Aldundiak ez digula batere lagundu; dena dela, oker ez banago, Jaurilaritzak orain

diruz lagunduko du esandako inbertsio hori.

Bestalde, zuzenean geuk egin ez dugun lana bada ere, bidegorria ere azpimarratuko nuke; asko erabiltzen den azpiegitura da. Horrekin batera, kulturarekin lotutako inbertsioak ere badaude. Kanpoko diruarekin izan bada ere, antzokia jarri dugu martxan. Zubiareko labea eta Aitzorrotz ere hor daude. Azken horretan egin diren indusketen ostean, aurten harresiak eta uraska egonkortu egingo dira.

Aldi berean, herri inguruan egin nahi den parkea ere nabarmenduko nuke, Olaeta eta San Pedro artean etorkizunean oso

"Aukera izanez gero, Udalean egongo gara hauteskunde ostean"

interesgarria izango den gunea egiteko hazia baitugu. Aranzadi-koak dabilza hor lanean.

Zer geratu da egin barik agintaldi honetan?

Badira egin barik geratu diren gauza batzuk, bai, baina argi dago lau urtean ezin duzula dena egin. Lehenetsunean erantzun diegu, etorriko da gauzak egiten

jarraitzeko garaia. Orokorrean, lehen esan bezala, pozik daude. **Jarraitzeko gogoarekin ikusten zaitut... Esperientzia errepikatze-ko gogorik bai?**

Errepikatze gogoarekin bai; esperientzia errepikatze gogoarekin, berriz, ez. Esperientzia irabazi egin dugu eta orain geratzen zaiguna da esperientzia hori garatzea, aurrera eroatea. Hasierak motelak izaten dira, ikasi beharreko asko egoten da; baina bigarren bueltan esperientzia hori aprobetxatu behar da gauzak garatzeko eta hobeto egiteko.

Hautagai moduan aurkeztuko zara orduan?

Possible izango dut aurkeztea? Ezker abertzalea hurrengo hauteskundeetan ikustea gustatuko litzaidake, eta, aukera izanez gero, hor egongo gara.

Ekonomikoki, nola geratuko da maiatzean Eskoriatzako Udala?

Egonkortuta geratuko da, gauden krisian egonda. Udalak pobre izaten jarraituko du, baina, behintzat, barkua zuzenduta utziko dugu, eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Garbi dago zer sartzen den eta zer ez, eta aurtengo aurrekontuak ere onartuta daude. Alde ederra dago orain dela lau urte topatu genuen egoerarekin.

Nola geratu da AP-1 autobidearen gaia?

Arrasaten eta Aretxabaletan egin den moduan, Bidegirekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea espero dugu. Eskoriatzatan luzeegi jo du kontu honek, egin beharreko gauzak asko direlako, baina harremana ona da eta laster gauzatuko dela uste dugu.

Amaitu aurretik, zelakoa izan da gainerako taldeekin izan duzun harremana?

Batzuekin oso ona eta beste batzuekin, ez hain ona. Baina hori kalean ere hala izaten da.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

Aitor Urrutia

EAJ

"Agintaldi kaskarra, ez da etorkizuneko oinarririk ipini"

"Agintaldi kaskarra, ez da inolako etorkizuneko oinarririk ipini. Adibidez, Hirigintzako Plan Nagusian opakutasuna mantendu da; AHTrekin etorkizuneko aukera paregabeak galdu dira; zaharren egoitzan norberaren koadrilarako baino ez da gobernatu; autobidea; kulturaren edo elizateetan. Santa Anako aretoa ikur bakartzat izaki, gainerako azpiegitura kulturalak, Ibarraundi kasu, baliogabetuak daude. Ez da inolako erantzukizunik hartzen, guztiaren errua gainerakoiei leporatzen diete beti, egungo Eusko Jaurilaritzari izan ezik, zergatik ote?".

Iñaki Pierrugues

PSE-EE

"Positiboki baloratzen dut amaitzear dagoen agintaldia"

"Krisi ekonomikoa, legez kanporatzeak, irregulartasunak eta aurreko gobernuak utzitako zorrak kontuan izanda ere, positiboki baloratzen dut amaitzear dagoen agintaldia. Rodriguez Zapaterok martxan jarritako Toki Inbertsioetarako Estatuko Fondoari esker, hainbat inbertsio garrantzitsu egin ahal izan dira udalerrian; hain justu ere, hamabi proiektu inguru. Udal Gobernuarekin lortutako akordioekin, gainera, Eskoriatzarako oso interesgarriak diren egitasmoak jarri dira abian".

Maidier Otamendi

EA

"Azken urtea ez da erraza izan, zaharren egoitzagatik"

"Azken urte hau ez da erraza izan, bereziki zaharren egoitzan gertatutakoagatik. Albiste txarra izan da herritarrentzat orokorrean, baina batez ere Udalarentzat, atseginak ez diren erabakiak hartu behar izan ditugulako. Baina egoera honi buelta eman ahal izateko martxan jarri diren ekimenek beren fruitua emango duten esperantza daukat. Agintaldian, proiektu interesgarri asko eraman dira aurrera, baina gustukoak Zaldibar antzokia dut. Bazen garaia eskoriatzarrok merezi dugun antzokia edukitzeko".

Karmelo Lezeta

HI!

"AP-1eko konpentsazio neurriekin ez du ezer egin"

"Gobernuaren iritziz aurreko agintaldian guztia oso txarto egin genuenez, horra hor gauzak ondo nola egiten diren ikasi duguna: alkatea hautatzerakoan elizateak, azken 30 urteetan lehen aldiz, abstenitu beharrean ezker abertzalearen alde bozkatu zuten. Udal Gobernuak memoria arazoak ditu, ahaztu egin zaiolako AP-1eko konpentsazio neurriekin ezer egitea. Zaharren egoitzan eraikin berria egiteko aukera egon da; osoko bilkuran municipalizatzeko erabakia hartu eta Patronatuan daudenei onartutakoa betetzea ahaztu zaie, Santa Marinako dirua horretarako erabiliz".

Juan Luis Merino

EB-Berdeak

"Ezkerreko politikak martxan jartzeko aukera galdu da"

"Kudeaketari dagokionez, salbuespenetan izan ezik, gehienetan bat egin dugu. Alde politikoaren harira, ezkerreko politikak martxan jartzeko aukera paregabea galdu da. Aurreko gobernuen politika kontinuitate egin du, kudeaketara mugatu da. Aurrekontuak dira horren erakusle: herena kulturara bideratu da, beste herena gastu arruntetara eta gainerakoa bestelako alorretara. Gobernuaren kudeaketa kontrolatu dugu, eta planteamenduak okerrak zirela ikusi dugunean salatu egin dugu".

ESKORIATZA

Kaleak hartuko dituzte mozorrotzea gustuko dutenek

Berrikuntza barik dator egitaraua: bihar, herri bazkaria, desfilea eta lehiaketa izango dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Mozorroa kalera ateratzeko ordua heldu da. Biharko eguna ekimenez josita dator. 13:00etan, dantzaldia izango da plazan Egan taldearekin, eta ordu berean trikilariek herriko kaleak girotuko dituzte. 14:30ean, berriz, herri bazkaria egingo dute pilotalekuan; 300 lagun inguru espero dituzte han.

Bazkaldu ostean, etxeko txikienek Gorriti eta bere animaliekin disfrutatzeko aukera izango dute Gorosarri plazan; 16:00etan hasiko da hori. Mozorro desfilea, aldiz, 17:30ean hasiko da. Aurten ere lehiaketa antolatuko dute. Udaletik jakit

narazi dute lehiaketan parte hartzeko desfilea egin behar dela, eta horretarako izena eman beharra dagoela aurretik. Bihar bertan egin daiteke, pilotalekuan, 16:00etatik 17:00etara.

Talde irabazleak 250 euro

Parte hartzeko bi modu egongo dira: koadrilaka (gutxienez lau lagun ez osatuta egongo dena) edo banaka edo talde txikietan. Sariei dagokienez, koadrila irabazleak 250 euro irabaziko ditu; banakoak, 100; eta 16 urteko beherakoendako taldeen artean hiru merienda banatuko dira. Eguna amaitu aurretik, Eganek joko du ostera ere plazan.



Neska-mutikoak Urdelardero ospatzen plazan. | JULEN IRIONDO

OHARRAK

KIROL HITZORDUAK

Gaur, egubakoitza, hasiko dira norgehiagokak. 18:00etan, saskibaloiko kadeteek H. Mavi Goierrri hartuko dute. Bihar, 18:00etan, areto futboleko Euskal Ligan, etxekoak UPV Alavaren kontra lehiatuko dira.

ARATUSTE JAIK

Gaur, egubakoitza, Aratustek ospatuko dituzte Tortolis ludo

tekan. 16:30ean hasiko da jaialdia. Gaztelekuan, ostera, mozorro lehiaketa egingo dute bihar; eta etzi, Aratusteetako argazkien proiektzioa izango da.

PINTUREN ERAKUSKETA

Ibarraundi museoa Begoña Gilsanz bilbotarraren erakusketa bisita daiteke hilaren 15era arte, astelehenetik egubakoitzera bitartean.

ANTZUOLA

Laurogei bat lagun irtengo dira dantzara Aratuste-domekan

Urteroko sorgin-dantzarekin batera beste dantza batzuk ere egingo dituzte

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Azken urteotan moduan, aurten ere domekan egingo da Aratusteen ospakizuna Antzuolan. Oinarinek dantzaz alaituko ditu kaleak goizean goiz hasita.

Goizean, 09:45ean elkartuko dira plazan helduen bi dantzataldeak: sorgin-dantza egingo dutenak eta erromeria-dantzak egingo dituztenak. 10:00etan hasiko dute kalejira eta herriko txoko ezberdinetan erakutsiko dute gero plazan egingo dutenaren zatitxo bat. Kalejira amaitu ostean, saioa egingo dute plazan, 12:30ean hasita. Umeek egingo dute lehengo dantza-saioa: arku-dantza, txankarrankoa, esku-dantza, zinta-dantza eta iribas egingo dituzte txikienek, guztiak ere mozorrotuta. Ondoren, erromeri-dantzak egingo dituzte nagusien taldeko neskek eta, ostean, sorgin-dantza egingo dute mutilek.



Sorgin-dantza egiten, iazko Aratuste-domekan. | ANTZUOLAKO UDALA

Bukatzeke, txulalai dantzatuko dute guztiek batera. Bertan izango dira hartza, tximinoa eta domadorea ere.

Guztira, 80 bat dantzarik hartuko dute parte domekako saioan: 50 bat ume eta 30 bat helduk.

Torradak eskolan

Herriko eskolan gaur, egubakoitza, ospatuko dituzte Aratustek. Umeak mozorrotu egingo dira, eta 16:00etan txokolata eta torrada jana izango dute eskolako jolaslekuan.

Antzuolako hiru bikote izango dira Euskal Herriko mus txapelketako finalean martxoaren 12an

Joan den zapatuan jokatu zen Seguran Gipuzkoako txapelketa eta bertan, Antzuolako lau bikotek parte hartu zuten. Juan Simon Aristik eta Beñar Kortabarriak hirugarren egin zuten, eta Euskal Herriko finalean izango dira, herriko beste bi bikoterekin batera: Gotzon Gabilondo eta Xabier Altzelai; eta Felix Alonso eta Claudio Cabrera. Urruñan jokatu da finala, martxoaren 12an.

Oihulari Klown taldearen 'Molestias clownicas' antzezlanak izango dugu gaur Torresoroan

Virginia Imaz clown-ak egingo du *Molestias clownicas* antzezlanak. Pauxa izeneko pailazo baten paperean jarriko da eta sendagilearen kontsultarako zain dagoela dituen burutazioak kontatuko ditu umore puntuarekin: estresa, argaltzeko dietak, etxekoandarearen neurosia, ginekologoaren bisita, automedikazioa... Emakumeak osasunarekin duen erlazioari buruzko bakarriketa. Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Torresoroan. Sarrera 3 euro kostako da.

Toribio Jauregiren argazkien erakusketa ikusteko aukera egongo da aste bukaera honetan ere

Toribio Jauregi, pilotazale bat kameraren atzean izeneko erakusketa inauguratu zuten joan den astean Orlanen eta aste bukaera honetan ere ikusgai egongo da. XX. mende hasierako pilota munduaren lekuko izan zen Jauregiren argazki-kamera. Bergarako Udala Artxiboko 30 argazki osatzen dute erakusketa. 18:30etik 20:30era egongo da zabalik, zapatuan eta domekan.

OHARRAK

FUTBOLA

Antzuolak Debako Amaiak Bat taldearen kontra jokatu du zapatuan, Errota-Zar zelaian. Joan den jardunaldian 1-1 egin zuten Antzuolak eta Elgoibarrek. Ondorioz, seigarren dago Antzuola 35 punturekin. Amaiak Bat 12. dago, 24 punturekin.

KZGUNEAK

Martitzenean, martxoak 8, egongo da KZgune zerbitzua tutorearekin, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

NERABEEN GURASOAK

12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako ikastaro programa antolatuko dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Gaur da programaren izena emateko azken eguna.

ODOL EMAILEAK

Diru-bilketa egingo dute domekan odol emaleen elkartekok, urtean zehar sortzen diren gastuei aurre egiteko.

Gaur amaitzen da erizain-kudeatzaile posturako izenematea

Zaharren egoitzarako erizain-kudeatzaile lanpostuan interesa dutenek gaur arte dute curriculum aurkezteko aukera. Beharrezkoa izango da erizaintza titulua eta kontuan hartuko dira lan esperientzia eta formazioa. Eskerak egoitzan aurkeztu behar dira, 10:00etatik 18:00etara.

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotzak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21

Tel.: eta faxa 943 76 64 07

Poltsikokoa 616 27 79 99

ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA

Apainketak eta solamenduak

Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400

Biltegia: 943 78 70 40

Egun osorako egitarauarekin datoz aurten ere Aratusteak, bihar

J.B. | ARAMAIO

Bihar ospatuko dira Aratusteak Aramaion. Elkarlanean antolatutako festa da; izan ere, Udalak, Gazte Asanbladak eta Txatxilipurdik antolatzen dute. Haur, gazte zein helduendako egitaraua prestatu dute, eta herri bazkaria izango da ekitaldirik potoloena. Txartelak salgai daude herriko tabernetan, 12 eurotan. Bazkalostean, 17:00 aldera, mozorroak herri osoari erakusteko kalejira egingo dute, herriko trikitilarien laguntzaz. Gero, 18:00etan, mozorro lehiaketa eta, lehiaketaren ostean, txokolata-jana eta haur dantzaldia egongo da. Azkenik, Tolosako Jainekin txarangak herriko kaleak girotuko ditu. San Mar-

tin eskolakoak, bestalde, gaur irtengo dira kalejiran, 14:30ean. Euririk egiten ez badu, plazara joango dira eta euria egiten badu, berriz, frontoian erakutsiko dituzte mozorroak.

Mozorro lehiaketa

Mozorro lehiaketaren sariak honakoak izango dira: gutxienez lau pertsonaz osatutako talde mozorrotu onenak, 14 urtetik behera eta 14 urtetik gorako taldeetan ezberdinduta, 90 euro irabaziko ditu. Bigarren saria, berriz, 36 euro izango da. Originaltasunaren saria, banaka zein taldeka, 48 euro izango da lehenarendako eta 30 euro bigarrenarendako. Sari banaketa bihar da, 18:00etan.



Eskolako umeak gaur irtengo dira kalejiran, 14:30ean. | ARAMAIOKO UDALA

Afari bat sari, bidearen irekiera egunera gehien hurbildu direnendako

Monika Landaluze eta Gurendane Etxebarriak irabazi dute Trikitixa taldeak abenduan antolatutako porra: Aramaio-Arrasate bidea noiz zabalduko zen asmatu behar zen eta euren apustua izan da gehien hurbildu dena. Dukiena jate-xean afaria irabazi dute. Zorionak!

Kalte-ordainak eskatzeko eredu bat atera du Udalak

Otsailaren 16ko bilera irekian herritarrek egindako eskaera aintzat hartuta, ondare erantzukizunari buruzko erreklamazioa egiteko irizpideak eta erreklamazio eredu bat kaleratu du Udalak. "Nahi izanez gero" erabiltzeko eredu bat eta Udalaren webgunetik jaitz daiteke.



Asier Agirre eta Aritz Otxandiano, Aramaio eta Otxandio alkateak, hitzarmena sinatzen, Oletako elkarteetan. | JOKIN BEREZIARTUA

Aramaio eta Otxandio elkarlanaren bidean dira

Bi udalek eta Oletako kontzejuak hitzarmena sinatu dute asteon bi herrien arteko zerbitzuak parekatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Oletako kontzejuak bizi duen gatazka luzeari konponbidea ematen hasteko martxan jarri dira Aramaio eta Otxandio udalak. Bi herrien arteko lurretan dago Oleta -*limitauan*, hain zuzen-, eta Otxandio herriko plaza kilometro erdira duten bitartean, Aramaio Ibarra auzoa 18 bat kilometrorra geratzen zaie. Beraz, oletarrek bizimodua Otxandion egiten dute. Udal zerbitzuak ordaintzerakoan kanpotarrak balira bezala hartzen dituzte, zerbitzu horientatik estra bat ordaintzera behartuz.

Bi udalak elkarlanean

Hala, elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu dute asteon bi udalek, Oletako kontzejuaren oniritziarekin. Aritz Otxandiano Otxandio alkatearen arabera hitzarmena "lehen pauso" bat da: "Gatazka historikoa bi udalen arteko elkarlanerako motibo bihurtu behar dugu, aro berri bat hasteko". Lehen

ESANAK

"Zerbitzuak parekatu behar dira, batez ere oletarrei begira"

ASIER AGIRRE
ARAMAIOKO ALKATEA

"Elkarlanean oinarritutako aro berri bat hasi behar dugu"

ARITZ OTXANDIANO |
OTXANDIOKO ALKA.

"Hitzarmena oso onuragarria da guretzat"

AGURTZANE ORTIZ DE LANDALUZE
OLETAKO KONTEJUKO LEHENDAKARIA

hitzarmen horrek, finean, aramaioarrek eta otxandiarrek bi herrietan udal zerbitzuak baldintza berdinetan jaso ahal izatea ahalbidetzen du: eskola, ludoteka eta igerileku zerbitzuak, esaterako. Hala azaldu du Asier Agirre Aramaio alkateak: "Bi herrietako zerbitzuak parekatu behar dira, oletarrek onuradun nagusiak izango direla kontuan hartuta. Ez dugu ulertzen nola Otxandion erabilitako zerbitzu bategatik gain kostu bat duten; orain, Udalak ordainduko du kostu hori". Hitzarmenaren hurrengo urratsa *gorri-xen bidea* konpontzea izango da, Agirren arabera; udan hasiko dira lanekin: "*Limitauan* egon arren, bi udalak gara bide horren erabiltzaile", esan zuen.

Agurtzane Ortiz de Landaluze Oletako kontzejuko lehendakaria ere pozik zegoen akordioarekin: "Oletarrok lan handia egin dugu Otxandion eta ez dugu ulertzen gain kostua ordaintzea. Hitzarmena oso onuragarria da guretzat".

Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Xabier Igoa finalerdietan egongo dira

18 bertsolari pasa dira bigarren fasera; final handira sei onenak pasako dira



Manex Agirre aramaioarra—ezkerretik hasita bigarrena— izan zen nagusi Atauriko kanporaketan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

J.B. | ARAMAIO

Amaitu da Arabako bertsolaritza txapelketako lehen fasea. Azken bi kanporaketak jokatu ziren aste bukaeran: egubakoitzean Ataurin eta zapatuan Elosun. Ataurin Manex Agirre aramaioarra izan zen nagusi (154 puntu), eta, beraz, zuzenean lortu zuen finalerdikoetan egoteko txartela. Agirrez gain, Andere Arriolabengoa eta Xabier Igoa ere pasa dira bigarren fasera, lehen fasean kanporaketan lehenak ez geratu arren puntuazio ona lortu zuten-eta.

Aratusteetako atsedenen ostean, txapelketak bere bidea jarraituko du. Orain finalerdietan datoz eta aurten, gainera, lehen aldiz hiru finalerdi jokatu direnez, inoiz baino zailagoa izango da apirilaren 2an Gasteizko Printzipal aretoan (17:30) jokatu den final handirako sailkatzea.

Zigoitia, Aramaio eta Agurain

Finalerdietan hilaren 13an Zigoitian, 19an Aramaion eta 20an Agurainen jokatu dira. Honela banatu dituzte finalerdietan: Zigoitian, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Oihane Perea, Serapio Lopez, Felipe Zelaia eta Irati Anda. Aramaion, Xabier Igoa -etxean jokatu du-, Asier Ota-mendi, Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren, Ekaitz Samaniego eta Rikardo Gonzalez de Durana. Eta amaitzeko, Agurainen, 0Ander Solozabal, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ruben Sanchez, Unai Mendibil eta Alberto Martinez *Betto*.

Finalerdiek jaialdi formatua izango dute, eta ez bertso-afari formatua. Hau da, bertsolariak agertoki gainean izango dira eta zutik abestuko dute. Sei onenak sailkatuko dira finalerako.

ELGETA

Ikusmen gaixotasunak prebenitzeko kanpaina martxan

Doan da 50 urtetik gorakoendako eta 5-10 minutuko kontua besterik ez da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gipuzkoako 84 farmaziatan egiten dute proba, tartean Elgetako Elkoro botikan. Helburua da adinarekin lotutako ikusmen gaixotasunak ahalik eta azkarren detektatzea; izan ere, gehienetan, mina sentitu arte ez gara oftalmologoarengana joaten. "Kataraktak, makularen degenerazioa, begietako hipertentsioak sortzen duen glaukoma... horiek dira prebeni daitezkeen gaixotasunetako batzuk", adierazi du Elgetako farmazialari Amaia Garitano.

Otsailaren 15ean abiarazi zuten kanpaina Gipuzkoako farmazietan eta Elgetan dagoeneko gertu dute probak egiteko behar den materiala. Oso sinplea da. Papezko orri baten Amsler izeneko laukitxodun parrilla dago marrotuta. Orria begietatik 30 zentimetrora ipini behar da eta



Elena Elkoro eta Amaia Garitano, Elgetako botikan. | AMAIA TXINTXURRETA

pazienteak esan behar du zer edo zer gaizki ikusten duen. "Doan egiten da eta 5-10 minutuko kontua da", adierazi du Garitanok. "Jendea animatu egin nahi dugu proba egitera etortzeko".

Arrisku faktoreak

Familian aurrekariak izatea, koipe handia duten dietak, erretzailea izatea, eguzkitako betaurrekoak ez erabiltzea... arrisku faktoreak dira guztiak.

OHARRAK

BISITA GIDATUA

Domekan, hilaren 6an, 36ko gerran Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. Ibilbidea Kafe Antzokiko interpretazio-gunetik abiatuko da, 10:00etan. Ondoren, bost kilometroko ibilbide tematikoa egingo dute, oinez. Prezioa bi euro da. Izena emateko, deitu 943 79 64 63 telefono zenbakira.

KZGUNEA

Astlehenean, martxoak 7, egingo du hurrengo bisita KZguneko tutore Aitor Madridek Elgetara. Bi orduko ikastaroa egiteko aukera izango du bertaratzen den 16 urte baino gehiagoko edozein erabiltzailek. Eskaintza zabala da: Draw, GIMP, Sare Sozialak, Blogger, Youtube, Skype... Tutoria 16:00etatik 20:00etara egongo da kultura etxeko aretoan.

MENDIZALEEN JAI

Mendi Federazioak iraupen luze-ko ibilaldien finalisten jai egingo du Elgetan martxoaren 13an. Egun osoko egitaraua prestatu dute: mendi ibilaldia (Elgeta-Igurria-Udalatx-Elgeta), bazkaria eta diploma banaketa. Eguenean, hilak 10, amaitzen da izena emateko epea. Interesatuak udaletxera deitu behar dute, edo www.emf.fvm.com helbidera idatzi.

Alizia Gartzia irabazi du Bideberrin kartel lehiaketa

Martxoaren 8arekin lotuta bi erakusketa ipiniko dituzte Espaloian: lehena gaur bertan, ludotekako umeek egindako marrazkiekin; eta hilaren 16an, Bideberrin mankomunitatearen kartel lehiaketara aurkeztutako hamar lanek hartuko dute lekukoa. Alizia Gartzia irabazi du lehiaketa hori.

Herriko umeek apirilaren 13an egingo dute Korrika Txikia

Korrika17 apirilaren 14an iritsiko da Elgetara. Goizeko ordu txikietan eta Bizkai aldetik sartuko da gurean. Bezperan, apirilaren 13an, Korrika Txikia egingo dute herriko neska-mutikoek. Herri Eskolako ordezkariak adierazi dutenez, 15:00 aldera irtengo dira kalera eta ohiko ibilbidea egingo dute.

Mundumira prestatzen hasteko lehen herri batzarra

Maiatzaren 28an eta 29an Mundumira jaialdia izango dugu Elgetan. Prestaketa lanean hasi beharra dago, horregatik Udalak herri batzarra deitu du eguaztenerako, martxoak 11. Batzarra udaletxeko areto nagusian egingo da 19:00etan hasita. Herriar guztiak daude bertara deituak.

Kalejira, antzerkia eta disko-mozorro festa

Iritsi da Aratuste-barikua; 15:00etan eskolako umeek emango diote hasiera mozorroen festari

L.Z. | ELGETA

Kresal usaina akaso ez, baina itsas kutsua izango dugu gaur, barikua, Elgetan. Herri Eskolatik piratak, itsasmutilak, naufragoak eta urpekariak irtengo dira, 15:00 aldera. Ateri eusten badio, kalejira egingo dute Herriko Plazaraino, eta bertan, asteotan prestatutako dantzak eskainiko dituzte.

Bertan izango dituzte zain Maala guraso elkarteko ordezkariak. Txokolate beroa gertatuko dute umeen dantzak amaitutakoan bertaratutako guztien artean banatzeko. Eguraldi txarra bada, eskolatik adierazi dute umeek ez dutela kalejirarik egingo eta dantza emanaldia eta txokolate-jana Udal Pilotalekuan egingo dituztela.

Antzerkia eta mozorro-festa

Haurrendako antzerki-emanaldia iragarri du, bestetik, Udalak. Gasteizko Latirili taldeak *Haurtxoaren zopa* ikuskizuna egingo du Espaloia Kafe Antzokian, 17:00etan hasita. *Clown* ikuskizuna da eta txotxongiloek ere parte hartuko dute.

Gaztetxoendako, azkenik, disko-mozorro festa antolatuko dute. Gimnasioan egingo dute eta sartu ahal izateko ezinbestekoa izango da mozorrotuta joatea. Dantzan eta kantuan egiteko aukera egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Disko-mozorro festa 21:00etan hasiko da. Eta, urtero moduan, herriko tabernetan gustura hartuko dituzte mozorroak! Mota guztietakoak!



Festa giroa 2008ko Aratuste-barikuan. | IBAN ARANTZABAL

III. FRONTENIS TXAPELKETA

AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZA

Xabier Ubera-Iban Retolaza / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

25-14

BIHAR, ZAPATUA, 17:30EAN

Ibon eta Asier Untzetabarrenetxea / Adrian Gorostiza-Asier Osoro

Maidier Osa-Anartz Agirre / Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez

Mikel Arkarazo-Ander Gorosabel / Andoni Elortza-Eneko Maguregi

LEINTZ GATZAGA

Ia 40 lagun elkartuko dira bihar Soranen, Inauteri-zapatua ospatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Mozorroak gertu eta jai giro-rako gogoz daude gatzagarriak biharko egunari begira. Gurel guraso elkartek hasiko ditu Inauteri-zapatuko ospakizunak (17:00): txokolate beroa hartu Toki Eder elkartean; maskarak egin mozorroendako; eta jolasak izango dituzte pilotaleku inguruan.

Iluntzean helduen txanda etorriko da. Mozorroak jantzi eta txikiteoan aterako dira, eta gero Soran hotolean elkartuko dira afaltzeko, ia 40 lagun elkartu ere, 27 helduak eta 12 umeak. Afalostea, gainera, disko-jartzaile batek girotuko die.

Eta martitzenean bukatuko dituzte ospakizunak eskolako umeen kalejirarekin.

Emakumeen Eguna dela-eta egindako kartelen erakusketa gaurtik Labidean

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Antzuola, Elgeta eta Gatzagak osatutako Bideberrin mankomunitateak kartel lehiaketa deitu zuen otsailean Emakumeen Eguna begira, eta dagoeneko hautatu dute irabazlea. Gaur jarriko dute kartel hori kaleetan, Emakumeen Nazioarteko Egunerako deia egiteko.

Lehiaketara hamar lan aurkeztu dituzte, eta horiek guztiak erakutsi gura dizkiete Gizarte Zerbitzuetako arduradunek herritarrei. Hala, bada, erakusketa egingo dute lan horiekin Bideberrin osatzen duten hiru herrietan, eta Gatzagan gaurtik hilaren 15a arte, martitzena, egongo dira ikusgai Labidea dendan.

Filma ikustera eta bazkarira animatzeko dei egin dute 'sorginek'

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko film emanaldia antolatuko dute *sorginek* hilaren 11rako (19:00), kultura etxean: Kepa Errastik zuzendutako *Maritxu*.

Zapatuan, hilak 12, ostera, Gure Ametsan bazkalduko dute, urtero legez. *Sorginek* herriko emakume guztiak animatu gura dituzte: "Umore ona lagun, giro ezin hobea sortuko dugu".

ATLETISMOA

Marisol Ramos
Espainiako kros txapelduna, Haron

Marisol Ramos oñatiarra txapeldun geratu da Espainiako kros txapelketan, beteranoen mailan. Aloñako atleta Haron domekan jokatutako txapelketan nagusitu zen, 50 urtetik gorakoetan. Aloñako beste korrikalari batzuek ere emaitza onak lortu zituzten: Walid Ouaalit 22. sailkatu zen eta Sergio Gartzia 39. Biak ere Euskadiko selekzioarekin.



Mari Sol Ramos. | GOIENA

SASKIBALOIA

Sustrai Aloña Mendi
EBAr igotzeko fasean, bihar hasita

Sustrai Aloña Mendi taldeak igoera fasea hasiko du bihar, 18:00etan, Goierri Verkol taldearen kontra, Zubikoan. Oñatikoek laugarren postuan sailkatuta hasiko dute fase berria.

Bestalde, jaitsiera postuak ekiditeko jokatuko du MUK. Lehenengo partidua San Inazio UPNaren kontra izango dute bihar Iturripen (18:00).

FUTBOLA

Bergarak izan ezik, ohorezko erregionalean atsedean izango dute

Aratusteez behar den moduan gozatzeko aukera izango dute ibarreko ordezkari gehienek, Bergarak atzeratutako partidua jokatuko du-eta zapatuan, Hernanin. Emakumezkoek, berriz, berdin egin beharko dute lan. Zapatuan Mondrak Zarautz hartuko du Mojategin (11:00) eta Arizmendik Intxaurdiren kontra jokatuko du Almenen (10:30).

XAKEA

Donostiako aurrean
etxeok ez gutxi egin ahal izan zuten

Aurreikuspenak beteta, Donostiako Gros taldeko maisuen kontra ez gutxi egin ahal izan zuten Arrasate-Arlutz taldeko xakelariek, eta 4-0 galduta itzuli ziren etxera. Oraingo asteburuan, berriz, ligako azken jardunaldia jokatuko dute Arrasate-Arlutzeok. Eta, azkena denez, partida guztiak Iruñean jokatuko dituzte.

Markel Irizar | Radioshack taldeko txirrindularia

"Gizarteari egiten dion ekarpenarengatik miresten dut Armstrong"

► Andaluziatik etorri berri, Parisera doa orain Irizar

► Pronostikoak betez gero, uztailean Tourrean egongo da

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Andaluziako Itzulia irabazi berri, Markel Irizarrek (Oñati, 1980) elkarrizketa zabala eskaini zuen astelehenean *Harmailatik* saioan. Aste barruan, berriz, Nafarroa aldean ibili da entrenatzen, domekan Oñatikoak Paris-Niza proba hasiko du-eta. Hor, lider lanetan Leipheimerrek, Klodenek eta Brajkovicek hartuko diote Irizarri erreleboa.

Zorion agur asko egunotan?

Bai, asko. Guztiak erantzuten ahalegindu naiz, baina norbaitekin kale egin badut, alde zurekin barkamenak.

Zorion bereziren bat?

Denak dira eskertzeok, eta egia da gehien eskertzen ditugun mezuak gauzak txarto iritertzen zaizkigunean izaten direla. Familiakoek, lagunak... Itzulia zehar Armstrongen eta Bruyneelen animo mezuak egunero jaso ditut, baina itzulia amaitutakoan Andreas Klodenen zorion-mezua asko eskertu nuen, beti esaten dut taldeko *gentleman*-a dela.

Egunotan prentsan irakurri dugunaren adibide bat. *El Mundo*-n: "Andaluziako Itzuliaren 57. edizioa ziklismoa maitate duen orok podiumean ikusi nahi duen ziklista baten garaipenarekin amaitu da, Oñatiko Markel Irizarren garaipenarekin".

[Hunkituta] Egia esan, ez dut egunotan argitaratu dena irakurri, eta oilo-ipurdia ere jarri zait. Niretako txirrindularitza oso garrantzitsua da, baina ikustea jendeak kirolaria izateaz gain

pertsona moduan ere asko baloratzen zaituela... horrek betetzen nau gehien. Izan ere, ziklismoa amaitzen denean pertsona geratuko da.

Neurri baten, balio batzuk transmititzeko ardura ere baduzuela kirolariok.

Semeekin, edota Aloña Mendiko ziklista gazteekin... guztiak transmititu behar diegu balio horiek. Eta, askotan kritikiko izaten naiz nire buruarekin, ez dakit-eta ze punturaino betetzen dugun lan hori. Batzuetan ez dakit zer garelako uste dugun; izan ere, ez dugu inoren bizitza salbatzen, ez dugu munduko gosearen kontra ezer egiten, edo kantzeraren kontra; bizikletan ibiltzen gara, eta edonork daki bizikletan ibiltzen, nahiz eta gu apur bat azkarrago joaten garen.

Andaluzian, aste gogoraren ostean, podiumeko lehen koskara igo zinen. Zer sentitzen da hor?

Poztasun handia, azken egunera arte tentsio handia izan nuelako. Taldekideak nire alde lanean zelan zebiltzan ikusi eta nire buruari zera esaten nion: "Hire zorte onarekin, seguru azken etapan pikutara joango dela dena". Horrek ematen zidan beldurra; nahiz eta talde indartsuena niretako lanean izan, azkenean nik egon behar nuen onenekin aurrean.

Bakutuko didazu, baina egoera berean, talde guztietan ez lukete palmaren handiko ziklistak izanda Irizarren aldeko apusturik egingo. Horregatik nago gustura talde honetan. Leipheimerrek garbi



Markel Irizarrek bere etxean hartu gintuen Andaluziatik itzuli berri; ondoan zuen Iban

"Ikustekoa zen Brajkovicek Andaluzian zelan egiten zuen tira"

"Taldea indartsuena izanda ere, nik egon behar nuen aurrean, ezin nuen kale egin"

esan zezakeen: "Nik irabazi behar dut itzuli hau, liderra naizelako". Baina ez zuen horrelakorik esan, itzulia nik irabazi behar nuela esan zidan; eta denak zeuden

ados. Lasterketan, ikustekoa zen zelan egiten zuten tira. Pentsa, Tourrean Brajkovic izango da gure liderra, eta taldea bere gainean dago etengabe, lasterketetan indarrak alferrik gal ez ditzen. Bada, sekula ez dut ikusi Brajkovic Andaluzian moduan tira egiten; erakustaldia egin zuen. Hori adibideetako bat baino ez da, sekula ez ahaztuko taldekideek egin duten lana.

Lehenago izan ez duzun konfiantza duzu Radioshack taldean?

Nik hala sentitzen dut. Batez ere erlojupeetako probei begira laguntza handia eman didate. Esaterako, Mallorcan kontzentratuta egon berri gara, eta han Juan Llanerarekin ibili gara belodromoan lanean, erlojupeko bizikletan postura eraginkorrena bilatzen. Bada, talde osotik hiru



Lagunak eta senitartekoak, Loian, egun ilunkeran (otsailak 24). | AITOR CASADO



Velasco, zain, entrenatzera joateko. | JULEN IRIONDO

"Armstrongen ondoan ikasi dut aurreiritziek ez dutela balio"

"Iaz 53 milioi dolar lortu zituen minbiziaren kontra borroka egiteko"

Hasteko, aurreiritziekin kontuz ibili behar dela, gauza bat dela kanpotik zer ikusten den eta beste bat barruan zer dagoen. Ikusi dut Lance Armstrongen bizitza ez dela batere erraza, eta gauza asko ulertu ditut. Gauzak garbi, badu harrotasun puntua, baina bere taldekideak, lagunak... izugarri ondo zaintzen ditu.

Horretaz aparte, nik Lance Armstrong gizarteari egiten dion ekarpenagatik miresten dut. Cristiano Ronaldo, Alonso, Gasol... horiek zer egin dute gizartearen alde? Armstrongek etxe bat du Hawaiin, eta hark duen diruarekin gu biok Hawaiin egongo ginateteke egun osoan, gora begira. Armstrong, berriz, agintariekin biltzen da, munduko edozein tokitara bidaiatu egiten du, minbiziaren kontra dirua batzeko; iaz 53 milioi dolar lortu zituen, 53 milioi dolar.

Heriotza gehien eragiten dituen gaitza da minbizia, eta, gaitz hori izan dudanez, asko arduratzen nauen gaia da hori. Baina gutako nork ez du inguruan gaitz hori izan duen lagunik, senitartekorik?

Aurreikuspenak betetzen badira, debuta egingo duzu Tourrean.

Berandu nabil guztian! Nire ametsetako taldera 30 urterekin iritsi naiz, eta gauzak ondo badoaz 31 urterekin egingo dut Tourrean debuta. Horrek esan nahi du 40 urtera arte bizikletan ibili beharko dudala [Barre], betiere, etxean onartzen badidate.

Egia esan, ilusio handia egingo lidake, baina lehenago Kaliforniako Itzulia eta Dauphineko probak datoz, eta horietan ondo ibili behar dut, hor irabazi behar dut Tourrerako txartela. Baina bai, esperantzaz nago. Gainera, Tourreko bigarren etapa taldekako erlojupekoa da, eta taldeak ilusio handia du hor jarrita. Prestaketa ere proba horretara bideratuta daukat, eta indarrak gordetzen ari gara denok.

Amaitzeko, RadioBasque ezizenaren gainean galdetuko dizut. Berritsu fama taldera ere iritsi da, ala?

[Barre]. Armstrongek jarritako ezizena da. Flandesen eta Australiaren haren ondoan korritzeko aukera izan nuen, eta asperuta zegoenean, zerbait kontatzeko esaten zidan, baita afalostean eguneko anekdotak kontatzeko ere. Harreman ona dut harekin. Berba asko egitearena ez dakit ona ala txarra den, baina leku guztietan jokatzan dut berdin, halakoa naiz-eta.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHEN MAILA
Deportivo-Reala
Astelena, 21:00. Riazor.

GAZTEEN LIGA NAZIONALA
Aretxabaleta-Ariznabarra
Zapatua, 15:45. Ibarra.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Bergara-Santutxu
Zapatua, 18:00. Ipintza.

OHOREZKO ERREGIONALA
Hernani-Bergara
Zapatua, 18:00. Zubipe.

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA
Bergara B-Soraluze
Zapatua, 16:15. Agorrosin.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Aretxabaleta C-Danena
Zapatua, 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA
Aloña Mendi-Amaikak Bat
Zapatua, 16:30. Azkoain.
Mondra-Añorga
Zapatua, 18:30. Mojategi.

LEHEN MAILAKO GAZTEAK
Lengokoak-Arizmendi
Gaur, 19:30. Donostia.

LEHEN MAILAKO KADETEAK
Usurbil-Arrasate
Zapatua, 11:00. Usurbil.
Añorga-Aloña Mendi
Zapatua, 12:00. Rezola.

EMAKUMEZKOEN IGOERA
Mondra-Zarautz
Zapatua, 11:00. Mojategi.
Arizmendi-Intxaurdi
Zapatua, 10:30. Almen.
*Gaintzeko kategoriek atsedean dute oraingo asteburua.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-EHU Campus
Zapatua, 17:00. Intxaurtueta.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Urritza-Aretxabaleta
Zapatua, 18:15. Billabona.

GIPUZKOAKO HIRU. MAILA
IDK Elektronika-Aloña Mendi
Gaur, 21:30. Donibane.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Portugalete-Ford Mugarri Arra.
Zapatua, 19:30. Portugalete.
Soraluce BKE-Urola Lazti
Zapatua, 18:15. Labegaraieta.

LEHEN TERRITORIALA
Alcorta-Arrasate
Domeka, 11:30. Elgoibar.

BIGARREN TERRITORIALA
Amenabar B-Izarraitz Aloña
Zapatua, 19:00. Antoniano.

FEDERAZIO SARIA

Katilu-Bergara
Zapatua, 16:00. Legazpi.
*Gaintzeko kategoriek atsedean dute oraingo asteburua.

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA, IGOERA
Sustrai Aloña-Goierri Verkol
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

LEHEN MAILA, JAITSIERA
MU-San Inazio UPNA
Zapatua, 18:00. Iturripe.

LEHEN MAILAKO SENIORRAK
MU A-Tabirako Baque
Gaur, 20:45. Iturripe.
*Gaintzeko kategoriek atsedean dute oraingo asteburua.

ERRUGBIA

GAZTEAK
Arrasate-Durango (lagunart.)
Gaur, 18:00. Mojategi.
Logroño-Arrasate/Durango
Domeka, 12:30. Logroño.
*Gaintzeko kategoriek atsedean dute oraingo asteburua.

PILOTA

EGUBAKOITZA
Aretxabaleta,
19:00etan hasita:
Arrasate 1-Ixapagain (inf.)
Arrasate-Añorga 2 (gazteak).

lagunek egin dituzte proba horiek, eta ni nengoen tartean. **Erlojupekoetan aurrerapauso handia egin duzu.**

Bai. Erorikoak izan ez ditudanean aurrean ibili naiz [Barre]. Iazko ekainetik hona egin ditudan erlojupekotan emaitza txarrena bosgarren postua izan da; horri esker, eta taldeak ematen dizkidan erraztasunei esker, inoiz baino konfiantza handiagoarekin nabil.

Garaipena ospatzeko asti barik, Paris-Niza proba joango zara segidan. Han Irizar bere lekura itzuliko da, besteendako lan egitera. Bai, eta oso gustura egingo dut lan hori, gainera. Dena dela, 27 kilometroko erlojupeko bat dago, eta arduradunek adierazi didate posible bada saiatuko direla aurreko etapetan lan handirik ez ematen, erlojupekora ahalik eta

ondoan iristeko. Posible bada indarra horak gordetzea, ondo. Eta posible ez bada, aurrera. **Orain dela hiru urte garaipen ederrak egin zizun ihes Paris-Nizan [Azken unean Thor Hushovd-ek bi segundoko aldeagatik irabazi zuen]. Aldatuko zenuke Andaluzian lortu duzunagatik?**

Orduan gazteago nintzen, eta garaipen hark asko lagunduko zidan, duda barik. Palmasesari begira ere, Paris-Niza proba handia da. Baina nork daki, irabazi izan banu, akaso orain ez nintzen talde honetan egongo. Hori kontuan hartuz gero, ez nuke ezer aldatuko.

Australiaren maitatua bezain gorrotatua izan den ziklista baten agurraren testigu izan zara, Lance Armstrong-ena. Bi urte hauetan, ze ikasi duzu haren ondoan?



Semearekin, ospakizunean. | A.C.



Lagun eta senitartekoekin, egunean (otsailak 24). | A.C.



GOIENA

GAZTEAK, LAN BIKOITZA Arrasateko gazteak ez dute haratustek direlako jai izango, lan bikoitza, baizik. Gaur lagunartekoa dute Mojategin, eta domekan partidua.



Bergarako pilotariak, irudian. | GOIENA

Debarroko pilota txapelketan lider daude Oskarbiko eta Aretxabaletako pilotariak

X.U. | BERGARA

Dagoeneko Debarroko pilota txapelketako hiru jardunaldi jokatu dituzte, eta nagusien kategorian Oskarbiko pilotariak daude lehenengo postuan, eurak dira-eta jokatu dituzten baka-rrak. Ondoren datoz Bergara 1, Oskarbi 2, Lagunak, Eskoriatza, Eibar, Arrasateko, Aretxabaleta eta Bergara 2. Hala,

Gazte mailan, berriz, oraindik ez dute norgehiagokarik jokatu, eta kadete mailan Lagunak taldeko pilotariak erakutsi dute maila onena, oraindik ez dute hutsik egin-eta.

Aste honetan, atsedena

Aratustek tarteko, oraingo asteburuan ez da jardunaldirik egongo Debarroko pilota txapelketan.

*Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.*

EUSKAL PRESOAK



EUSKAL HERRIRA

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Muxibar,
Taupa, Gure Leku eta Mondra taberna.**

ARRASATEKO
ARATUSTEAK 2011



KULTURA

BENETAKO SEXU ISTORIOAK

- ▶ 'Baginaren bakarrizketak' lana eskainiko dute domekan Amaian
- ▶ Ainhoa Garai aktore arrasatearrak parte hartuko du lanean



Ainhoa Garai eta
Aitziber Garmendia

TXALO ANTZERKI TALDEA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Emakume errealean esperientzietan oinarritutako bakarrizketak ekarriko dituzte Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreek domekan Amaia antzokira. Txalo antzerki taldeak Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean *Baginaren bakarrizketak* lana aurkeztuko du.

Eve Ensler estatubatuarrak idatzitako bakarrizketak dira. "200 elkarrizketa baino gehiago egin zien emakumeei, euren sexualitatearen inguruan. Galdeketa haietatik ateratako bakarrizketak dira antzezlanoak. 12 bakarrizketa aukeratu zituen; emakume errealean esperientzietan oinarritutako 12 istorio kontatzen dira", azaldu du Ainhoa Garai aktore arrasatearrak.

Moldeak apurtzea da asmoa

Baginaren bakarrizketak gehien antzeztu den testu garaikideetako bat da. Eztabaida piztu, moldeak apurtu, dinamika sortu eta lotsarik gabe argi eta garbi erakusten du antzezlanoak emakumeen sexualitatea.

"Kontrakoa pentsatu arren, XXI. mendean oraindik tabua da sexua, eta are gehiago emakumeen sexualitatea. Gizonezkoen sexualitatearen aldean emakumezkoena tabu handiagoa da", dio Garaik. Hortaz, molde horiek apurtzea da antzezlanoaren asmoetako bat. "Naturaltasun osoz kontatzen dugu, eta horre-

tan dago antzezlanoaren arrakasta. Lotsak alde batera uzten ditugu eta sexualitatearen eta baginaren inguruan berba egiten dugu normaltasun eta naturaltasun osoz", azaldu du Arrasateko aktore gazteak.

Umorea da ardatza

Esan daiteke komedia bat dela antzezlana. "Hasieratik sartzen dira ikusleak komedia giro horretan, baina esan behar da antzezlanoak badituela hainbat pasarte nahiko gogorrak. Eguneroko bizitzan dena ez da barrea; hortaz, sexualitatearekin lotuta ere badaude hainbat esperientzia ez direnak positiboak", dio Garaik. Adibidez, azaltzen da kasu bat ablazioaren inguruan berba egiten dena eta beste bat bortxaketan inguruan berba egiten dena. "Horiek, adibidez, pasarte gogorrak dira eta komedia puntu hori mozten dute", gaineratu du.

Ainhoa Garaik gizonezkoak animatu gura ditu antzezlana ikustera. "Gizonezkoak ere nonbaitetik etorri dira mundu honetara, ez? Bestalde, emakumeekin harremanak izaten dituzte; hortaz, eurei zuzenduta ere badago antzezlano hau", azaldu du. Hala ere, Garaik aitortu du emakumezkoak direla antzezlano hau ikustera gehien animatzen diren herritarrak: "Istorio errealeak dira azaltzen ditugunak; hortaz, emakume asko identifikatu egiten dira istorio batekin ez bada, beste batekin".

Eve Ensler estatubatuarrak egindako 200 elkarrizketetatik ateratako 12 istorio dira

AINHOA GARAI | AKTOREA

"Hutsetik hasi behar izan nuen eta 'Goenkale' izan zen eskolarik onena"

Arrasaten, etxean, herritarren aurrean lan egingo du Garaik domekan. Pozik dago, baina era berean ardura handiagoa eskatzen duela azaldu digu arrasatear gazteak. **Arrasaten antzeztuko duzu domekan. Gogotsu zaude?**

Arrasatera etortzeko desatzen nago. Nor bere herrira etortzen denean beti egoten da gogo handiagoa. Urduritasun handiagoa ere egoten da. Finean, ezagutzen duzun jendea joaten da, lagunak, familia, herriko jendea...

Gainera, aste bukaera ia guztiak lanean zabilta. Krisirik igarri duzue zuek?

Zortea izan dugu. Krisia dagoenean kultura da lehenengo mozten den iturria, eta, gainera, euskaraz oso gutxi ekoizten da. Guk zortea izan

Urtarrilean estreinatua

Urtarrilaren 14an estreinatua zuten antzezlana Tolosako Leidor antzokian. Esan behar da lehenengo aldia dela Enslerrek 1996an idatzitako lana euskaraz eskaintzen dena. Orain arte 45 hizkuntzatarara egokitu dute eta 120 herrialdetan eskaini dute antzezlana; hala, gehien antzeztu den testu garaikideetako bat da. "Martxoko aste

bukaera guztiak hartuta ditugu antzezlanoarekin, eta baita apirilekoak ere. Oso harrera ona izan du", aitortu du Garaik.

Garmendiarekin, lehen aldiz

Lehenengo aldia dute Aitziber Garmendiak eta Ainhoa Garaik elkarrekin lan egiten dutena. "Zuzenbidea elkarrekin ikasi genuen; hortaz, elkar ezagutzen genuen, eta beti esaten genuen ea batera lan egiteko modurik izango genuen", gogoratzen du Garaik. Garmendiarekin lan egitea "gozamina" dela dio: "Oso emakume alaia da, eta asko ikasten da harekin. Harreman ona daukagu, eta hori funtsezkoa da; izan ere, agertokian giro ona baldin badago, giro hori ikusleei transmititzen diezu". Gaineratu du zortea dutela gustuko duten zerbaitekin lan egiteko aukera dutelako. Zuzenbidea ikasteaz gain, gaur egun Irakasle ikasketak egiten dihardu arrasatearrak.

Krisi garaian kultura izaten da lehenengo mozten den iturria. Bada, arrasatearrak kontatu digunez, eurek ez dute horrelakorik igarri. *Baginaren bakarrizketak* lanarekin aste bukaera guztiak dituzte hartuta martxoan eta apirilean zehar.

Arrasaten datorren domekan, martxoak 6, eskainiko dute antzezlana, Amaia antzokian. 19:30ean izango da antzezlana eta sarrera 10 euro kostako da. Antzezlana euskaraz izango da.

dugu, gainera, euskaraz ekoizteko aukera izan dugulako.

Goenkale-n ezagutu zintugun. Non geratu da Goenkale?

Ez nuen antzerkia ikasteko aukerarik izan Arrasaten, hutsetik hasi behar izan nuen, eta *Goenkale* izan zen eskolarik onena. Oso oroitza-pen onak ditut. Orain dela bost urte utzi nuen *Goenkale*, eta hori bukatutakoan antzerki munduan sartu nintzen. Orduetik hona, telebistan gauza txiki batzuk besterik ez dut egin.

Zuzenbidea ikasi duzu, eta orain Irakasle ikasketak egiten zabilta.

Aktore lana, lana dagoen bitartean oso ondo dago, baina ez dagoen... Ona da beste euskarri bat izatea.

'Txori meteorologoa' musikala eskainiko dute

Oñatiko Ganbara Txikitxoak abesbatzak eskainiko du musikala Santa Anan domekan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Josu Elberdinek idatzitako ipuin musikala egokituta da domekan Ganbara Txikitxoak abesbatzak eskainiko duena. Berez korurako idatzitako obra da *Txori meteorologoa*, baina oñatiarrek argumentuari eutsiz aldatu egin dute gidoia, eta pertsonaia berriak sartu dituzte. Hala, hori izango da musikal horrek izango duen berritasunetako bat: elkarriketak sartuko dituzte.

Izugarrizko dekoratua prestatu dute Ganbarako kideek, eta aurreratu dute sorpresaz betetako musikala izango dela.

Bi pertsonaia

Gurutx Gereta –Jon Ander– eta Sara Mantxola –Idoia– izango dira musikaleko protagonistak. "Hainbat aste ibili gara bi aktoreekin lanean, eta oso esperientzia polita izan da", azaldu du Aitor Biainek, abesbatzako zuzendariak.

Musikalaren argumentua hau da: Jon Anderrek eguraldi iragarpen zehatzak egiten ditu, eta denak txundituta utzi; iragarpenak, baina, etxean duen txori bati esker egiten ditu.

Musikalaren aurretik, *Munduari begira* muntaia aurkeztuko du Ganbara Txikitxoak abesbatzak. Munduko abestiak eskainiko dituzte.

Sarrerak aurrez daude salgai

Txori meteorologoa musikalaren bi saio eskainiko dituzte domekan: 17:00etan eta 19:00etan izango dira. Sarrerak Oñatiko kultura etxean daude salgai, 5 euroren truke.



Oñatiko Ganbara Txikitxoak abesbatzak egonaldia egin zuen Barrian, musikala entseatzeko. 60 neska-mutikok parte hartuko dute musikalean. | AITOR BIAIN

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

IRABAZLEA
M. ASUN
ARKAUZ

MIREIA LARRAÑAGA
GOIENA KLUBEKO
ARDURADUNAREKIN

ZORIONAK!

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

Magdalena Milanoren dantza ikuskizuna

A.E. | ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, *Memoria de una hija Oshun* dokumentala eskainiko dute Aretxabaletako Zaraia aretoan, eta ondoren, Magdalena Milano dantzariak dantza ikuskizuna eskainiko du. 19:00etan da hitzordua eta sarrera doan da.

Munduko dantzak

Aretxabaletako Jaiki elkarteak urteak daramatza munduko dantzak ezagutu eta ikasten. Gainera, afroamerikar kulturako dantzak egin izan dituzte, behin baino gehiagotan Magdalena Milano dantzariarekin.

Hala, kultura aniztasunari bultzada eman guran antolatuko dute dokumental proiektua. *Memoria de una hija de Oshun* filmean, Hego Amerikako herrialde bateko errealtatea islatzen da: esklabotza XX. mendean eta kultura afrouroguiarra, hain zuzen.

Jatorri afrikarra

Maria Frias da *Memoria de una hija de Oshun* dokumentaleko protagonista. Uruguaiako 72 urteko dantzariak XX. mendean esklabotza bizi izan zuen; baina dantzari eta candombeari esker bere bizitza erreperatu ahal izan du. Friasek dantza erritualetan bitartez Oshun Orishari deitzen dio; Oshun ur gezatara Orisha da. Candombea arbasoenganako oihu bat da.

Dokumentalaren ondoren, Magdalena Milano dantzariak dantza ikuskizuna eskainiko du Arkupeko Zaraia aretoan bertan.

Euskal dantza tradizionalen barrera bidaia egiteko aukera izango da etzi Bergaran

Claude Iruretagoiena zuzendari artistiko lanetan arituko da Maritzuli konpainiak eta Eraiki dantza taldeak eskainiko duten dantza ikuskizunean

A.E. | BERGARA

Biarritzeko Maritzuli konpainiak eta Eraiki dantza taldeak *Aurrez aurre* dantza emanaldia egingo dute domekan Bergarako Udal Pilotalekuan.

Claude eta Jon Iruretagoienaren zuzendaritzapean, euskal dantza tradizionalen barrera "bidaia hunkigarria" planteatzen du Maritzuli taldeak ikuskizun horretan. Lapurdiko Inauteriei edo Zuberoako Maskaradei begi berriekin begiratzen die Maritzulik *Aurrez aurre* lanean. Maskaraden kasuan, Jon Iruretagoienak egindako ikerketa eta birsortze lanak taulan ikusteko aukera eskaintzen du ikuskizunak. Bestalde, Italiako Pizkundeko dantza eskolen tradizioaren eta



Maritzuli konpainia eta Eraiki dantza taldea arituko dira taula gainean. | GOIENA

euskal dantza tradizionalaren arteko lotuneak bilatzen ditu *Paperezko iantzak* izendatu duten atalean.

Lau atal izango ditu

Aurkezpenaz gain, beste lau atal izango ditu ikuskizunak: *Ihaute*, *Branletik jautziak*, *Paperezko iantzak* eta *Ando drom*.

Ikuskizunerako jantzi eta apainketa lan ikaragarria egin du Claude Iruretagoienak, eta Aiko musika taldeak ikuskizunerako sortutako musikaren graziak atontzen du dantzarien lana. Claude Iruretagoiena Juan Antonio Urbeltzekin trebatu da tradizioa eszenaratzeke orduan.


19:00etan izango da

Dantza emanaldia Udal Pilotalekuan izango da, domekan, 19:00etan. Sarrera 7 euro da.

Claude Iruretagoiena zuzendari artistikoa izango da eta koreografoak, Claude Iruretagoiena bera, Christine Grimaldi, Jon Iruretagoiena eta Celine Duprou.

ARATUSTEAK
2011 ARRASATE

Guk prest dugu mozorroa, eta zuk?



**Amets * Bengoa * Branka * Ederra * Itzala * Lora * Okoretegi * Rumba
Goiz Alde * Kimetz * Plus Ultra * Txoko * Mondra**



Diego de la Cruz, bere motorraren eta askotan gidatzen duen autobusaren aurrean.

Diego de la Cruz | Autobus gidaria eta motorzalea

"Laster, motorra alde batera utzi eta ume-kotxea eramateko gidabaimena atera beharko dut"

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Diego de la Cruz (Gasteiz, 1983) errepidean ikusiko duzue erraz. Egutero autobusa zortzi orduz gidatu ostean, etxean erlaxatu beharrean, bere motor gainean eseri eta autobide zein herri errepideetan zehar galtzen den mutilla dugu.

Nondik datorkizu errepide eta motorraren zaletasuna?

Ba... ez dakit. Beti atsegin izan ditut motorrak, baina etxean ni izan naiz zaletasun hau eduki duen lehena. Motor mundua nire bitartez iritsi zen etxera.

Eta autobusarekin zer?

Horrek bere arrazoia dauka. Nire gurasoek ez dute inoiz autorik izan, eta, lagunek kotxeak begiratzen zituzten neurrian, nik autobusak gustuko nituen. Uda

guztietan Extremadurara joaten ginen eta garai hartan ia 15 orduko bidaia egiten genuen. Negar egin beharrean, ni poz-pozik joaten nintzen. Bertan gurasoekin eta arrebekin igarotako oso orotzapen onak ditut.

Baina erabiltzaile izatek gidari izatera?

Ez, ez. Nik txikitatik gidari izan nahi nuen. Eskolako nire mahaian hamaika autobus enpresaren izekak konpasarekin idatzi nituen: Pesa, Alsa, Burundesa, Arriaga... txorakeria dirudi, baina, autoek ez bezala, ni autobusek erakartzen ninduten. Donostiara bidean Ormaiztegi paretik pasatzean, mendietara begiratu beharrean Irizar lantegiaren kanpoan zeuden ehunka autobusei begira egoten nintzen.

Guztira, zenbat gidabaimen daukazu?

[Diru-zorroa begiratu ostean] Hiru: motorra gidatzeko, autobusa eta anbulantzia gidatzeko eta mundu guztiak daukan autoko gidabaimena.

Autobus bat eta motor bat gidatzeko oso ezberdina izan behar du?

Zeharo ezberdina. Autobusak kontrol handia ematen dizu; motorrak, berriz, gidatzeko orduan beste mota bateko emozioak ematen dizkizu bihurtzeko hartzeko orduan, abiadura bizkortzean... Motorraren bitartez paregabeak diren uneak bizi izateko aukera izan dut.

Motorrean, bat ala bi?

Bat; nire motorra Suzuki GSX-R750 bat da, eta, bi eserleku dituen arren, erosoago doa gidaria biga-

rren pertsona baino. Gainera, gidatzeko orduan ere, bi pertsonarekin ez da sentazio bera.

Inoiz errepidea laztandu duzu?

Denok bezala, inoiz motorrak irrist egin eta errepidearen zaporea probatu dut, bai. Zorionez, ez da ezer larririk gertatu, urratu batzuk eta listo. Dena den, kontuz ibili beharra dago, motorrean ez duzu babes handirik eta akats txikiena zerbait larri bihurtu daiteke.

Pingüinos, Cheste eta horrelako motorzale bileretara joaten zara?

Joan izan naiz, baina ez ditut gustuko. Motorra errepidean gozatzeko zerbait da. Horrelako tokietan motorra festa egiteko aitzakia bat besterik ez da. Nik nahiago dut lagunekin bidaia bat antolatu.

Askotan gidatzen duzu taldean?

Nahiko nukeena baino gutxiagotan. Eskoriatzako beste mutil batek primerako bidaia antola-

tzen ditu. Azkenekoan, 4.000 kilometrotik gora egin genituen aste betean zehar.

Laster, motorra aparkalekuan utzi eta beste gidabaimen bat beharko duzu.

Halaxe da, bai. Hilabete eta piku barru aita izango naiz eta ume-kotxea eramateko gidabaimena eskuratu beharko dut. Hilabete batzuetan L-arekin joan beharko dut, badaezpada ere.

Zure alaba motorzalea izatea gustatuko litzaizuke?

A ze galdera zaila! Egia esateko, ez. Nire gurasoei, amari, gehienbat, oso une txarrak pasarazi dizkiot, eta ez dakit hori pasatzeko prest nagoen.

Hara, hara... motorzalea, zu bai eta besteak ez?

Ez da hori, nire alabak motor bat gidatu nahi badu, nik erakutsiko diot behar bezala errepidean ibiltzen, baina autobusean mugitzen bada, hobeto!

PERTSONALA

Zaletasun bat: Motorra.

Motor bat: Ducati 1098.

Motor-gidari bat: Valentino Rossi.

Motorrean egindako bidairik luzeena: Faro (Portugal).

Talde gustukoena: Extremoduro.

Amets bat: Errepideko bide-babesle zorrotzak desagertzea.

Proposamen bat: Errepideetan margotzen diren bide-seinaleak pintura ez labainkorrekin margotzea.

Liburu bat: *El poder de la relajación* (Daniel Baile del Sol)

ASTEAGA GOIENAN



Asteburuko Aratustek ikusgai

Asteburuan herriz herri ibiliko gara Debagoiengan Aratustek emanen dutena jasotzen: kale giroa, mozorroak, inkestak... Denetarik izango dugu astelehenean, zuek etxetik goxo-goxo ikusteko guk kalean jasotakoak.

'Goiena magazinea'
Astelehena, 19:45



Erremedioen gaineke beste saio bat

Erremeixuak: Osasuna munduko ondasuna sendabelar eta erremedioen gaineke beste saio bat eskainiko dugu martitzenean. Bertan azalduko zaigu minei aurre egin ahal izateko hainbat erremedio nola egin.

'Erremeixuak'
Martitzena, 20:45

GOIENA TELEBISTA

| EGUBAKOITZA, 4 | ZAPATUA, 5 | DOMEKA, 6 | ASTELEHENA, 7 | MARTITZENA, 8 | EGUAZTENA, 9 | EGUENA, 10 |
|---------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|
| 13:15 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 08:00 Klik | 13:15 Marrazki bizidunak | 13:15 Marrazki bizidunak | 13:15 Marrazki bizidunak | 13:15 Marrazki bizidunak |
| 13:45 Kantari | 09:30 Sokamuturra | 08:35 Leku txiki bat | 13:35 Kantari | 13:45 Kantari | 13:35 Kantari | 13:45 Kantari |
| 14:15 Onein | 10:00 Ipupomamua | 08:55 Ipupomamua | 14:15 Berbetan | 14:15 Onein | 14:00 Harmailatik | 14:15 Onein |
| 14:45 Berriak | 10:30 Leku txiki bat | 09:20 Marrazki bizidunak | 14:45 Berriak | 14:45 Berriak | 14:45 Berriak | 14:45 Berriak |
| 15:15 Ur eta lur | 10:45 Goiena Magazinea | 10:45 Kantari | 15:10 Nere herrie | 15:15 Harmailatik | 15:15 Onein | 15:10 Sakonduz |
| 15:45 Kulturzulo | 11:45 Ur eta lur | 11:15 Sokamuturra | 16:00 Ikusmira | 16:00 Kulturzulo | 15:45 Bi tartean | 15:40 Bi tartean |
| 16:00 Leku txiki bat | 12:15 Onein | 11:45 28. Klip | 16:25 Gipuzkoa kultura | 16:15 Sokamuturra | 16:30 Leku txiki bat | 16:25 Ikusmira |
| 16:15 Erremeixuak | 12:40 Berriak | 12:15 Berbetan | 16:45 Berriak | 16:45 Berriak | 16:45 Berriak | 16:45 Berriak |
| 16:45 Berriak | 13:00 Kantari | 12:45 Ur eta lur | 17:15 Marrazki bizidunak | 17:15 Marrazki bizidunak | 17:10 Marrazki bizidunak | 17:15 Marrazki bizidunak |
| 17:15 Marrazki bizidunak | 14:00 Leku txiki bat | 13:15 Esatea libre | 17:45 Ur eta lur | 17:45 Harmailatik | 17:30 Sokamuturra | 17:45 Ipupomamua |
| 17:45 Gipuzkoa kultura | 14:15 Marrazki bizidunak | 14:15 Onein | 18:15 Marrazki bizidunak | 18:25 Marrazki bizidunak | 18:00 Berbetan | 18:15 Marrazki bizidunak |
| 18:15 Ipupomamua | 15:45 Esatea libre | 14:45 Berriak | 18:45 Berriak | 18:45 Berriak | 18:30 Marrazki bizidunak | 18:45 Berriak |
| 18:45 Berriak | 16:45 Gipuzkoa kultura | 15:00 Ipupomamua | 19:15 Kantari | 19:15 Kantari | 18:45 Berriak | 19:15 Kantari |
| 19:15 Kantari | 17:15 Kulturzulo | 15:30 Goiena Magazinea | 19:45 Goiena Magazinea | 19:45 Goiena Magazinea | 19:15 Kantari | 19:45 Goiena Magazinea |
| 19:45 Goiena Magazinea | 17:30 Tertulia | 16:30 Bi tartean | 20:45 Harmailatik | 19:45 Goiena Magazinea | 20:45 Tertulia | 20:45 Sakonduz |
| 20:45 Gipuzkoa kultura | 18:30 Berbetan | 17:15 Ikusmira | 21:30 Goiena Magazinea | 20:45 Erremeixuak | 21:45 Goiena Magazinea | 21:15 Goiena Magazinea |
| 21:15 Goiena Magazinea | 19:00 Ikusmira | 17:50 Esatea libre | 22:30 Harmailatik | 21:20 Goiena Magazinea | 21:45 Goiena Magazinea | 22:15 Gipuzkoa kultura |
| 22:15 Sakonduz | 20:00 Nere herrie | 18:50 Herri kirolak | 23:15 Gipuzkoa kultura | 22:30 Sakonduz | 22:45 Tertulia | 22:45 Erremeixuak |
| 23:45 Goiena Magazinea | 20:45 Kulturzulo | 19:20 Marrazki bizidunak | 23:45 Goiena Magazinea | 23:00 Goiena Magazinea | 23:45 Nere herria | 23:45 Goiena Magazinea |
| | 21:00 Erremeixuak | 20:15 Erremeixuak | | | | |
| | 21:30 Berriak | 21:45 Goiena Magazinea | | | | |
| | 22:45 Nire Herria | 22:45 Tertulia | | | | |
| | 23:10 Gipuzkoa kultura | 23:45 Nire Herria | | | | |
| | 23:40 Bi tartean | | | | | |

ARRASATE IRRATIA

Bebe abeslariaren kontzerturako sarrerak

Bebe abeslariak kontzertua eskainiko du martxoaren 12an Amaia antzokian. Bada, sarrerak lortu nahi baldin badituzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zozketa egubakoitzean egingo dugu.

Aratusteen gainekeon berri emango dizuegu


Asteburuan izango diren Aratustek emandakoa jasoko dugu astelehenean *Igo autobusera!* saioan. Eta martitzenerako zein ekintza izango diren ere azpimarretako ditugu 107.7an. Beraz, mozorro egunen inguruko berriak gurean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE | | | |
|-----------------|---------------------|---------------------|--------------|
| Zapatua, 5 | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 6 | AURORA RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 7 | ERKUDEN ETXEBERRIA | Zarugalde, 42, 44 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 8 | ALBERTO AZCOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 9 | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 10 | ANA FDEZ. CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 11 | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| BERGARA | | | |
| Zapatua, 5 | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 6 | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 7 | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 8 | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 9 | INIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 10 | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 11 | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| OÑATI | | | |
| Zapatua, 5 | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 6 | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 7 | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 8 | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 9 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 10 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 11 | ANDUAGA | San Lorenzo, 3 | 943 78 21 16 |
| ARETXABALETA | | | |
| Zapatua, 5 | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza, 1 | 943 71 48 28 |
| Domeka, 6 | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza, 1 | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 7 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 8 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 9 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 10 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 11 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |


Farmazien eskuko telefonoentarako 2010 egutegia eskuratzeke, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN



ZAPATUA, 5
Zerua garbitzen joango da; hodei gutxiago izango ditugu. Tenperatura ere igotzen hasiko da eta eguzkia aterako da.

DOMEKA, 6
Tenperaturak gora egiten jarraituko du eta giro atsegina izango dugu. Eguzkia gailenduko da orokorrean.



GAZTE INFORMAZIOA

LANA
Arduradun ekonomiko finantzaria. Donostia Kultura. Baldintzak: ekonomia edo enpresaritzaren zientzia arloetan enpresaritzaren 3. maila izatea. Epea: martxoaren 7ra arte.

Eragilea. Arabako Bertsozale Elkarteak. Aldi baterako baja ordezkatzeko eragilea behar da Arabako Bertsozale elkartean. Baldintzak: goi mailako ikasketak izatea eta komunikazio teknologien ezagutza izatea. Epea: martxoaren 12a.

Gazte Informatzailea. Zaruazko Gazteentzako Informazio Bulegoa. Bete beharrekoak: gizarte zientziaren titulazioa, euskaraz ondo jakitea. Hizkuntzak baloratuko dira. Epea: apirilaren 13a.

BEKAK
Praktikak atzerrian. Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordea. Gutxienez 3 urteko iraupeneko unibertsitate-ikasketak, bi hizkuntza ezagutzera, bat ingelesa edo frantsesa izanik. Epea: martxoaren 31.

Praktikak atzerrian. Hezkuntza Ministerioa. ARGO bekak, Europako enpresetan iraupen ezberdinetako prestakuntza egonaldiak egiteko. Betebeharrekoak: publiko nahiz pribatu izan, titulazioa izateko (titulazioa ofiziala izanik). Epea: 2012ko martxoaren 30a.

LEHIAKETAK
Artea. Caja Madrideko gizarte-ekintza. Aukeratuak 10 proiektu artistikoek 15.000 euroko sari bana izango dute. Epea: apirilaren 13a.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 94325 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteentzako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 94371 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

HILDAKOAK

Bixente Markuleta Azurmendi. Oñatin, otsailaren 24an. 93 urte.**Eli Zuazabeitia Zuazua.** Aretxabaletan, otsailaren 24an, 45 urte.**Marivi Ugarte Garai.** Iruñean, otsailaren 25ean. 54 urte.**Felix Fernandez Tundidor.** Bergaran, otsailaren 25ean. 79 urte.**Angel Abasolo Errasti.** Arrasaten, otsailaren 26an. 90 urte.**Lorenzo Garcia Sanchez.** Arrasaten, otsailaren 27an. 78 urte.**M.Carmen Etxeberria Telleriarte.** Bergaran, otsailaren 28an. 86 urte.**Catalina Cid Amaya.** Arrasaten, otsailaren 28an. 89 urte.**Saturnino Matilla Calzada.** Arrasaten,otsailaren 28an. 58 urte.**Ignacio Erce Otxoa.** Bergaran, otsailaren 28an. 73 urte.**Jose Perez Ramila.** Bergaran, martxoaren 1ean. 90 urte.**Esther Urrestarazu Arregi.** Oñatin, martxoaren 1ean. 45 urte.**Gregorio Velazquez Arranz.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 81 urte.**Nicolas Arazuri Munarriz.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 67 urte.**Josu eta Sandra**

Josu Zuloaga antzuolarra eta Sandra Velasco oñatiarra zapatuan, martxoaren 5ean, ezkonduko dira. "Zorionak familia danan partetik eta ondo pasatu Argentinan!".

URTEURRENA

Jose Meabe Sainz

Lehen urteurreneko meza astelehenean, martxoaren 7an, 19:00etan, Aretxabaletako mojen komentuan ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Joaquin Lazkano Uranga

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 6an, 10:30ean, Uberako San Pablo elizan ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko emazte eta senideen izenean.

URTEURRENA

Modesta Ugarte Ugarte

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Marivi Ugarte Garai

Iruñean hil zen 2011ko otsailaren 25ean, 54urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza domekan, martxoaren 6an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.

Arrasaten, 2011ko martxoaren 4an.

ESKER ONA

Eli Zuazabeitia Zuazua

Aretxabaletan hil zen 2011ko otsailaren 24an, 45 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2011ko martxoaren 4an.

ESKER ONA

Bixente Markuleta Azurmendi

Oñatin hil zen 2011ko otsailaren 24an, 93 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2011ko martxoaren 4an.

OROIGARRIA

Marivi Ugarte Garai

Iruñean hil zen 2011ko otsailaren 25ean, 54urte zituela.

*Bapatean hotzikara, bihotzean ziztada
Begietan negarra, samia eta mingarra
Non galdu dugu indarra, non iriparra
Ondoren gogoeta, barneko ariketa
Baruan zaitugu, kolorez beteta.*

Copreciko lankideak, lagun eta adiskideak.
Aretxabaletan, 2011ko martxoaren 4an.

OROIGARRIA

Eli Zuazabeitia Zuazua

Aretxabaletan hil zen 2011ko otsailaren 24an, 45 urte zituela.

*Amatxo, betirako gure bihotzetan.
Maite zaitugu.*

Aitatxo, Gaizka eta Lide.
Aretxabaletan, 2011ko martxoaren 4an.

OROIGARRIA

Esther Urrestarazu Arregi

Oñatin hil zen 2011ko martxoaren 1ean, 45 urte zituela.

Beti gure bihotzean egongo zara.

Zubia-Arriaran sendia.
Oñatin, 2011ko martxoaren 4an.

OROIGARRIA

Eli Zuazabeitia Zuazua

Ikastolako gurasoa



Aretxabaletan hil zen, 2011ko otsailaren 24an, 45 urte zituela.

Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Arizmendi ikastolako guraso eta langileak.
Leintz bailaran, 2011ko martxoaren 4an.

OROIGARRIA

Eli Zuazabeitia Zuazua

Aretxabaletan hil zen 2011ko otsailaren 24an, 45 urte zituela.

*Jada faltan botatzen zaitugu
baina gaurero zerura begiratu
eta keinu egingo diguzu...
Zeruko izar ederrena zara.*

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2011ko martxoaren 4an.

Babeslea:

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

BERGARA Dantza emanaldia
Miarritzeko Maritzuli konpainia eta Eraiki dantza taldearen eskutik dator *Aurrez aurre* ikuskizuna. Claude eta Jon Iruretagoienaren zuzendaritzapean, euskal dantza tradizionalen barrena "bidaia hunkigarria" eskainiko dute, eta Lapurdiko Inauteriei eta Zuberoko Maskaradei begi berriekin begiratu.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 19:00etan.



GOIENA



GOIENA

ELGETA Espainiako gerraren gainean ibilbide tematikoa
Espainiako gerrak Euskal Herrian izan zuen eragina oinarri hartuta, ibilbide horretan, Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. 5 kilometroko ibilbidea egingo da, oinez.

Etzi, domeka, Espaloia Kafe Antzokitik irtenda, 10:00etan.

MUSIKA

ARETXABALETA 'Karnabal jaia' musika eskolakoekin

Leizarra musika eskolako kideek *Karnabal jaia* eskainiko dute musika eta dantza bateratuta. Gaur, egubakoitza, kalean, 17:30ean.

ELGETA Disko-mozorro festa
Gaztetxoendako. Ezinbestekoa da mozorrotuta joatea. Gaur, egubakoitza, kiroldegiko gimnasioan, 21:00etatik 20:30era.

ARRASATE Los Galerna eta The Moonstones
Garage eta surf doinuak entzungo dira. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Aratusteetako kontzertua
Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratuste-kontzertua egingo dute. Kontzertuan batuko den dirua Magali Muruamendiarratz neskatoa Galizian jasotzen ari den tratamendua ordaintzen laguntzeko izango da. Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 21:30ean.

ESKORIATZA Egan taldearekin dantzaldia
Taldea mitikoarekin dantza egiteko aukera izango da plazan. Bihar, zapatua, plazan, 13:00etan eta arratsaldean.

BERGARA Drindots taldea
Azokako mozerro afariaren ostean hasiko da musika plazan. Bihar, zapatua, San Martin plazan, 23:00etan.

BERGARA Boxeo gaua: DJ Elvis Caino eta DJ Hipster
DJ Elvis Cainok *Urtain* boxeolari ospetsuaren papera egingo du

BONOFOTOA

Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari: **Aretxabaleta Isabel Gomez.**

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA IRABAZI DU



Erantzun zuzena: **Bedoña auzoa. Arrasaten dago orain**

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxe: 943 25 05 13

MARTXOA 4
MARTXOA 10

eta DJ Hipster *Madurako txekorra*-ren gorpuan sartuko da. Bihar, zapatua, gaztetxean, 24:00etan.

OÑATI Ipuin musikatua
Ganbara Txikiko eskutik ipuin musikatua egongo da. *Txori Meteorologoa* du izena ikuskizunak. Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan eta 19:00etan.

ARAMAIO Bea Asumendiren kontzertu-lunch akustikoa
Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela-eta antolatuta duten kultura astean. Martxoaren 7an, astelehena, Sastifian, 18:30ean.

BERGARA Karaokea eta DJ festa
Aratusteetako egitarauaren barruan antolatuta dute. Martxoaren 8an, martitzena, San Martin plazan, 16:15ean.

ARRASATE Egan taldearekin dantzaldia
Aratuste-martitzenean plazan dantza egiteko aukera egongo da Egan talde mitikoarekin. Martxoaren 8an, martitzena, herriko plazan, 20:00etan eta 23:30ean.

OÑATI Disko-festa
Aratuste-martitzenean disko-festa egongo da herriko plazan, arratsaldean eta gauetan. Martxoaren 8an, martitzena, herriko plazan, 19:00etan eta 23:00etan.

ARRASATE Norman taldearen kontzertua
Eibarko Norman taldea izango da gaztetxean, Kooltur Ostegunak barruan. Eguenean, gaztetxean, 22:00etan.

ANTZERKIA

ANTZUOLA Klown saioa Virginia Imazekin
Molestias Clownicas antzeztuko du bergararrak. Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan.

ELGETA 'Haurtxoaren zopa' antzezlana
Klown ikuskizuna txotxongiloen Latirili taldearekin. Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 17:00etan.

OÑATI 'Ecografias' antzezlana
Makiescena antzerki taldearen eskutik. Ramon Barea aktorearen gidaritzapean eta Karmele Jaio idazlearen testuan oinarrituta. Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ARRASATE 'Elias bailan solas' antzezlana
Pikor Teatroren eskutik, Aratusteetako egitarauaren barruan. Martitzenean, Seber Altube plazan, 18:00etan.

BERGARA 'Exodo' antzezlana
En la Lona antzerki taldeak *Exodo* antzezlana egingo du. Martxoaren 8an, martitzena, San Martin plazan, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

ARETXABALETA Film emanaldia eta dantza ekitaldia

Jaiki elkarteak antolatuta *Memoirias de una hija de Oshun* filma emango dute eta gero dantza ekitaldia egin Magdalena Milanorenkin. Debalde da. Gaur, egubakoitza, Arkupeko Zاراia aretoan, 19:00etan.

ANTZUOLA Txan magoa
Atez atekoaren ongi-etorri jaia egingo dute. 17:00etan Txan magoa egongo da Torresoroan eta 18:30etik aurrera, Zurrategi plazan, birziklapen eskulanak eta bertso-poteoa. Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 17:30ean.

DANTZA

ANTZUOLA Inauteri egunaren ospakizuna, Oinariek antolatuta
10:00etan dantzarien kalejira egingo dute hartza, tximinoa eta domadorearekin. 12:30ean dantza-saioa egingo dute herriko plazan: umeen saioa, emakumeena eta sorgin-dantza. Bertan izango dira hartza, tximinoa eta domadorea ere. Etzi, domeka, herrian eta plazan, 10:00etan kalejira eta 12:30ean dantza-saioa.

OÑATI Inauterietako dantzak
Oñatz dantza taldeak Inauterietako dantzak egingo ditu bihar, zapatua, egun osoan zehar. 20:00etan, ekitaldia egingo dute plazan, Domekan, 18:30etik aurrera, Luzaidoko Inauteria egingo dute. Bihar eta etzi, herrian eta plazan.

UMEAK

ESKORIATZA Gorriti eta bere animaliak
Txikienek Gorriti eta bere animaliekin disfrutatzeko aukera izango dute. Bihar, zapatua, Gorosarri plazan, 16:00etan.

BERGARA Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak
Ongi etorri... Pupu eta Lore ikuskizuna egingo dute. Sarrerak daude oraindik eta leihatilan erosi ahal izango dira, bihar, zapatuan 15:00etatik aurrera. Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 16:00etan eta 18:30ean.

ARRASATE Potxin eta Patxin pailazoak
Zirkua ezagutz lana egingo dute pailazoek, Aratusteetako egitarauaren barruan. Martxoak 8, martitzena, Uarkapen, 17:00etan.

OÑATI Zirika Zirkus
Zirika Zirkus pailazoek *Zirika Zirkaos* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera doan izango da. Martxoak 8, martitzena, kiroldegian, 17:00etan.



GOIENA

DEBAGOIENA Aratusteak
Ibarreko herri guztietan ospatuko ditugu Aratusteak. Zapatuan mozerroren lehiaketak egingo dituzte Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Aramaion. Aretxabaletan ere lehiaketa eta urteroko karrozen desfilea egingo dute, domekan. Antzuolan, berriz, sorgin-dantza egingo dute domeka eguerdian plazan. Martitzenera arte, Debagoieneko herrietan.



goiena

2011-03-04

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Sexualitatea amatasuna zenean...

- ▶ Mugimendu feministak indar handia izan zuen 80ko eta 90eko hamarkadetan Arrasaten
- ▶ Lopez eta Monge mugimendu hartako bi aurpegi ezagun dira eta ondo gogoratzen dituzte garai haiek

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Francoren heriotzaren ostean, beste mugimendu askorekin batera mugimendu feministak ere eztanda egin zuen Euskal Herrian. Bada, Arrasaten beste herri batzuetan baino indar handiagoa hartu zuten emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenek. 90eko hamarkadaren hasieran, lau talde feminista zeuden herrian: Ekin Emakumeak, Familia eta Gizarte, Emakumeen Asanblada eta Egizan. Azken bi talde horietako ordezkariak izan ziren, hurrenez hurren, Julia Monge eta Sagra Lopez.

Egun talde biak desagertuta dauden arren, Monjek eta Lopezek emakumeen eskubideen alde borrokan segaitzen dute. Hori horrela, asteon Emakume Txokoak antolatutako ikastaro baten topo egin dute. *Mugimendu Feminista: iragana, oraina eta etorkizuna* zen ikastaroaren izena eta horri esker 80ko eta 90eko hamarkadetan borrokatutakoak, egindakoak eta lortutakoak gogoratu zituzten.

Emakume ausartak

"Lehenengo jardunaldi feministak, legez kanpokoak, Madrilen egin ziren. Horren ostean sortu zen Arrasateko Emakumeen Asanblada. Emakume talde txikia zen,



Julia Monge eta Sagra Lopezek feminismoaren alde lanean segitzen dute. | A.B.



Arrasateko lau talde feministak. | S.L.



Emakumeen Eguna ospatzen. | J.M.

baina guztiak ere oso ausartak ziren. Jende askok entzun nahi ez zituen gauzak esan eta aldarrikatzen zituzten", kontatu digu Julia Monjek. "Urte askoan gure leloa izan zen *Sexualitatea ez da amatasuna*. Gaur egun pentsaezina litzateke hori".

Sagra Lopezek urte askoan ordezkatu duen Egizan taldea, berriz, 1988an jaio zen: "Euskal Herriaren Askapenerako Mugimendu Nazionalen ari ginean lanean, baina argi ikusten genuen emakumeon problematika ezberdina zela eta ezberdin landu behar zela. Gure borrokak hiru ziren: patriarkatuarengandik askapena lortzea, klase borroka eta Espainiako eta Frantziako estatuek gure izatea onartzea", dio.

1995ean, pauso garrantzitsua

90eko hamarkadaren hasieran, herriko lau talde feministak batu eta pauso bat gehiago ematea erabaki zuten: Udalarri emakumeen kontseilu bat eskatzea. Horren ostean, 1995ean, Emakume Txokoa zabaltzea lortu zuten. Beste gauza askoren artean, Lopezek eta Mongeren moduko emakumeen borrokak posible egin du Arrasateko emakumeen eskaintako txokoa izatea gaur egun.

AZKEN HITZA

XABIER ZUBIZARRETA



Diberti gaitzen

Juanito Juaristi Alkobendasen ordua "eusqueraz" galdetuz eta euskal zaleok "chinchatuz" dibertitzen da; zerrenda luze bat sujerituko nioke, "dibertsioarekin" jarrai dezan; idazteko formei dagokienez: eusquera, eusqara, esqara, esqüera, eusqueri, üsqara; hitz egiterakoan, jakin ez; agian, hainbeste dibertitzen ez duena euskararen alde herri honetan egiten den lan esker ga guztia da; euskara, Unamuno zahar eta berri guztien gainetik, euskaldunok bizirik mantentzen dugun hizkuntza izatea da; baldintzarik txarrenetan ere, irauraraziz; gainera, zein ordutan bizi garen jakiteko, ez dago hain urruti joan beharrik, Juanito; guri geure hizkuntzak (euskarak) hitz egiteko, adierazteko, adosteko, ukatzeko, maitatzeko nahiz madarikatzeko... eta idazteko; azken finean, bizitzeko, balio digu; milaka urtetan zeharreko euskaldunon izaera transmititzen jarraitzeko; ez dakit, Alkobendasera, Bonapartek ezagutu ez zuen euskalkiren bat denetz; dakidana, euskara Hueskaraino erabili izan dela; eta hori berreskuratzearekin aski dugu; baina hori gabe, ez dugu etsiko eta, gainera, geu ere dibertitu egingo gara.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51